

# Goienkaria

2007ko otsailaren 9a > Egubakoitzza > VII. urtea > 275. zenbakia > Doan banatzekoak

www.goiena.net

"Indigena  
izatea da Evo  
Morales  
boliviarraren  
arakastaren  
gakoa"

Albert Nogueras  
Politikan  
lizenziaduna > 09



G2a

Lazcano margolari  
bergararra  
Guggenheim > 43

BAI ESKOLAK EUSKALDUNTZEARI  
Kanpaina horren barruak ekitaldia  
izango da Bergaran hilaren 23an > 4

AURREKONTUA  
Aretxabaletako Udalak 14 milioitik  
gorako aurrekontua onartu du > 31

AMODIOZKO GUTUNAK  
Oihan Zubizarreta arrasatearra  
irabazole Bergarako lehiaketan > 44

KOOPERATIBAK > ERREKTORE KONTSEILUAK DAGOENEKO ONARTU DU SISTEMA BERRIA EZARTZEA

## Lagun Arok osasun-laguntza berria onartuko du martxoan

**BATZAR OROKORRA** Martxoan  
egingo dute batzar orokorra eta  
hantxe berretsi beharko dute  
erabakia

**FINANTZAKETA** Hilerro  
ordaindu beharrekoaren %60  
kooperatibek jarriko dute eta  
%40 langileek

**GEHIENEZ, 40 EURO** Jasotako  
osasun zerbitzuen kostuaren  
%30 ordainduko du langileak,  
baina, gehienez, 40 euro > 6

ARRASATE > MERKATARITZA

## Zabaletako gunea aurrera doa

Proiektuari  
hasierako onesprena  
eman dio Udalak  
asteon > 15

BERGARA > EUSKARA

## Udal Euskaltegia azokara

Udal Euskaltegia Oxirondo  
azokara eroango dute. Mizpirualde zaharren egoitzako  
handitze lanak direla-eta bota  
egingo dute gaur egun euskaltegia  
dagoen eraikina. Hori  
horrela, Oxirondo azokako  
bigarren solairuan egokituko  
dute euskaltegia. Gaur egun  
hutsik dago azokaren bigarren  
solairu hori. > 24

ESKORIATZA > ARATUSTEAK

## Urdelardero egingo dute eguenean

Antzinako usadioa  
da eta Eskoriatzan  
bakarrik egiten da  
gaur egun > 34

**Umeendako  
jolasguneak  
aintzat hartzen  
dituzte gureko  
udalek**

Jolasguneak ume askoren  
topaleku dira. Egungo gazte  
txoek geroago eta gehiago era  
biltzen dituzte jolas parkeak.  
Hori horrela, udalek inber  
tsio geroago eta handiagoa  
egiten dituzte herrian halako  
guneak egin edo konpontzeko.  
Segurtasun neurri guztiak  
betetzea eta homologatuak  
izatea oso kontuan hartzen dute.  
Hori da, hain justu, gurasoen  
eskari nagusietakoa > 23



BERGARA 240.000 euro ibertitu dituzte hainbat gune berritzen. Irudiko Espoloiko gunea, esaterako.

J.A.

### AURKIBIDEA

- Debagoiena > 04-08
- Elkarritzeta > 09
- Iritzia > 10-11
- Gutunak > 12
- Herriak > 15-39
- Kirola > 40-42
- Kultura > 45
- Sailkatuak > 46
- Eskelak > 47
- Denbora-pasa > 48
- Gazteak > 50
- Komunikazioa > 51
- Telebista-Irratia > 52
- Non-zer > 54-55

Osiñaga auzoa / Hernani 943 55 03 28  
Eguaztenetik zapatura gaez zabalk, zapatu eguerdietan ere bai  
[www.iparragirre.com](http://www.iparragirre.com)

Toyota Yaris, adimenaren indarra.  
Toyota Yaris, 10.800 €-tik aurrera.

TOYOTA  
[www.euskoauto.toyota.es](http://www.euskoauto.toyota.es)

EuskoAuto  
Olabarrena z/g BERGARA 943 76 23 85  
BERGARA EUSKOAUTO ELORREGI

AZPIEGITURAK &gt; JOLAS PARKEAK

# Jolas parkeak, gaztetxoen gozamenerako guneak

XABIER URTZELAI &gt; BERGARA

Bergarako eta Arrasateko udalek diru mordoa gastatu dute herriko hainbat gunetako jolas parkeak goitik behera berritzen. Ez da kapritxoz hartutako erabakia, egungo gaztetxoek geroago eta gehiago erabiltzen dituzte-eta horrelako jolasguneak. Hala, Arrasate eta Bergara inbertsio handia egin duten bi herri dira, baina gainontzeko herrietan ez da alde batera uzten den kontua.

**BERGARAN 240.000 EURO**

Bergarak dirutza gastatu du herriko jolas parkeak berritzen, eta baita berriak egiten ere. Matxiategin eta Espoloian jolas gehiago jarri dituzte, eta Gorlaz, Bolun eta Labegaraietan lehen zeuden batzuk konpondu eta beste jolas batzuk jarriko dituzte ondoan. Udaleko ordezkari Juanjo Arrietaren esanetan, erabakia hartzeko leku bakoitzean dagoen espazioa izan dute kontuan: "Jolas bakoitzak espazio konkretua behar du, eta ondoan ezin dira zuhaitz eta bestelakoak egon. Hala, Matxiategin eta Espoloian leku txikia behar duten txirrista eta kulunkak jarri ditugu, eta Gorlaz eta Labegaraietan egongo dira leku handia behar dutenak".

Legeak dio jolas parkeak seguruak izan daitezen zoru berezia izan behar dutela, gomazkoa: "Labegaraietan, adibidez, gomazko zorua ez da plaka uniformea izango; zuloak izango ditu, belarra has dadin".

**ARRASATEN, SANTA BARBARAN**

Otsaila amaitu aurrelik gura dute Santa Barbarako jolas parkea zabaldu (84.000 euro). Hiru gune izango ditu, adin askotariko neska-mutikoek erabil dezaten, eta parke berezia izango da, Arrasateko historiako hainbat elementu jasoko ditu-eta: "Horregatik irabazi zuen Yor enpresak lehiaketa. Ez zen proposamen merkeena, baina Arrasateko historia kontuan hartuta dragoi eta gaztelu itxurako jolasekin osatu zuten proiektua", esan digu Moises Altunak, Udaleko zerbitzuburuak.

Hori izango da Arrasatek dituen 20 jolas parkeetan berriena, baina jolasgunea egitea ez da nahikoa, mantentze-lanez ere arduratu behar dute: "Lehenengo bi urteetan enpresak berak egingo ditu Santa Barbarako parkeko mantentze-lanak. Gainontzeko parkeeet gu arduratzan gara".

**LEINTZ GATZAGA, KONTRAPUNTUA**

Herri horiek dituzten aurrekontu handiekin alderatuta, Leintz Gatzagan ahal duten moduan asesten dituzte gaztetxoen eskae-

**INBERTSIO HANDIAK**

Arrasaten eta Bergaran inbertsio handiak egin berri dituzte herrian jolas parkeak egin edo konpontzeko

**ETXE BERRIEKIN, DERRIGOR**

Udalek argi dute etxebizitza berriak egitearekin batera, ondoan jolas parkeak egin behar dituztela

**SEGURUAK IZAN BEHAR**

Hori da gurasoek eskatzen duten lehenengo gauza, segurtasun neurri guztiak bete eta homologatuak izan daitezela



**SEGURTASUNA** Jolasen ondoan ezin da zuhaitzik egon. Hala, Bergarako Espoloian leku txikia behar duten txirrista eta kulunkak jarri dituzte.

JOSETXO ARANTZABAL

rak: "Guk ezin dugu horrelako jolas parkerik egin, enpresek dirutza eskatzen digute-eta", esan digu Kultura zinegotzi Jon Sasai-nek. Gatzagan, baina, badute euren neurriko proiektua esku artean: "Udaletxe ondoan badago jolasgune txiki bat. Lehen hiru pinu handi zeuden han, baina gai-xorik zeuden, eta okertzen hasita". Hori ikusita, pinuak bota,

lurra landatu eta umeen babesrako parkearen atzealdean horma txiki bat eraikiko dute: "Hiru enpresari eskatu diegu jolasak jartzeko aurrekontua, eta ikusiko dugu zer aurkezten diguten".

**ETXE BERRIAK JOLAS PARKEEKIN**

Eskoriatzan, Aretxabaletan, Oñati, Elgetan... Udal guztiek argi dute etxebizitza berrieikin bate-

ra jolas parkeak egin behar direla: "Normalean jende gaztea joaten da etxe berrietara bizi izateera, eta umeak dituztenean, non jolastu izan behar dute", esan digu Aretxabaletako Udaleko ordezkari Jose Mari Segoviak. Hala, herri horretan hiruzpalau gune badaude ere, errekkaren beste aldean egin behar diren etxe-

beste hiru jolas parke egitea, eta gehiago jarriko dituzte CVLko tailerra zegoen tokian egin behar dituzten etxebizitzetan ere.

**DISEINU BEREZIKO JOLASA**

Horren alde egin dute Antzuolan, Ibarre auzoan jarri duten jolasera berezia da-eta: "Joan den urtean jarri genuen planetarium itxurako jolasera; zeukan diseinu berezia-

gatik aukeratu genuen", esan digu Valen Moñuxek. Hori bai, Antzuolako Udalean buruhauste bat baino gehiago izaten dute gomazko zoruaren kontura: "Gazteek kendu egiten dituzte gomazko plaka horiek, gero bizikletekin ibiltze-ko arrapalak egiteko. Eta, kendutako zati horiek ordezkatzen ibiltzen gara".

Antzuolako gainontzeko jolasak egurrezkoak direla azpimarratu du Moñuxek, eta asmoa dutela Sagasti aldean beste jolas parke bat egiteko.

#### ESKORIATZAN, EUSKARAZ

Euskara Saileko ekimenari esker, Eskoriatzako jolasguneek badute berezitasun bat; izan ere, bertako gaztetxoak euskaraz jolas egin daitezten panel modukoak jarri dituzte. Horrekin batera, auzoetan eskaera ondo beteta badute ere, Juan Karlos Bengoa alkateak esan du huts handiena erdialdean dagoela, hango bizilagunak Dorleta auzoko jolasgunea joaten dira-eta. Apotzaga auzoak berak ere jolas berrak ditu.

Oñatin, Hirigintza Saitetik esan digute urtero 30.000 eta 60.000 euro bitartean gastatzen dituztela jolas berriak jarri eta mantente-lanak egiten. Oñatin hamar jolas parke dituzte, eta aurten bes-te bi gune jarriko dituzte: Kalegoian eta kirodegiaurreko plazan. Aramaioak, bestalde, badu berezitasun bat: ibarreko txirrista luzeena daukatela, hain zuzen ere. Bañera parkean dago hori,



JOLASAK Irudietan Espoloiko eta Matxiategiko (Bergara) jolas parke berriak, Arrasateko Santa Barbarako gunea obratan, eta Intxaurtxuetako gunea (Eskoriatza).

J.A. / X.U.

eta hango kulunkak konpontze-ko eta nagusiek ariketa fisioak egiteko tresnak jartzeko asmoa-rekin dabil Udala.

Elgetan, azkenik, herriko gaztetxoek hiru jolas parke dituz-te aukeran: pilotalekuaren ondo-an -gehien erabiltzen dutena-,

eskola inguruan dagoena eta Pagaza poligonoan dagoena, hain zuzen ere. Horrekin bate-rra, Torrealde kaleko etxebizi-

tzekin batera beste jolasgune bat jarriko dute, eta San Roken ere beste jolas parke bat jarri edo ez aztertuko du Udalak.

#### GURASOEN ETA JOLAS PARKEEN ERABILTZAILEEN IRITZIAK



Sonia Ramudo  
Eskoriatza



Antonio Gallo  
Aretxabaleta



Mikel eta Ane Zubia  
Oñati



Maite Agirrezabal  
Bergara



Aitor Dominguez  
Antzuola

"Jolas parkea jartzea  
ez da nahikoa, zaindu  
ere egin behar da"

Ni San Pedro auzoan bizi naiz, eta hemengo jolas parkeak nahiko ondo daude. Dorletako auzoan berriak jarri dituzte, eta hangoek ere itxura ona dute. Akaso, erdialdean falta dira kulunkak, baina gainontzean nahiko ondo daudela esangue nuke. Guraso moduan, jolas parke bat eskatzen diodan lehenengo gauza da segurua izan dadila. Eta, mantente-lanak ondo egin ditzatela, jartzea ez da-eta nahikoa.

"Etxe berriekin batera  
jolas parkeak jarri  
beharko lituzkete"

Gernika plazan dauden kulunkak ez dira nahikoak, hemen gaztetxo asko ibiltzen dira-eta. Jolas parkea leku onean dago eta horregatik elkartzen dira guraso asko hemen. Hala, kulunketan ibiltzeko ilarak sortzen dira hemen, jendea zain egoten da-eta. Bestalde, Beroako etxeetan ez dute jolas parkerik ipini, eta hori ez dut ulertzen. Etxe berriak egiten dituzten lekuak jolas parkeak jarri beharko lituzkete.

"San Martinen jolas  
parkea egitea ondo  
egongo litzateke"

Gu San Martinera joaten gara sarri jolastera, baina han ez dago jolas parkerik, eta beste jolas batzuekin ibiltzen gara. Baino egia da gurako genukeela San Martinen kulunkak eta txirristak egotea, hori ondo egongo litzateke. Bestela, Bidebarrietako jolas parkera joaten gara jolastera, eta hangoak nahiko ondo daude. Horrekin batera, Etxaluzeko parkean dagoen saskibaloitik kantxan ere ibiltzen gara jolasean.

"Matxiategin jarri  
berri duten parkea  
oso txukun dago"

Matxiategin jarri berri duten jolas parkea oso txukun dagoela uste dut, umeei asko gustatu zaie-eta. Jolas guztien artean paella-ontzi itxurako kulunkak izan du arrakasta handien, hantxe ibiltzen dira-eta gusturen. Bazen garaia herrian jolas parkeetan dirua gastatzeko, berriak jartzeko. Badakit beste leku batzuetan ere gehiago jarri dituztela, baina Espoloikoak, adibidez, oraindik ez ditugu ikusi.

"Ibarren armiarma-sarea jarri dute, baina  
ez da nahikoa"

Askotan ibiltzen gara jolas parkeetan, eta ni kulunkan ibiltzen naiz gusturen, aurrera eta atzera indarrez bultzatzen. Hala ere, nik gehiago jarri nituzke. Adibidez, Ibarren orain dela gutxi jarri dute jolas parkea, baina gauza bakarra jarri dute, armiarma-sarea. Gustura ibiltzen gara hantxe, baina nik kulunkak eta txirristak ere jarriko nituzke han, armiarma-sarearekin ez da-eta nahikoa.

**mila esker**

Saharan  
ilusioa zabaltzen  
laguntzearen

ONATI, ARRASATE, ARETXABALETA  
eta ESKORIATZAKO UDALAK  
IGAMO  
CVL  
RUMBA TABERNA  
ONGI TABERNA  
ONA TABERNA  
LUIXENA TABERNA  
KRISTALERIA ELKORO

ARETXABALETAKO TRIKITILARIAK  
GOIKOBALU  
EKIN EMAKUMEAK  
COPRECI  
TXIKITU DANTZA TALDEA  
ONATZ DANTZA TALDEA  
TXANTXIKU IKASTOLAKO TXISTULARIAK  
GIPUZKOAKO ERLEZAINEN ELKARTEA  
FAGOR

EROSKI  
ASTORE  
EUSKADIKO KUTXA  
KUTXA  
LA CAIXA  
BANCO SANTANDER  
IFAM  
JMA  
MUGARRI

CITROEN  
EZKURRA  
OMNIA MOTOR  
CEGASA  
DONIKA  
EGUZKIGRAFF  
ALDEDI  
BRIDGESTONE

Eta modu anonimoan lagundi  
diguzuen guztioi



EUSKALGINTZA > DEBAGOIENEKO HAINBAT ERAGILEREN ATXIKIMENDUA JASO DU KANPAINAK

## Eskolak Euskaldundu ekimenak atxikimenduak jaso ditu

Iaz 107.768 sinadura batu zituzten Euskal Herri osoan, Bai Eskolak Euskalduntzeari kanpainaren barruan

AINTZANE IRIZAR > ARRASATE Eskolak Euskaldundu Ekimenak Bai Eskolak Euskalduntzeari kanpainarekin jarraitzen du. Eguaztenean egin zuten prentsaurreko Arrasaten kanpainaren berri emateko. Debagoienean euskalgintzan dihardutenean irakaskuntzako eta beste hainbat alorretako herritarren atxikimendua jaso zuen ekimen horrek eguzteneko agerraldian.

MILAKA SINADURA IAZ Iaz abiarazi zuten, Bai Eskolak Euskalduntzeari kanpainaren barruan, sinadura bilketa bat; 107.768 sinadura, hain zuzen ere, batu zituzten orduan Euskal Herri osoa eta lortutako emaitzarekin oso pozik azaldu ziren prentsaurrekoan Debagoieneko ordezkarriak.

Orain, baina, iaz hasitako kanpaina horri bultzada eman nahi izan diote eta helburu nagusia izango da herritarrei informazioa zabaltzea. Era berean, agintariei presioa egin nahi diete. Ekimeneko partaideen esanetan, hezkuntzan erabili izan den hizkuntza ereduen sistemak porrot egin duela eta hezkuntza alorreko agintariekin ere horren gainean azkenaldi honetan aldaketak planteatu dituztela ikusita era-baki dute kanpainari bultzada ematea.

### PLATAFORMA

Hainbat talde eta elkartek osatutako plataforma da Eskolak Euskaldundu Ekimena eta hori argi laga nahi izan zuten arduradunek, plataforma bat dela, alegia; segidan aipatuko ditugun talde eta elkartea, hain justu, daude plataforman: Kontseilua, Euskal Konfederazioa, Oinarriak, AEK, IKA, Euskal Herrian Euskaraz, Udako Euskal Unibertsitatea, Topagunea (euskaraz elkartean federazioa), Sortzen Ikerbatuaz, IKAS (Euskal Pedagogia Zerbitzua), Euskal Irratiak, LAB, Ikasle Abertzaleak eta Euskal Herriak Bere Eskola.

### ESKOLA EUSKALDUNTZEA

Esan beharrik ez dago Eskolak Euskaldundu ekimenaren helburu nagusia dela eskolak euskalduntzea. Plataformako kideek, baina, helburuak hori baino zehatzago azaltzen dituzte.

Alde batetik, eskatzen dute euskaraz ikasteko eskubidea Euskal Herri osoan berma dadila, ikas maila guztietan, eta derri-gorrezko hezkuntzan bereziki. Bestetik, aldarrikatzen dute euskara ezagutzeko eskubidea bermatzea herritar guztiei, eskolak belaunaldi berriak euskaldundu behar dituelako.

### HAINBAT EKITALDI DEBAGOIENEAN

Eguaztenean agerraldian jakinarazi zutenez, hainbat ekitaldi antolatu dituzte Debagoienean. Besteak beste, Bergaran, otsailaren 23an ekitaldi berezia egingo dute, Munibe plazan. Batetik, ikastetxeetako umeek eskolak euskalduntzeari gaineko marrazkiak egin eta plazan jarriko dituzte ikusgai. 17:00etan, berriz, txokolate jana egingo dute.

Aretxabaletan, bestalde, Aratusteetako domekan, informazioa banatzeaz gain, argazki jendetsua atera nahi dute.

LAN-ISTRIPUA > LANGILEA EZ DAGO LARRI

## Langile bat zauritu zen Fagor Ederlanen galdategian

Erredurak izan zituen eta Gurutzetako ospitalera eraman zuten

### A.I. > ARRASATE

Martitzenean, hilak 6, goizeko hamarrak aldera gertatu zen istripua. Galdara bat instalatzen dabilta Fagor Ederlan Markuleten egiten dabilen lan-tegi berrian. Bilboko enpresa batek dihardu zeregin horretan, eta enpresa horretakoa da zau-

ritutako langilea. Proba lan batzuk egiten zebilen langilea ezbeharra gertatu zitzaien momentuan. Badirudi gas-hodi batzuetan hondakinak zeudela eta, hori dela eta, astindu bat gertatu zela. Ohikoak diren kontrol froga batzuk egiten ziharduen.

Zauritutako langilea Gurutzetako ospitalera eraman zuten, aurpegia eta begiak erre zitzaiatzion-eta. Osalan-ek adierazi zigunez, haren egoera ez da oso larria. Dena dela, ikerketa zabalduko du Osalanek, gertutakoa argitzeko.

### > LAPURRETA

### Bi lagun atxilotu zituen Ertzaintzak Arrasaten, supermerkatu batean lapurtzen saiatzearen

Arrasateko Musakola auzoko supermerkatu batean lapurtzen saiatzearen bi emakume atxilotu zituen Ertzaintzak martitzenean. Atxilotutakoak dira 28 urteko B.R.O. eta 34 urteko M.C.F.D.

Dirudinez, bi emakume harrapatu zituzten aldean hainbat gai zituztela eta horiek ordaintzeko kutxetatik pasa gabe lekutik alde egin nahian. Ertzainak iritsi zirenean, supermerkatuko segurtasun arduradunek dendako bulegoetan zituzten bi gazteak atxikita. Guztira 600 euroko balioa zuten hainbat gai osten saiatu zirela baieztago ahal izan zuten ertzainek. Hori dela eta, emakumeok atxilotu eta Ertzaintzaren egoitzara eraman zituzten, ondoren epailearen esku uzteko.

Modernoa, gaur egungoa, ezberdina, beroa, argia, alaia.

AMETS EGITEA BESTE KONTZEPTU BAT DA!

**“RICHARDS BROS ZIRKUA”**

**EDERRA**



Arrasaten, Eroski Merkataritza etxearen alboan

Otsailak 9 (egubakoitza )  
18:30ean.

Otsailak 10 (zapatua)  
17:30ean eta 19:30ean.

Otsailak 11 (domeka)  
12:00etan, 17:30ean eta 19:30ean

Otsailak 12 (astelehena)  
18:30ean.



**RICHARDS BROS**  
**ZIRKUA &**

**Ume bat doan,**  
palkoan izan ezik.  
Nagusi batekin  
joanda eta hark  
sarrera ordainduta.



AURKEZPENA Bergarako alkatea Lehendakariaren atzean, Jaurlaritzak eta Eudelek hitzarmena aurkeztu zutenean. GOIENKARIA

BAKEA > BERGARAKO OSOKO BILKUREN ARETOAN

## Hil honetan egingo dute Bergaran bakearen foroa

Foroan parte hartuko duten herritarren zerrenda osatuko dute datozen egunetan eta herritar horien iritzia lehendakariari bidaliko diote

OIHANA ELORTZA > BERGARA  
Hil honetan egingo dute Bergaran bakearen aldeko udal foroa. Ekimen hori Jaurlaritzak eta Eudelek jarri dute abian, herrerrek parte hartzeko bakaera erakitzeko prozesuan. 14 herritan egingo dute ekimen hori eta horietako bat da Bergara; Debagoineko bakarra, gainera.

PARTAIDEAK AUKERATZEN  
Victoriano Gallastegi Bergarako alkateak azaldu digunez, "urtarrilean lehendakariarekin izan

genuen bilera 14 herritako alka-teok. Eudelek dinamizatzale bat jarri du udal bakoitzerako. Aitziber Blanco da Bergarara etorri dena, eta harekin izan dut beste bilera bat". Hain zuzen ere, dinamizatzaile horrek kudeatuko du otsailean osoko bilkuren aretoan egingo duten foroa.

Foroan parte hartuko duten herritarrek aukeratzeko hiru bide daude: zentsutik zuzenean aukeratu, udal eta gizarte ordezkarri batzuk izendatu edo alkateak zuzenean izendatu. Bergarak

bigarren bidea aukeratu du. "Astelehenean zinegotzi guziak eta herriko hiru gizarte taldeko (Mendia Bizirik, Bedelkar eta Bergara Kirol Elkartea) ordezkarriak gonbidatu nituen bilera batera. Bakoitzak bost herritarren ize-nak proposatuko ditu fororako. Pertsona horiei foroan parte hartzeko gonbidapena bidaliko diet neuk, eta baiezkoa ematen dute-nek hartuko dute parte foroan, 25 herritar inguruk", argitu du Gallastegik.

Gai konkretu baten inguruan hitz egingo dute foroan, eta joko arauak zehaztuta daude: bi ordu eta erdi iraungo du, kide guztiak hitz egingo dute eta besteak bitartean isilik egongo dira. Emaitza lehendakariari bidaliko diote.

18/98 > INJUSTIZIA GELDITZEKO ESKAERA

## 18/98 prozesua salatu eta autoinkulpazioa eskatu du Debagoineko Aralarrek

Estatuaren jarrera ere salatu dute ibarreko Aralarko zinegotziek, eskubide zibil eta politikoak zigortu nahi dituelako

O.E. > ARRASATE

Aralar alderdiak Debagoinen- an dituen zinegotziek 18/98 auzia zentzugabea dela salatu dute, eta autoinkulpatu egin dira auzi horretan, auziperaturik dauden herritarrei elkartasuna adierazteko. Eguaztenean Arrasaten egindako prentsaurrekoan egin zuten Aralarko ibarreko bederatzi zinegotziek salaketa eta autoinkulpazioa.

KASUA ARTXIBATZEKO ESKATU

Debagoineko Aralarrek eska- tu du 18/98 auzia berehala eta behin betiko artxibatzea, epai- ketak zentzurik ez duelako. Aralarren iritziz, "epaiaketa horretan pertsonak epaitzen baditzte ere, guztiz despertso- nalizatuta dago. Pertsonen joka-

bideak epaitu beharrean, kolektiboen jarrera ideologikoak ari dira epaitzen. Herri mugimenduetatik sorturiko ekimen batzuk ari dira epaitzen, eta hori ez da delitua, inondik inora". Horregatik, "gizarte mugimendu horien aurkako kriminalizazio politika behin betiko baztertzea" eskatu du ibarreko Aralarrek.

ESTATUAREN JARRERA SALATU

Aralarren iritziz, "zigor eska- rak murritzeko proposamena ez da nahikoa, eta gogor salatu nahi dugu Estatuaren jarrera, eskubide zibil eta politikoak zigortu nahi dituelako".

Hori guztiori dela eta, 18/98+ taldeak martxan duen autoinkulpazio kanpainarekin bat egin du Aralarrek, "desobe- dientzia zibilaren bidez auke- ra paregabea dugulako egoera horri erantzuteko".

Bukatzeko, Aralarko zine- gotziek dei egin zieten herrita- rrei euren burua autoinkulpa- tzeko, "injustizia hori gelditze- ko esateko", eta datozen egun eta astetan antolatuko dituz- ten ekitaldietan parte hartzeko.

> LAN MUNDUA

## Eroskik ELAren salaketei erantzun die eta esan du Tuterako langileen baldintzek hobera egin dutela

Aurreko astean ELA sindikatuak egindako salaketei erantzun die Eroskik. Eroskiko arduradunek jakinarazi digitenez, lan- gileen erdiek bakarrik erantzun zioten ELAk egindako protesta deialdiari. Eroskik jakinarazi digu Tuterako langileek koo- peratibako bazkide izateko eskaintza jaso dutela, beste 13.000 bazkideen baldintza berberekin. Bestalde, hitzarmenean, 1.784 lanorduko urtea zehaztu dela eta langileen %70ek soldata igoe- ra izan dutela azaldu digute. Eszedentzia eta lanaldi murriketak onartzen zaizkie eta izatezko bikoteari izaera onartzen da. Hitzarmenaren arabera, enpresa derrigortuta dago erretiro aurreratua eta errelebu kontratuak eskaintzera.

### Edozein premiatarako:

- Antzutasuna
- Erditzeak
- Antisorgailuak
- Menopausia
- Titietako gaixotasunak
- Minbiiziaren diagnostiko goiztiarra
- Hezur dentsitometria
- Jaioaurreko diagonistikoa-ekogarfia (4D)
- Endoskopio ginekologikoa
- Laguntza bidezko ugalketa
- Obstetricia
- Nerabezaro ginekologia

### Zure zerbitzura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Maite Alzu
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarrain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi

**CG**  
**CONSULTORIO**  
**GINECOLOGICO**



ARRASATE

Zerkaosteta 17

943 79 20 18

Donostia: 943 30 82 08

Eibar: 943 12 10 21

Irun: 943 61 78 88



KOOPERATIBAK > LAGUN-AROREN ERREKTORE KONTSEILUAK ONARTU BERRI DU PROPOSAMENA

# Lagun Arok osasun-laguntzaren proposamen berria onartuko du

Martxoan egingo du batzar orokorra Lagun Arok eta hantxe hartuko dute erabakia

Jasotako osasun zerbitzuengatik, 40 euro ordainduko ditu, gehienez, langileak

**AINTZANE IRIZAR** > ARRASATE  
Osasun-laguntza eskaintzeko proposamena onartu berri du Lagun Arok Errektore Kontseiluak. Martxoko batzar orokorrean eman beharko zaio behin betiko onarpena proposamenari.

Lagun Arok Gizarte Segurantzarekin zuen lankidetza 2004ko abenduaren 31n geratu zen bertan behera. Ordutik hona Eusko Jaurlaritzaren lankidetzarekin jardun du. Baino lankidetza hori ere laster bukatuko da, aurten go abenduaren 31n, eta Lagun Arok onuradunak osasun publikoan guztiz integratuko dira.

Azkeneko urteotan, asko izan dira eskatu dutenak osasun-laguntza ematen jarraitu beharko lukeela Lagun Arok.

**OSASUN PUBLIKOAREN OSAGARRI**  
Proposamenaren arabera, osasun-laguntza osasun publikoaren osagarria izango da, onuradun guztiek osasun publikoan integratuta egongo direlako. Beraz, alde batera geratuko dira lehen mailako osasun laguntza eta erditzeak, besteak beste. Era-



OSASUN PUBLIKOAN 2008ko urtarrilaren 1ean guztiz integratuko dira osasun publikoan Lagun Aroko onuradunak. GOIENKARIA

baki hori horrelaxe arrazoitzen dute Lagun Arok arduradunek: osasun publikoak efizientzia eta kalitatez eskaintzen dituela Lagun Arok kanko laga dituen zerbitzu horiek.

#### FINANTZAKETA

Prestazioa kooperatibak eta langileak berak ordaindu beharko dute; kooperatibak jarriko du

%60 eta gainerako langileak. 2008. urterako 48 euroko kuota ezarriko dute hileko: langileak 20 euro eta kooperatibak 28 euro ordainduko dituzte. Hori hileko kuotari dagokionez. Jasotako osasun zerbitzuei dagokienez, bestalde, kostuaren %20 ordaindu izan du orain arte langileak; aurrerantzean %30 ordaindu beharko du. Dena dela, gehie-

neko kopuru bat finkatuko dute: 2008an 40 eurokoa. Horrek esan nahi du edozein dela ere onuradunak Lagun Aroren bitartez jasotzen duen osasun zerbitzua, kostuaren %30 baldin bada 40 euro baino gehiagokoa, 40 euro besterik ez duela ordaindu behar onuradunak. Horrela, ebakuntza eta kliniketako gastuak asko murritzen dira.



TXOMIN MADINA

## Ahotsak plataformak mahai-ingurua egindu Arrasaten

Bi aldiz atzeratu eta gero, eguztenean egin zuen Ahotsak taldeak mahai-ingurua Arrasateko udaletxean. Honakoek parte hartu zuten: Jone Goirizelaiak (Batasuna), Onintza Lasak (EA), Gemma Zabaletak (PSE-EE), Gema Gonzalez Txabarrik (EAJ), Ainhoa Aznarezek (PSN), Duñike Agirrezabalagak (EB) eta Izaskun Guarrotxenak (Bilgune Feminista). GOITBn ere egon ziren, Berbaire saioa grabatzan. Eguztenean, 21:15ean, ikusi ahal izango dugu saioa.

18/98 AUZIA

## Gureko hiru lagunentzat 37 urteko zigorra eskatu dute

Natale Landa, Jose Luis Elkoro eta Xabier Arregi dira inputatuak

**A.I. > BERGARA**

Asteon jakinarazi ditu fiskalak 18/98 auzikoendako zigor eskaerak. Lau debagoiendar daude inputatuta: Xabier Arregi, Jose Luis Elkoro eta Iñigo Elkoro bergararrak eta Natale Landa arrasatearra.

Landa eta Arregi Ekin atalaren barruan epaitu dituzte; erakunde armatuko kide izaera leporatuta, bakoitzaren dako 9 urteko kartzela zigorra eskatu du fiskalak. Orain atalaren barruan epaitu dute Jose Luis Elkoro eta 19 urteko kartzela zigorra eskatu, honako delituengatik: ETaren lagunzaile izatea eta hiru delitu ekonomiko egotzi dizkio fiskalak. Iñigo Elkoro, berriz, osasun arrazoiengatik ez dute oraindik epaitu. Orain dela urtebetetako gaixotzen eta epaiketatik kanpo geratu zen.

#### ELKARTASUNA

## Quebracho jaia egingo dute gaur Arrasaten

Quebracho talde iraultzailea ezagutarazi nahi dute gurean

**A.I. > ARRASATE**

Gaur, egubakoitza, Quebracho jaia ospatuko dute Arrasateko gaztetxean. 18:00etan hasiko da, jaiaren aurkezpenarekin. Ondoren, *Crónicas de libertad* DVDa proiektatuko dute, baita hainbat argazki ere. 22:00etan, Izate eta Xopapo musika taldeean emanaldia izango du eta, azkenik, egunsentira arteko jaia izango dugu Muxi, Moe eta Morris disko jartzaleekin.

#### TALDE IRAULTZAILEA

Quebracho da Argentinako mugimendu abertzale iraultzailea. Antolatzaileen helburua da mugimendu hori gure artean ezagutaraztea eta dirua batzea Quebrachoko bi kide Euskal Herrira etor daitezen.

GIZARTEA > UNESCOREN UR GABEZIAREN GAINeko TXOSTENA DELA ETA, MAHAI-INGURUA

# "Ur-krisia arazo publikoaren gestioaren krisia da"

Mahai-inguruan esku hartu zuten kideek txostenaren gaineko azterketa egin zuten, nork bere ikuspuntutik

XABIER URTZELAI > ARRASATE  
"Azalaren diseinuak aditzera eman nahi du munduan milioika lagunek ez dutela ur segururik eskura, baina ez eskasiagatik, baizik eta pobrezia, desorekak eta gobernuen hutsegiteek atea ixten dizkietelako. Arazo horiei hultzear da munduko ur-krisia konpontzeko giltzarria".

Esaldi horrekin hasi dute Unesco etxeak argitara eman duen txosteneko laburpena. Eta, txosten horren gainean berba egiteko elkartu ziren martitzenean Ana Oregi (Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Uren sailburuordea); Miren Onaindia (EHUko Garapen Iraunkor eta Ingrumen Hezkuntzaren gaineko Unesco katedraren koordinatzailea); Iñaki Antiguedad (EHUko Hidrologiko irakasle katedraduna); Mikel Insausti (ekonomialaria eta Unesco etxeko kolaboratzailea) eta Josu Sanz (Unesco etxeko Ingrumen Saileko arduraduna).

**ARAZOAK JATORRI BERA**  
Nork bere ikuspuntutik, txostenaren gaineko azterketa egin zuten mahai-inguruan batuziren lagunen aurrean, eta baita txostenari zer falta zaion aipatu ere. Eta askotariko ikuspuntuak izanda ere, guztiek egin zuten bat ondorengo esaldiarekin: ur eskasiaren arazoak munduko politikarien kudeaketa txarrrean duela jatorria, hain zuzen ere. Alde horretatik, Iñaki Antiguedad izan zen kritikoena: "Politikarien kudeaketarekin batera, ekonomiak ere ez du inongo lehentasunik arazo horri hultzeko. Hiesaren kasuan, egunero milioiak inbertitzen dira gaitz horri aurre egiteko. Bainazergatik? Akaso, gaixotasun horrek aberatsei eta pobreei berdin eragiten dielako? Uraren kasuan, badakigu aberatsak ez duela ur arazorik; horrenbestez, ez da horretan inbertitzen.

**INBERTSIO ERRENTAGARRIA**  
Hain zuzen ere, txostenaren arabera, lurralde atzeratuetan herritarren ur-saneamendua hobetzeko inbertitzen den dolar bakotzko, zortzi dolarreko irabazia jasotzen dute. Izan ere, ura eskura izanda, etorkizuna eraikiko duten neska-mutikoek ez dute eskolara kalerik egin behar, eta ur zikinekin gaixotzeko aukera gutxiago dute. Hori horrela, ura da, duda barik, herri

bat garatzeko behar den lehen-gai garrantzitsuena.

Horrekin batera, Antiguedad salatu zuen arazo hori konpontzeko mundu mailako era-kundeek 2015erako ezarritako gutxieneko helburuak urrunetik ere ez direla beteko.

## URAREN INTERDEPENDENTZIA


Hori izan zen Mikel Insausti txostenaren gainean egindako balorazioetako bat, gai guztiak lotuta daudela, eta ura dela, hain

zuzen ere, transmisió sistema. Insaustik ur-krisiari aurre egiteko politika bateratuak eskatu zituen, eta herriarrok dauagun ardura ere aipatu zuen: "Kanpoko produktuak kontsumitzen ditugunean, ez gara konturatzen produktu hori ekoizteko herrialde horrek zenbat ur erabili duen. Kilo bat kotoi egiteko 7.000-25.000 litro ur behar dira, eta Burkina Fason egiten dute, alegia, ur gutxi dagoen lekuaren. Hala, hangoen ura kontsumitzen dugu guk".

## MAHAI-INGURUAN ESKU HARTU ZUTENEK ESANDAKOA




Ana Oregi  
Eusko Jaurlaritzako sailburuordea



Miren Onandia  
EHUko Unesco katedra koord.

## "Jende mordoa bizi gara batera, eta horrek ondorioak dakartza"

Kalitate kimiko aldetik, Euskal Herriko ibai eta errekkak bueltatuko dira sasoi bateko gardentasuna izatera, horregatik gabiltza-eta araztegiak egiten. Gaur egungo arazo handiena, baina, dentsitatea da. Hau da, leku konkretu batzuetan jende mordoa bizi gara eta hor, ibai edo errekkak baino ur-kanalak baino ez ditugu.



Iñaki Antiguedad  
EHUko Hidrologiko katedraduna

## "Gaurko ekonomiaz garapen iraunkorra makillaje hutsa da"

Nik argi daukat gaurko ekonomia-ren kontzeptua erronk aldatzetan ez dugun bitartean ez garela garapen iraunkorra kontzeptura inondik inora iritsiko. Hau da, galtzerdiak ez dira eskuetarako. Gaur egungo makillaje hutsa da. Ekonomia iraunkorrak baliatuko luke hori, baina, noski, Confebask-ek ez du horrelakorik egingo.

Paradoxikoa bada ere, ipar hemisferioan egiten ditugun gehiegikeriak hego hemisferioan daudenek ordainduko dituzte gehien, han egongo dira-eta lehorte handienak. Gure kasuan, Euskal Herriak dituen baliabideak baino 2,7 gehiago kontsumitzen dugu hemen. Bi mundu eta erdi behar dira gure erritmoari eusteko.



Mikel Insausti  
Unesco etxeko kolaboratzailea

## "Dirua duenak hobeto egingo dio aurre aldaketa klimatikoari"

Aldaketa klimatikoak modu ezberdinean eragingo du herri bakotzean. Argi dagoena da botere ekonomikoa duen herrialdeak hobeto egingo diola egoera horri aurre. Eta, Holanda da adibide garbiarena, egin dituzten kanal, dike... Bistan dago Ghana, Bangladesh eta halako herriek ezin dutela horrelakorik egin.

## kontsumoa



Telefonia enpresak makina bat salaketa jasotzen dute.

GOIENKARIA

## Lege berriak hobeto babestuko ditu kontsumizaileen eskubideak

X.U. > ARRASATE

Azkeneko urteotan, kontsumoak sekulako hazkundea izan du Estatuan, eta etengabeko aldaketa horrek eskatzen du kontsumizaileen eskubideak babesten duen legedia ere berritzea; izan ere, duela 22 urte (1984an) onetsi zen Kontsumizaileak Babesteko Lege Orokorra. Eta bistan da tarte horretan legea zaharkituta geratu dela.

Hori konpontzeko, aurten bertan jarriko dute indarrean kontsumizaileak hobeto babesteko asmoz sortu den 44/2006 legea. Lege horrek aurretik indarrean dagoenak baino hobeto defendatuko ditu kontsumizaileen eskubideak. Babes hori telefonia, bidaia, etxebizitza eta aparkaleku en sektoreetan igarriko da, bereziki.

Erregulazio horrek zehaztapen berri asko dakartzza, hala nola: eman ez diren zerbitzuen prezioak kobratzean kopuruak biribiltzea, enpresak bereganatu behar dituen gastu edo zamak kontsumizaileari ezartzea, aurrekontuan edo publizitatean adierazi ez diren zerga edo osagarrien kostua kobratzea... Amaituko ote dira enpresa batzuek egiten dituzten gehiegikeriak?



## Igerileku gehiago behar direla dio ikerketa batek

Consumer aldzikariak egindako azterketaren arabera, Estatuan, barruko igerileku nahiko zerbitzu ona eskaizten dute-nahiz eta batzuetan informazioa falta-. Hori bai, behar baino igerileku gutxiago dagoela dio ikerketak.

Estatuan egindako batez bestekoaren arabera, 59.000 biztanleko igerileku estali bat dago, eta hori gutxi da. Hori bai, badaude salbuespenak. Gasteiz da adibide garbiarena, Arabako hiriburuak 28.000 biztanleko igerileku bat dauka-eta. Iruñea da beste adibide berezi bat, igerileku mordoa dituztelako, baina asko kirol instalazio pribatuak dira.



## Gidabaimena atera dutenek, alkohola probatu ere ez

Hori da RACC fundazioak sortutako aditu batzordeak urte hasieran proposatu berri duena: gidabaimena atera duten gidariek alkohola usaindu ere ez dezatela egin, alegia: "Erakutsita dago alkoholak gazteengan nagusiengana baino eragin handiagoa duela".

Gazteen istripu kopuruak bultzatuta egin dute proposamen hori, egunero 15 eta 29 urte arteko lau gazte hiltzen dira-eta Estatuko errepideetan. Horrekin batera, gazteak dira, hain zuzen, kontzentziajazio kampainei kasu gutxiengoei egin dietenak. 2005ean, 1.387 gazte hil ziren errepideetan, eta 8.000 larri zauritu.

**gure artekoak**

**OREKA BIOARKITEKTURA** > Bi arkitekto aretxabaletarrek sortu zuten iaz Oreka Bioarkitektura enpresa: Ekaitz Uribek eta Amaia Agirianok, hain zuzen ere. Arkitekturaren beste ikuspegi bat daukate haien.

Ekaitz Uribe

## "Geobiologia azterketak egiten dituen elkarte batean gaude"

AINTZANE IRIZAR &gt; ARETXABAleta

Ohiko arkitektura egiteko moduarekin ados ez, eta zerbitzu berezia eskaintzen dute Uribek eta Agirianok: bioarkitektura, hain zuzen ere. Ingurumena eta gure osasuna zaintzeko bideak ematen ditu arkitektura mota horrek.

**Nolatan sortu zenuten Oreka?**

Amaiak argi zeukan negozio propioa jarri nahi zuela, besteak beste, ez dagoelako ados ohiko arkitekturarekin. Horrela, Mankomunitatearen laguntzarekin, negozioa jarri zuen. Gero, ni ere harekin hasi nintzen. Oreka enpresa iaz sortu genuen.

**Zer da bioarkitektura?**

Ohiko arkitekturarekin duen ezberdintasunetako bat da lurrazen azterketa egiten dugula ikus-teko eraikin batendako toki ego-kia den eta toki konkretu bateko lurrazen izaki bizidunengan zelako eragina duen. Bestalde, erabiltzen dugun materiala ere zaindu egiten dugu; hau da, material birziklagarriak erabiltzeari, energia aurrezpena dakartzaten materialei eta ekologikoki ekoiztutako materialari garrantzia berezia ematen diegu. Bestalde, etxe barruaren antolaketa ere lurrazen azterketaren eta beste hainbat irizpideren arabera egi-



Ekaitz Uribe radiestesia tresnekin, lurraren azterketa egiteko tresnekin.

A.I.

**FITXA TEKNIKOA****> GEA**

Geobiologia azterketak egiten dituen GEA elkarteko kideak dira Orekakoak.

**> BEZEROAK**

Etxe eraiki edo etxebizitza eraberritu nahi dutenak. Gehienak debagoiendarrak dira, baina badituze Gasteiz eta Donostia inguruko bezeroak ere.

**> POSTA ELEKTRONIKOA**

ekaitz@oreka.com.es eta amai@oreka.com.es.

ten dugu. Izañ ere, horrek guztia eragin handia dauka gure osasunean.

**Lurraren azterketa egiteko, besteak beste, makilatxo batzuk erabiltzen dituzue.**

Halaxe da; batzuek ez dute horrelakoetan sinisten, baina...

**Ohiko arkitektura baino gares-tiagoa izango da hori.**

Materialetan egoten da aldea, baina ez oso handia. Gainera, kontuan hartu behar dugu energia aurrezteko material egokie-nak erabiltzen ditugula.

**begi-bistan****Giza katea liburuak eskuan (Arrasate)**

2007/02/07

Argazkia: Txomin Madina.

Testua: Aintzane Irizar.

Arrasateko Udal Liburutegiko arduradunek herriko neskamutikoak implikatu dituzte Monterrongo liburutegitik Kultura-teko berrira liburuak eramateko. Giza kate polita egin zuten.

**Har ezazu parte:**

Argazkia eta azalpentxoa bidali honako helbidera: goienkaria@goiena.com

**etxeko leihotik**

Iban Arantzabal &gt; Goienako ikus-entzunezko zuzendaria

## Urtetan sufrido biharra gure arrazak irauteko?

Uztarixakin lotutako idi-paria harrixa arrastaka eruatzen. Arre, arre eta arreka erlojerua harri gai-nian, zarata, idixe arnasia emon guran. Harmailetan mar-mar mordua, baiña belarrixak tente, dirua diru.

Gure ibarrian ez da estilatzen (Elosun-edo azkena). Galzorixan dago, ze berde eta moderno izan biharak... Hamar eta erdiak kanpantorrion jotiaz bat han giñan, katedralian, idi-probak ikusten, Abadiñon. Astelehenan zan, baiña ehun lagunetik gora genden, gehixenak artekarixai korretajia

pagatzeko gertu (batez be irabazi ezkerro). Ziriakok (78 urte) emon zeban urteeria eta bigarren untzarako Mañukortak hartuta zeukan artekarixan kontrako posturia. Alkondara kuadrodun bizkaitarrak tragua eskuan eta begixak harri-xan, argi. Elgetar pare bat be bai: Sesto eta Agarre-kin egin giñuan tril sarreran. Ez zan falta modrautarrik ez bergararrik be. Zentrauta fan nintzan proben kontrako zer atrapauko, baiña buruan lagunan galderia ekarri neban artikulurako: "Merezi dau idixak sufriku eraittia arrazia mantentzeko, ezta? Zer gara ba humanuok, sufrizten gaozen estinziñoko arraza madarikatua baiño?".

**"Harmailletan mar-mar mordua baiña belarrixak tente, dirua diru idi-probetan be"**

**> Basarri giroko**

pertsonek osatutako gune birjiña da probalekua, euskeriarendako. Euskaldunak eta gizonak. Andrak zortzi-hamar baiño ez ziran pasau sarreratik. Gaztiak beste hamar?

**> Odola eta kolpiak**  
bazeren... Herri-kirol gogorra! Gogortasunak atenziña deitu zostan, baiña kirol asko dare hain duiñak ez diranak, makurraguak, okerra-guak, transposaguak: Erakartzen ez nabenak.

**izen propioak**Aitzol Aramaio  
ZINEMA ZUZENDARIAAinhoa Garai  
AKTOREAIñigo Urrutia  
MARRAZKIGLEA

Berlinaleko Koprodukzio Azokan parte hartuko du Aitzol Aramaio, *A tram in SP* proiektuarekin. Unai Elorriaga idazlearen *SPrako tranbia* eleberrian oinarrituta dago proposamen hori. Ekoizleei aurkezten zaizkie proiektuok, gero errealitye bihurtzeko aukera-rekin.

Kanpingags konpai-niak *Lapur-zuloa* antzezlana estreinatuko du asteburuan Donostian. Ikuski-zun horretan ikusi ahal izango dugu Ainhoa Garai aktore arrasatearra, puntu-puntako bes-te aktore batzuekin, hala nola: Asier Hormaza, Joseba Apaolaza eta Kon-txu Odriozolarekin. Arrasateko Aratus-teak iragartzeko Iñigo Urrutia eskoria-tzarrak egindako kartela erabiliko dute; hark irabazi du kartel lehiaketa eta 400 euroko saria jaso du. Umeen lehiaketan, bestalde, Ainhoa Iturrioz-tek eta Naiara Morenok egindako kartelak irabazi du lehiaketa.

Bartzelonako Unibertsitatean ikasketak amaitu, eta Albert Noguerak bost urte igaro ditu

Kuban, doktoretza egiten. Orain, Boliviak etorri berri da, han egin ditu-eta azken lau hilabeteak.

Bi hilabetez izango da Oñatin, dokumentazio lana egiten, eta Boliviara itzuliko da martxo

hasieran. Eguaztenean, Bolivian izan den botere aldaketaren gainean berbaldia egingo du.

**Albert Noguera > Zuzenbide eta politika eta administrazio-zientzietako lizentziaduna**

# "Indigena izatea da Evo Moralesek Bolivian izan duen arrakastaren gakoa"

XABIER URTZELAI > OÑATI

Eguaztenean, Oñatiko kultura etxeko zinema aretoan egingo du Albert Noguerak (Bartzelona, 1978) berbaldia (19:30). *Evo Morales: de la coca al palacio* izango da berbaldiaren izenburua. Hala, azken urteotan Bolivian izan den botere aldaketaren gainean egingo du berba, eta gukere hortik heldu diogu elkarritzetari.

**2000. urtean hasi zituzten herri borroken fruitua da egungo Boliviako gobernu?**

Horrela esan daitake, bai. Cochabambako uraren gerrak bultzatu zituen ondoren gertatu ziren departamenduetako matxinadak. Cochabambako enpresa transnacional batek ur zergak igo zituen, eta herritarra matxina tu egin ziren horren kontra. Enpresa horren kontra izandako garaipenak esnatu zituen gainontzeko lurrardeetako mugimendu sozialak, eta hiru urteren buruan Gonzalo Sanchez de Losada presidenteak alde egin behar izan zuen (2003).


Carlos Mesa presidenteordeak hartu zuen kargua, baina mobilizazioekin jarraitu zuten eta Mesak ere dimisioa aurkeztu (2005) eta presidentetzarako haueskundeak deitu zituen.

**Eta, mugimendu sozialistak (MAS) hartu zuen errelebua.**

Azken baten, MAS mugimendu sozial askoren ordezkari politikoa baino ez zen, koordinadora bat, baina ez zen alderdi politikoa. MAS sortu zen meatzarien eta kokaina ekoizleen borroketatik, eta gero, beste talde askoren ordezkariitzta hartu zuen. Hori horrela, MASEk izan behar zuena erabakitzeko eztabaidea asko egin dira, baina oinarrizko hiru helburu finkatuta egin dute aurrera: hidrokarburoen nazionalizazioa, lurren legediaren gaineko erreforma eta biltzar konstituziogilea deitzea. Programa horrekin aurkeztu zen Evo Morales haueskundeetara.

**Botere aldaketa horretan, zein da Boliviako berezitasuna?**

Ez dut uste mundu osoan horrelako adibiderik izan denik. Beste iraultza batzuetan langile mugimenduek egin dute bultzatzen, oinarri marxistekin eta ilustratutako maila ertaineko buruek gida-tuta. Ezker mugimendu horren iraultzak boterean dagoen gobernu deuseztatu eta estatu sozialista ezarri izan du. Bolivian ez. Bolivian iraultza ez du ezkerre-



XABIER URTZELAI

ko alderdi batek egin. Mugimendu mordoa, eta erabat ezberdinak, batzen dituen koordinadora batek egin du aurrera.

**Borroka hora departamendu batean sortu, eta lurralte osoa hedatu zen.**

Bai, bai. Kontuan hartu behar da MASEk hauteskundeetan aurkeztu zuen programa azken emaitza dela. Lehenago, baina, batere loturariik ez zuten mugimenduak zeuden: Cochabamban uragatik zebiltzan borrokan, goi-lautadan Aymaren blokeoak egin ziren, La Paz-en Mexiko eta AEBetara esportatzen zen gasagatik ibili ziren borrokan... Elkarrekin harremanik ez zuten mugimendu horiek guztiak MASEk batu zituen.

**Hor dago Evo Moralesen garai-penaren zergatia?**

Indigena izatea da Evo Moralesek Bolivian izan duen arrakastaren gakoa, Boliviako biztanle-en %70 indigenak dira-eta. Orain

## BEREZITASUNA

**"Bolivian hainbat mugimenduz osatutako koordinadora batek ekarri du aldaketa"**

## OPOSIZIOA

**"Orain arte boterean egon direnek diskurtso autonomista egiten dute; ez dute besterik"**

## EREDUA

**"Akaso, Ekuadorrek jarrai dezake Boliviako adibidea, baina Correa ez da indigena; ez du Moralesek Bolivian duen besteko babes sozialik"**

arte indigenak erabat baztertuta egon dira, eta haietako bat presidentziarako hautagai izan denean, ez dute duda izpirik izan. Kontuan hartu behar da hora dela Latinoamerika osoan egon den lehenengo presidente indigena.

**Zeintzuk dira ezkerrera egindako aldaketak izan ditzakeen aukerak?**

Aukera mordoa dituzte, azken batean, gehiengoa direlako. Eta estatu liberala transformatzeko eta gaindizko benetako borondate politikoa daukatelako.

## Eta mugak?

Argi eta garbi dago ezkerrera hartutako bidearen muga edo oztopoa lehen boterean zeuden klase sozial eta taldeetan dagoela. Orain arte sekulako pribilegioak izan dituzte, eta, noski, ez daude hori alde batera uzteko gertu. Hala, diskurtso autonomista erabiltzen dute, eta, akaso, horrek zelanbai-teko zatiketa ekar dezake. Bistan da ez dutela klaseen diskurtsoa

egiterik, aberatsak %10 baino ez dira-eta. Eta, neurri berean, subiranotasunaren diskursoak ere ez du zentzurik, Boliviako lehen-gai guztiak atzerritarrei saldu dizkiete-eta. Agerikoa da diskurso etniko edo kulturalik ere ezin dutela egin. Hori horrela, klase aberatsa poliki-poliki Santa Cruz-en batu da, eta, hango komunikabideak kontrolatuz, diskurtso autonomista erabiltzen dute. Hau da, hango pobreak esaten diote pobrea dela, dagoen dirua gai-nontzeko boliviarrekin banatu behar dutelako.

**Boliviako ereduak balio du bes-te lurralte batzuetarako?**

Ez dut uste eredu esportagarrria denik, Boliviak oso ezaga-ri bereziak dituelako. Akaso, Ekuador da, neurri batean, adi-bide hori jarrai dezakeen lurraldea. Han, Rafael Correak ere ezkerrera bidea hartu du, baina Correa ez da indigena, eta ez du Evo Moralesek Bolivian duen besteko babes sozialik.



zabalik

Juan Martin Elexpuru

## Presa mata, amigo!

**H**ori behintzat ikasi dogu Marokon. Mundu guztietan zerbaite saldu nahi. Guk ezetz. "Pasau barrura tea hartzera, ez daukazue ezer erosi biharrik". Prixia geunkala. "Presa mata, amigo", saltzailliak guri, osatu ezindako gaitza diagnostikatzen daben medikua baiño arpegi serixaguakin. Guk pausua bizkortu eta aurrera, barre zozo batekin, "arrazoia jaukak, txorimalua halakua" esanaz bezela. Prixaka bizi gara, bai, lehendik be bagenkixen, baiña ez da gaizki etortzen noizian behin baten batek akordau eragittia.

Beste mundu bat da Maroko, nahiz eta joan dan mende erdi aldian jaiotakuo gauza asko ezagun samarrak egiten jakun. Gure ume denporan bizikletak eta astuak ziren nagusi gure bideetan, eta halaxe dira gaur egunian Marokon. Zelako billurak pasaten giñuzen illuntzeten kaminuan, herri haundi batera autuan sartzerakuan: hango zaldikarra, astua, bizikletia, oñezkua eta abarra, gehixenak argi barik, milla begikin juan bihar ezbiharren bat ez izateko.

Fez-eko alde zaharrian sartzia sekula ahaztu ezindako esperimentzia da. Kale estu-estuak, atariaxak zabalik eta bakoitzan den da bat: harakiñak, barberuak, zapatarixak... jentia kalia betian, gehixenak geldi, ibiltarixe beren produktuak eskeinka, baiña argi ibili bihar "ibilgailuekin", edozein momentutan astua agertzen da abixada baten, gainian mutikua edo zorrua dabela; edo harakiñen bat, karrettillan odola darixola ageri dan behi-buru batekin.

Mendixan ixa bi mila metrora bizi dan familixa nomada bat be ezagutu giñuan. Artalde txiki bat larrian harrixia besterik ez dagon lekuak, hotza zero azpitik, artillezko jaima zahar bat...

Geure prixa eta stress guziekin be, iñork ez giñuan bertan biziñen geratzerik pentsau.

**"Gure ume denporan bizikletak eta astuak ziren nagusi gure bideetan, eta halaxe dira gaur Marokon"**

**"Gure stress guziekin be iñork ez giñuan han biziñen geratzerik pentsau"**

## Goienkaria

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE Lehendakaria Esteban Plazaola **Zuzendaria** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate **Erredaktore burua** Monika Belastegi **Sailetako ardurdunak** Ubane Madero (Herrrialde), Edu Mendiñbil (G2a), Alex Azkarate (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea) **Erredakzioa** Iker Barandiaran, Mirari Altube, Xabi Urtzelai, Oihana Elortza, Aintzane Irizar **Oinarritzko diseinua** Goi Arana **Maketazioa** Alex Azkarate, Kepa Martelo **Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundifano, Ziorlita Martín, Imanol Elortza, Itxaso Bereziar **Testuen zuenketeta** Sergio Azkarate **Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia **Administrazioa** Agurtzane Gaiztarain, Ane Bereziar, Iraxbe Bengoa

### EGOTZA NAGUSIA

**BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Posta-e: goienkaria@goiena.com

### ORDEZKARITZAK

**ARRASATE** 20500 Otañor Lizenziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89

Posta-e: arrasate@goiena.com

**ARETXABALETA** 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54

Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

**Publizitatea** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93

Posta-e: publi@goiena.com

**Harpidetza** Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 19.155 ale • **Difusioa:** 18.629 ale.



OID erakundeak  
ikuskatutako astekaria

### LAGUNTZIALEAK



Eusko  
Jaurlaritza



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Bergarako  
Udala



Oñatiako  
Udala



Aretxabaletako  
Udala



Eskoriatzako  
Udala



Antzuolako  
Udala



Aramaioko  
Udala



Elgetako  
Udala



Leintz Gatzagako  
Udala

## herritarra galdezka

IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK EMANALDI EGUNEAN LEIHATILAN SALDU ALA EZ

**Irakurle batek honako galdera egin digu aste horretan: Ikuskizunetarako sarrerei dagokienez, antolatzaleak derrigortuta aldaude emanaldi egunerako sarerra kopuru jakin bat leihatilan saltzera?**

Udal Kultura Zerbitzura jo dugu galderari erantzuteko. Azaldu dugutenez ez dago zertain sarrerarik saldu leihatilan emanaldi egunean; ez da derrigorrezkoa. Eta gehitu dute: "Emanaldi egunean leihatilan sarreren %10 saldu behar den ustea oke-rra da. Hedatuta dagoen ustea bida ere, okerra da". Adibide gisa Rolling Stones, Bruce Springsteen eta halako talde handiak hartu eta halakoetarako sarrera guztiek aldez aurretik gastatzen direla azaldu dute, eta leihatilan sarrerarik ez dela egoten.

Bestalde, gehitu dute antolatzaleak bai zehaztu behar duela modu egokian zein izango den emanaldirako sarrerak saltzeko

kanala: non eta noiz jarriko diren salgai, noiz arte erosia ahal izango diren...

**HAUTESKUNDE-MAHAIAK Nola noiz osatzen dira hauteskunde-mahaiak? Gero eta gero dade Udal hauteskundeak, eta galdera hori egin digu irakurle batek.**

Hauteskunde-mahaiak eta hauteskundeekin lotutako gainera-

### Galdera egiteko:

Zerbaitetaz arduratuta bazaude eta gai horren gaineko informazio gehiago jaso nahi baduzu, bidaligu galdera eta geu jarriko gara harremanetan dagoikionarekin. Galdera egiteko bideak:

- Telefonoz: 943 25 05 01
- Faxe: 943 25 05 13
- Postaz: Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com

ko kontu guztiek Gobernuak hauteskundeak deitzen dituen unean hasten dira; orduan hasten da prozesua. Hauteskunde Erregimen Orokorreko Lege Organiko Erregulatzaleak arautzen du procedura guztia.

Lege Organiko horrek dio udal hauteskundeak beti maiztze laugarren domekan egingo direla. Hori kontuan hartuta Gobernuak 54-60 egun ditu deialdia egiteko –deialdia egin eta hurrengo egunean EBO argitaratuko da-. Gobernuak hauteskundeak deitzen dituen unetik aurrera, udalek 25-29 egun dituzte hauteskunde-mahaiak osatuko duten herritarra zozketa bidez aukeratzeko. Zozketa hori osoko bilkuraren egiten da, publico da-eta.

Zozketa egin eta gero, hauteskunde-mahaien egotea egokitu zaien herritarrei pertsonalki jakinaraziko diete udaletik. Gero, herritarra zazpi egun izango ditu, hala nahi izanez gero, Bergarako epaitegian alegazioa aurkezteko. Epaitegiak, berriz, bost eguneko epean jakinaraziko dio alegazioa onartu duten ala ez.

## marrakiz

Alex Ugalde



## Diseinu ona kirolean

**Joxe Aranzabal**  
www.goiena.net/blogak/faroa

Lasterka egitea inbertsio bat da guretzat. Gustoz egiteaz gain, ontzat jotzen dugu geure osasunarentzat. Hala ere, merkea da, beste kirol zenbaitekin alderatuz gero. Gasturik handiena zapatillak izaten dira, urtean behin-edo erosten ditugu eta. Prakak eta elastikoak, ostera, oso noizean behin berritzen ditugu. Azken praka luzeak, adibidez, neguan

jaztekoak, 22 urtez erabili ditut korrika egiteko.

Horregatik, berriak erosita koan, ez da harritzeakoa ezustekoren bat hartzea, diseinuaren lotuta gehienetan, hor igartzen baita batez ere urteen joana. Oraindik orain erosia ditugun praka luze berriek badute gauzatxo bat txit polita eta, batez ere, praktikoa: poltsikotxo bat gerriaren atze aldean, non gorde daitekeen etxe geltza. Txikikeria bat, pentsa lezake norbaitek, baina ez da horrela, atxintxiketa egiten dugun arazo bat horixe izaten baita: non gorde etxe geltza. Kasu honetan, beste askotan

bezala, diseinu on batek atsegina egiten du gure zaletasuna, arineketan egitea, alegia.

## Drama

**Anjel Lertxundi**  
www.berria.info/blogak/lertxundi

The Times egunkariak De Juana Chaosi egindako elkarritzetaren ondoren, hedabide gehienek damu falta azpimarratu dute titularretan –ez da egindako krimenez damu–, elkarritzetaren aldarriaren gainetik. Presoarenengandik hurbilen dauden

## plazara

Urtarrilaren 31n deklaratzera joan behar izan zuen Juan Jose Ibarretxe lehendakariak. Eneko Goia Lasorendako harrigarria da

"bere burua demokratikotzat duen Estatu batean halakorik ikusi behar izatea". Haren ustez, lege injustuak erabiliak eta era-

bat gehiegizkoak diren interpretazioak eginaz epaileak erabiltzen dira estrategia politiko zehatzak aurrera eramateko.

Eneko Goia Laso \*

## Askatasuna helburu politiko menpean

Urtarrilaren 31n benetan irudi bitxia ikusteko aukera izan genuen, Ibarretxe lehendakariak inputatu gisa deklaratzera joan behar izan zuen Bilbaoa. Egindako krimena? Batsuneko kideekin hitz egitea. Harrigarria benetan bere burua demokratikotzat duen Estatu batetan honelakorik ikusi behar izatea.

Gutako asko han izan gin, bai astehenean eta baita asteazkenean ere. Han izan gin en justiziaren izenean egiten diren gehiegikerak salatzeko, baina baita ere konponbideak lortzeko bidea elkarrikketa dela ozenki aldarrikatzeko eta euskal erakundeek merezi duten begirunea exijitzeo. Ez dakit benetan gertakari honek duen larritasunaz jabetu garen, baina gauza asko dira jokoan daudenak.

Batetik, Zuzenbide Estatua deitzen den hori. PPk eta PSOEk Alderdi Legearen onarpenarekin eskubide sorta ederra urratu zituzten, herri honetako zati batek bere ordezkaritzia izateko duen eskubideetik hasi eta hainbat hiritarrek duten partehartzeko eskubidearekin bukatu. Demokrazia-ren printzipioak urratzen dira helburu politiko zehatz baten baitan (erakundeetatik partaide bat kaleratzea, hain zuzen ere).

Bestetik, Justiziaren beraren jarduera. Aurretik onartutako Lege injustuak erabiliak eta erabat gehiegizkoak diren interpretazioak eginaz epaileak erabiltzen dira estrategia politiko zehatzak aurrea eramateko. Pk gupidarik gabe erabili duen honen ondorioak egun oraindik bistan dira: 18/98, De Juanaren egoera...



MIKEL ARROIABE

du sistema demokratikoaren izaera bera. Batuentzat helburuek medioak justifikatzen dutenaren adibiderik garbiarena da horixe.

Baina lehendakariaren kasuan badira kontuan hartzeko beste ezaugarri batzuk. Batzuek Euskal Erakundeak bigarren mai-lakoak direla kontsideratzearena alegia. Esan den bezala, Zapaterok ETArrekin bildu behar duela publico esan ondoren ez dago inolako ondioriorik, baina lehendakaria Batasuneko ordezkariekin bilteagatik aldiz bai. Lehenengo adin nagusia da eta bigarrena aldiz ez? Euskal Erakundeak euren jarduera politikoa dela eta auziperatu daitezke, ez dute manganik. Estatuak aldiz bai. Zapate-

**"PPk gupidarik gabe erabili duen bide honen ondorioak egun oraindik bistan dira: 18/98, De Juanaren egoera..."**

**"Egun hauetan ikusten ari naizen jarrerarak maltzurrena Alderdi Sozialistarena da, zalantzarak gabe"**

roren aurka kritika politikoa dena Ibarretxerentzat auziperatzea da.

Batuentzat hori horrela zela bagenekien. PPk ez du sekula ez-kutatu bere pentsamoldea. Baina egun hauetan ikusten ari naizen jarrerarak maltzurrena Alderdi Sozialistarena da zalantzarak gabe. Berriro ere agerian geratzen da batzuantzako Zuzenbidezko Estatu deitzen dena interes politiko jakinen araberakoa dela. Behin eta berriro ari dira lehendakariaren auziperatzea dela eta euren hase-rrea adierazten, baina ez auziperatzea larria iruditzen zaielako, hanka sartze politikoa dela uste dutelako baizik. Bost axola zaie gaiaren larritasuna, beraientzat ardura bakarra Ibarretxeri edo PNVri protagonismorik ez ematea da, eta nonbait, ez zaie batere gustuko hauteskunde batzuen atarian honelakorik gertatzea.

Hau ez da gauza berria. Berdin egin dute eta egiten dute beste gauza askorekin, tartean pertsonen esku-bideak edota sistema demokratikoa jokoan egonda ere. Alderdi Sozialistak bere garaian bat egin zuen PPREn "estrategia antiterroristarekin", komeni zitzaielako, orain berdin egiten dute askatasunik gabe dauden pertsonen esku-bideak ez errespetatzean, komeni zaielako. Eskubideak, demokrazia edo Zuzenbidezko Estatua trukerako txanpon bezala erabiltzen dituzte. Zer espero daiteke euskal erakundeak bertan dagoenaren arabera defendatzen duenaz? Hori da hainbestetan goraipatzen duten autonomi honi dioten begirunea?

\*Eneko Goia Gipuzko Buru Batzarreko kide eta parlamentari da Gasteizen

## zer deritzozu?

[www.goiena.net](http://www.goiena.net)

Gehiegizko da mugikorren tarifa igoera?

BAI	%100
EZ	%0

## &gt; GEHIEGIZKOA

Pasada bat iruditzen zait. %25eko igoera izugarria da. Honezkerro mugikorren zurrubiloan sartuta gaude, ezin dugu hora barik pasatu eta telefono konpaineriek ondo aprobetxatzen dute hori.

Ainara

## &gt; PASADA BAT DA

Pasada bat da igoera hori. Baina ez bakarrik hori, telefonoa eukitzia da ya pasada bat. Fijuan mantenimendua ere demasakoa da. Azkenian tremendako fakturia heltzen da egin dozun dei kopuruarekin konparatzen baduzu. Negozio ona montatu dute batzuk, bai horixe.

Aitor

## &gt; PREZIO BEREZIA

Betikoa egin dute. Hemen, zenbat eta empresa handiagoa izan, orduan eta irabazi gehiago izaten dituzte. Berdin da kontsumitzaleak galtzen ateratzea; kontua da enpresariekin ez galtzea. Lotsa gutxi dute.

Miren

DATORREN ASTEKOAK:  
Zein eta zertaz jantziko zenuke Inauterietan?

Eman zure iritzia [www.goiena.net](http://www.goiena.net) atarian. Datorren astean argitaratuko ditugu hemen erantzin interesgarrienak.

## koplak

Lierni Altuna

## Iñaki De Juana

Azken aldian nabil burutik ni De Juana ezin kendu, zoritzarrez bihurtu delako aldarrikapen eredu.

Ia ehun egun daramatzala Iñakik ezer jan gabe, harrigarria da nola oraindik tingo eusten dun halare.

Aske egon beharko lukela zertako da justizia? nola izan dezakete hoiek horrelako malizia.

Adierazpen askatasunik ez dena ukatu diote, preso eduki nahi dute oraindik gutxienez hamabi urte.

Aste honetan alde guztietan bihurtu da notizia, politikan ere panorama dago guztiz nahasia.

Hau gainditzeo irten gaitezen aldarrikatzen kalera, ea ekartzen dugun behingoa denok Iñaki etxera.

hedabideek, berriz, elkarritzetaren aldarria azpimarratu dute eta damu faltarena saihestsi. Ez dago semiotika jakin beharrik nork bere kaparen neurriko ondorioak ateratzeko.

Ez diot garrantzirik kendu nahi egoeraren alde politikoari, baina, nire ustez, kontzientzia drama bat jokatzen ari da, batez ere, 12 de Octubre ospitalean. Ertz asko eta saminak dituen kontzientzia drama bat: indarkeriaren bidegabekeriarena eta biktimen oinaze babestu gabearena; justizia maitzbatena; hedabideen manipulazioak eragiten duena...

## OHARRAK (POST SCRIPUTUM)

- Drama ala Dilema, ze izenburu eman egon nintzen. Batak zein bestek balio zezakeen, baina drama izanik dilema sortzen duena, egoikiaga iruditzen zitzaidan.

- Kontzientzia drama.

Kontzientzia: giza espirituak bere buruaren existentziatz eta kanpoko errealitateaz duen nolabaiteko ezagutza edo pertzepzioa.

Drama: bizitzako gertaera lazgarria.

Kontzientzia drama: giza espirituak bere existentziatz eta kanpoko errealitateaz duen ezagutza edo pertzepzioa eragiten duen gertaera lazgarria.

Zutabearekin bueltaka ari nintzela, arian-arian atera zitzaidan kontzientzia drama espresio hori eta, uste dut, betebelean dagokiola egoerari.

- Indarkeriaren nolakoa zehaztu nahi eta bidegabekeria espresioa erabiltzerakoan, indarkeria zuzentasunaren edo inoren eskubidearen kontrako ekintza dela adierazi nahi dut, jakina. Baina bidegabekeria hitza zehazta da indarkeriaren biderik eza, nora eza, etorkizun eza politikoa azpimarratzeko ere. Indarkeria bi zentzuotan da bidegabea, nahiz indarkeriari erreditu politikoak atera nahi dizkionak bereizi nahi izaten dituen.

## PFEZ berria: albiste txarra langileriarentzat

**Rebeka Ubera Arantzeta**

(Aralarren bozeramailea Gipuzkoako Batzar Nagusietan)  
Debagoina

Abenduaren 29an Gipuzkoako Batzar Nagusietan izandako osoko bilkuran onartu zen, EAJ, EA eta PPren botoei esker, Pertsona Fisikoaren Errentaren Gaineko Zerga berria. 2007ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean dago gipuzkoar orori eragiten dion zerga arautzen duen foru araua.

Zerga horren erreforma Euskal Autonomia Erkidegoaren hiru lurralte historikoaren ogasunetako arduradunek ezkutuan adostutako testua da, inolako eztabaida publikorik edo sozialik izan ez duena, gainera. Eta hori gutxi balitz, gai horren inguruan eskumen esklusiboa duten Batzar Nagusietan korrika eta presaka tramatatu da.

Ondo deritzogu hiru lurralte historikoaren artean zerga-araudia adostu nahi izateari, hiru lurralteotan ahalik eta antzekoen izateko. Baino horrek ez du justifikatzeko erabilitako prozedura. Denongan horrenbesteko eragina duen araua ezin da modu sasi-klandestinoan tramatatu eta onartu, herritaren eta eragile sozialen iritzi eta ekarpenak kontuan hartzeko denbora barik.

Tramitearen prozedura alde batera utzita, edukiari dagokionez ere, deigarriak egin zaizkigu jasotzen diren aldaketak. Elementurik azpimarragarriena oinarri ezargariarekin egiten duten banaketa da, hau da, bi multzotan banatzearena: oinarri ezargarri orokorra eta aurrezpenarena. Lehenengoak errenta aktiboak hartzen ditu, eta, beraz, hor sartzen dira lan errentak, jarduera profesionalen errentak eta enpresa jardueratik eratorritakoak. Bigarren multzoak, berriz, errenta pasiboak hartzen ditu: kapital etekinak eta ondasunen eskualdatzeen etekinak.

Aldaketa hor, logikoa izateaz gainera, txalogarria izango litzateke baldin eta lehenengo multzoaren aldeko diskriminazio positiboa egiteko asmorik balego. Izan ere, horiek ekonomia erreala ordezkatzen dute, ekonomia finantzari eta espekulatzialearen aurrean. Gainera, betidanik askoz kontrolatuagoak egon dira Ogasunaren aldetik,

## Denon eskubide zibil eta politikoak

**Alfre Elgezabal Burgos**

(Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren izenean) > Bilbo

**O**rain dela urtebete pasa, 2005eko azaroaren 21ean hain justu ere, Madrilgo Auzitegi Nazionalean, 18/98 sumarioaren epaiketari hasiera eman zitzaita.

Aurreko urtarrilaren 19an Espainiako Auzitegi Gorenak bere epaia eman du ezagutzera. Jarrai, Haika eta Segi gazte elkartek terrorista izendatu eta auziperaturiko 22 pertsona kartzelaratu dituzte.

Egoera honek erabateko kezka sortzen du eskubide zibil eta politikoei dagokienez, eta horren aurrean Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak ondorengoa eman nahi du aditzera.

- Jarrai, Haika eta Segi gizarte mugimenduetako gazteek bere gizarte eredua aldarrikatzeko, eta horri begira, bide demokratiko eta publikoak erabiliz jarduteko duten eskubidea adierazi.

- Euren herrian eta errealtitatean ematen diren egoeren aurrean edozein gaztek protagonista izateko eskubidea duela eta bide horretan beharrezko diren espazioak berma-teza ezinbestekoa dela aldarrikatu. Mundua ikusi eta aldatzeko eurek duten indarra bideratzeko eta gizarteratzeko aukera zabaltzen diela azpimarratu.

- Bere eskubide eta aldarrikapenak aurrera eramatzen saiatzeagatik pertsona edota gizarte mugimendu bat legez kanpo uzteak duen zilegitasun eza adierazi. Errudun epaitua izateko legez kanpoko ekintza bat burutzea beharrezko da eta gazte horiek delitutik burutu ezean, ez liratekeela susmopean egon beharko azpimarratu.

batez ere, soldatapeko lan errentak eta, ondorioz, zergaren pisua proportzionalki handiagoa izan da soldatapeko langileen artean.

Proiektu horretan hartu den norabidea, aldiz, kapital errenten aldeko diskriminazio positiboa eragitea izan da. Badirudi ez daukatela nahi-koia etekin iruzurrari esker eta modu legala bilatu zaie gutxiago ordain dezaten. Eta nola? Errenta aktiboek zergaren eskalaren arabera tributatuko duten bitartean, %23-%45 artean. Errenta pasiboek, berriz, ez dute eskalarik izango eta denei %18 ezarriko zaie; gainera, errenta aktiboen eskalaren gutxieneko baino baxuagoa dena. Kapital etekinengatik zerga portzentaje berbera ordainduko dute 100 euro irabazten dutenek zein 100.000 irabazten dutenek. Hori ez da gertatzen lan errentekin. Eta hori gutxi balitz, tipo altua ere jaitsi egiten da %45era. Beraz, erreforma horrek progresibotasunaren aurka egiten du.

Denok ordainduko diogu gutxiago Ogasunari, baina modu berezian soldata handiak eta kapital etekinak dituztenek. Ondorioz, Ogasunak diru gutxiago bilduko du, baina horrek ez die kezkarik sortuko diru sarrera handiak dituztenei. Horiek ez dutelako inolako arazorik zerbitzu

pribatueta jotzeko, zerbitzu publikoak behar bezalakoak ez badira. Baino hemen arazoa da langileriak ezin duela horrelakorik egin, hau da, herritar gehienok ezin dugu horrelakorik egin. Eta langileriak ere ez du ezer aurreratzen zergetan urtean 200, 300 edo 400 euro murritzuta. Baino zerbitzu publikoak behar bezalakoak ez izatea oso larria da. ELA sindikatuaren arabera, Erkidegoan 100.000 langilek baino gehiagok ez omen du PFEZ ordaintzeko adina irabazten. 0 kuota, beraz 0 murrizketa. Beraz, gutxien dutenak izango dira erreforma horren onura gutxien aterako dutenak.

Foru Ogasunak egin duen aurreikuspenaren arabera, 80 milioi euro gutxiago jasoko ditu Gipuzkoako Ogasunak. Kopuru hori Foru Aldundiaren urteroko langileria gastuaren %85 da. Beraz, erreforma hau baztertz uakera paregabear lego ke foru instituzioetan dagoen azpi-kontratacioarekin bukatzeko eta langile horiei baldintza duinak eskaizteko. Edo zerbitzu sozialak publifikatzeko eta zabaltzeko. Edo mendekotasuna duten adineko pertsonak jasan behar duten itxaron zerrendarekin aurten bertan bukatzeko. Edota oinarrizko errenta gutxienezko soldataraino igotzeko.

Edota...

## Arrasateko Mesedeetako Andre Maria ikastetxeko gatazkaren aurrean

**Arantza Marañon eta Iñigo Louvelli**

(Arrasateko Mesedeetako Andre Maria ikastetxeko Gurasoen Elkarteaaren eta langileen izenean) Arrasate

Arrasateko Mesedeetako Andre Maria ikastetxearen 2006ko irailaz geroztik jazotako gertaeren harira, bertako langileek eta Gurasoen Elkartea honi guztiari buruzko gure iritzia azaldu nahiko genuke:

2006ko irailean, Zuzendartza Titularrak (Kongregazioak) deitutako bileran azaldu zitzagun, Mertzedarien Kongregazioaren kudeaketa oker baten erruz, ikastetxearen egoera ekonomikoa defizitarioa zela. Hortaz, kudeaketa hori zuzentze aldera, zenbait neurri martxan jarri zitzatzela adierazi zituten, hala nola, haurretzaindegiko langileen kontratu aldaketa (irakasle kontratutik TEJI edo hezitzale kontratura), kuoten igoera, pertsonalaren berregituraketa (aldi baterako bi langileren kaleratzea)...

Astebereta, ordea, bigarren bilera batean, Kongregazioak ikastetxearen jarduera uzteko asmoa zuela adierazi zituen. Honen aurrean hiru "irtenbide" posible eman zizkigutenean:

1. Ikastetxeko langileek ikastetxeko jarduera eta kudeaketaren ardura hartzea.

2. Ikastetxea beste hezkuntza-erakunde batek bere gain hartzea; absortzioa, alegia.

3. Ikastetxearen itxiera.

Hasiera batean, Kongregazioak lehen aukera hartzera bideratzen du langileria eta proposamen bat egitera animatu. Langileek proposamen bat aurkezten dute, baina oztopoak berehala agertuko dira: benetako datu ekonomikoak ezkutatu egiten dizkigute, eta bi urteren buruan ikastetxea erosi beharra baldintza moduan jarri. Hortaz, argi geratzen da lehen aukera hori tramite hutsa zela eta aukera hori itxi nahi zituelako.

Abenduaren erdialderako langileei (Gurasoen Elkarteari ez, ordea) informatzen zaie Arizmendi ikastolarekin negoziazioak daudela. Baino hilabete beranduago negoziazio-mahaia apurtu dela esaten digute, arrazoi ekonomikoak direlarik etete horren kausa bakarra.

Azkenik, 2007ko otsailaren 1ean gurasoei deitutako bileran Kongregazioak adierazten du ikastetxea 2007-08 ikasturtearen amaieran itxiko duela.

Honen aurrean, Guraso Elkarteak eta langileek zera salatu nahi dute:

- Hasiera-hasieratik Kongregazioak izan duen jokaera iluna, gezurtia, eta gardentasunik eza. Inongo momentuan ez ditzigute datu ekonomiko sinesgarriak aurkeztu, ez zaigu informatu Arizmendi ikastolaren eta Kristau Eskolaren arteko 2006ko otsaileko lehen kontaktuez... Familiak eta langileak iruzur, manipulazio eta engainu baten biktimen sentitzen gara.

- Eman zizkigutenean bi aukerena antzerki edo tramite hutsa izan direla hirugarrenera, itxierarenera iristeko, bai familiak, bai langileria, bai herria bera engainatzeko trikimailu moduan erabiliz.

- Horren adibidea izan da otsaileko bileran gurasoei ikastetxea uzteko "gonbita" egin eta alde egite masiboa eragitea. Honela, ikasle ezagatik ikastetxearen itxiera justifikatu nahiko dute eta "krisian dagoen ikastetxearren" espedientea aurkeztu Hezkuntza Sailean.

- Mertzedarien Kongregazioak, bai familiei, bai langileei irtenbide duin bat emateko aukera esku artean eduki arren eta hainbat belaunalditan eurak transmisitu dituzten balore, ideario eta karisma mertzedarioa baztertz, interes ekonomiko hutsak lehenetsi ditu, 240tik gora ikasle eta 31 langile kale gorrian utziz, eta inguruan erreferentzia izan den ikastetxerik gabe.

- Hau dela eta, bai Guraso Elkartetik eta bai langileen aldetik honako deialdia egiten diegu Mesedeetako Andre Maria ikastetxeko guraso eta ikasleei:

1. Gurasoek euren seme-alabak ikastetxeen mantentzea, modu honetan baizik ez baitugu lortuko Kongregazioak zituen elkarrizketak berrabiatzeko presionatzea, honela denontzako irtenbide duina litzatekeena lortuz, hau da, ikastetxearen jardueraren jarraipena, gaur egungo ikasleria eta langileriarekin.

2. Hemendik aurrera antolatuko ditugun mobilizazioen parte hartzea.

Amaitzeko, datorren asteartean, otsailaren 13an, arratsaldeko 6etan, ikastetxeko areto nagusian Gurasoen Elkarteak deitzen duen bilerara deitzen ditugu familia guztiak.



*“Denok orar dezagula, naturaltasunez, Ionen elbarritasuna”.*

Ane, Elgeta.

Zuk horixe nahi duzu, eta gu horrexetarako ari gara lanean. **Kutxa** ongi asko dakigulako gaur esaten diguzuna entzuten, bihar zure nahiak gauzaturik ikusi ahal izan ditzazun. Zuri esker ari baita, egunero, gorantz egiten **kutxaren** Gizarte-Ekintza.

**zer nahi duzu bihar?**

**kutxaren 2007ko Gizarte Ekintza**

76 milioi euro  
1.200.000 onuradun  
4.300 jarduera Gipuzkoan

Osasuna

**Gizarte-Laguntza** 3 milioi, mendekotasuna duten pertsonentzako proiektuak abian jartzeko

Elkartasuna

Hezkuntza

Ikerkuntza eta Enplegua

Kultura

Aisialdia

Ingrumena



# Ospa ezazu San Valentin

**Alga lurrindegia**  
Bergara  
Ibargarai 10 – 943 76 00 85  
Opari esklusiboa egin!

**Belen Maiztegi Loradenda**  
Arrasate  
Biteri Etorbidea – 943 08 15 44  
Lore bat bihotz batentzako

**Kapikua Osagariak**  
Arrasate  
Bañez diktorea 4 – 943 79 19 94  
Opariak eta osagariak

**Hika Osagariak**  
Arrasate  
Juan Carlos Guerra plaza 1 – 943 79 98 06  
Xarmaz beteriko opariak

**Kimua Loradenda**  
Aretxabaleta  
Araba ibilbidea 24 - Tel.: 943 53 49 40  
Lore zaindu eta naturala

**Xarmanta opariak**  
Eskoriatza  
Gaztainadui 21 - 943 71 53 87  
Simone Perele barruko arropa

**Bea Lentzeria**  
Arrasate  
Iturrioz 4 – 943 79 12 05  
Ikusgarri egoteko

**Jolas opariak**  
Bergara  
Barrenkale 27 – 943 76 46 48  
Uno de 50 lepoakoak


**Mayte Loradenda**  
Arrasate  
Otalora lizentziaduna 18 - 943 77 14 65  
Lore batek hamaika hitzek baino gehiago balio du

# Herriak

Arrasate > 18-23 Bergara > 24-29 Aretxabaleta > 31-33 Eskoriatza > 34-35  
Antzuola > 36 Elgeta > 37 Aramaio > 38 Leintz Gatzaga > 39



> ARRASATE  
Liburuzain laguntzaile izateko azterketa otsailaren 22an da > 19



> BERGARA  
Osintxuko zubia berritzeko obrak egin behar dituzte > 25



> ARETXABAleta  
14 milioi euro pasatxoko aurrekontua onartu dute > 31



> ARAMAIO  
AHTren gaineko herri kontsula antolatzen zebilen taldea apurtuta > 38

ARRASATE > MERKATARITZAGUNE BERRIA

## Merkataritzagunearen proiektuari hasierako onesprena eman dio Udalak

Zenbait zehaztasun eginda onartu dute plana; jendaurrean ipiniko dute orain; horren ostean behin betiko erabakia hartu beharko du osokoak, gehiengo osoarekin

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
Hasierako onesprena eman dio Tokiko Gobernu Batzarrak Zabaletan merkataritzagunea eraikitzeko plan bereziari (PERI). Oraingo asteko astelehenean haritu dute erabakia.

Erabakia buletinean argitaratu eta gero, plan berezia jendaurrean ipiniko dute 20 egunez, ale-gaziorik balego, haien hartzeko. Plan horrek eragingo dien lurjabe eta bestelakoei ere jakinarako diente hartutako erabakia.


**IBAIONDO EZ DUTE BOTAKO**  
Hori bai, Zabaletako plana onartu duten arren, zenbait zehaztapen eginda onartu du Udalak. Horien artean nabarmenzekoada, adibidez, Ibaiondo baserria ez botatzea erabaki dutela.

Han dagoen beste baserri bat ere, Zabaleta, ez dute botako, eta biziaguneek han bizi izaten segitu ahal izango dute. Baino hori hala zegoen jasota lehenago ere.

**JAURLARITZAREN TXOSTENA**  
Udalak onartu du, baita ere, proiektua jendaurrean dagoen bitartean Eusko Jaurlaritzari beharrezko txostenak eskatzen jakiteko ea posible den onartutako Zabaletan betetzea.

Horrez gain, Ibai Arteri, Arrasateko merkatarri elkarteari, aukera emango dio merkataritzaguneak harengan izango duen eragina aztertuko duen txostena egiteko, gero Udalari emateko.

**OSOKOAK ONARTU BEHAR**  
Udalak, bere kabuz, beste txosten bat egingo du, eragin hori aztertzeko. Ikerri enpresari esleitu dio lan hori. Bi hilabete eman dizkio bukatzeko, alkateak jakinarazi dueitez: "Txosten guztiek esku arte-



ZABALETA Argazkiko mutaiak erakusten du zein lur-zati hartuko duen Zabaletako merkataritzaguneak.

GOIENKARIA

an ditugunean, berriro ere aztertuko dugu gaia, behin betiko erabakia hartzeko. Azken hitza osoko bilkurak dauka eta gehiengo osoa beharko da plana behin betiko onartzeko". Zera ere gainera-

tu du Lakuntzak: "Ez dakit lortuko dugun maiatza baino lehen egitea, baina hor ibiliko da".

Eta horrez guztiak gainera, Txomintxori, merkataritzagunea promozionatzeko plana aur-

kezu duen promotore bilbotarra-ri, bestelako zehaztapen batzuk egin ditzan eskatu dio Udalak. Esaterako, Udalak eskatu du zehaztu dezan zer espazio erabili-ko duten merkataritzarako, zer

aisialdirako... Azken batean, Udalak jakin gura du zelan banatuko dituzten 28.000 metro koadroak.

### GASTEIZ EDO ARRASATE

Herrian horrenbeste ika-mika sortu dituen proiektu hori herri-rako eta ibarrerako ona izan daitzeela uste du Lakuntza alkateak: "Ikusi egin beharko dugu zein eragin izango duen halako batek herrian. Hortik aurrera, zera hausnartu behar dugu: edo egiten dugu zerbait Arrasate ibarreko buru izateko asmoarekin edo autobidea bukatzen dutenean, guztiok joango gara Gasteizera".

Zabaletako planak berak ere hori argudiatzen du: "Merkataritzagune eta aisialdirako gune berezia ezartzea, ibarrean (eta inguruau) dagoen eskariari aurre egiteko". Dio planak Zabaleta leku ezin hobea dela, besteak bes-te, autobideetik gertu dagoelako, tranbia handik pasako delako, urbanoak geralekua duelako gerto eta geltoki intermodala hor ipiniko dutelako, besteak beste.

### MERKATARITZAGUNEAREN EZAGARRIAK

#### Bi solairu, lur azpiko aparkalekua eta aisialdigunea izango ditu

Merkataritzagune izateko erabili gura duten Zabaleta guneak 30.718 m<sup>2</sup>-ko hedadura dauka: Eroski hipermerkatutik hasi eta Iberdrolak dituen instalazioetaraino. Horietatik 28.000 m<sup>2</sup> izango dira merkataritzako ekipamenduendako. Eta, hain justu, 28.000 horietatik aurreikusten dute 18.000 m<sup>2</sup> erabiltea saltokiak ipintzeko; eta 1.433 bestelako ekipamenduetarako.

#### BI SOLAIRU

Bi solairuko eraikina egitea planteatu dute, modernoa. 15 metro garai izango da (asko jota 18 metro garai izan daiteke). Behiko solairuan ipiniko dituzte elikadurarekin eta etxerako eta pertsonendako ekipamenduekin lotutako saltokiak. Goiko solairuan, berriz, izango dira jatetxe eta halakoak eta aisialdirako guneak. Bi solairuak komunikatuta izango dira igogailu edo eskailera mekanikoen bitartez.

#### LUR AZPIKO APARKALEKUA

Lur azpiko aparkalekua egitea ere proposatzen du planak: 1.670 leku izango ditu, gutxi gorabehera.

Merkataritzagunera joateko bi bide zehaztu dituzte: bata orain dagoena da, Eroski Hipermerkatu-sa sartu eta aparkalekurako bidean aurrera eginda.

Bestea berriz izango litzateke zuzenean errepide nagusitik, Gi-627 errepidetik.

Eta merkataritzagunearen barrutik bidea egingo dute Zabaletan geratuko diren baserriak elkarren artean komunikatzeko.

#### AISIALDIA: MULTIZINEMAK

Plan bereziak ez du zehaztu zein aisialdi mota proposatzen duten Zabaletarako. Besteak beste, hori zehazteko eskatu dio Udalak Txomintxo promotoreari. Edozelan ere, multizinemak ipintzea gurako luke Udalak.

**zerbitzuak****GUARDIAKO FARMAZIAK****ARRASATE**

Zapata, 10	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Domeka, 11	Corcuera	Maisu Aranbarri 1	943 79 22 26
Astelehen, 12	Irizar	Erguin 15	943 79 12 39
Martitzena, 13	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Eguaztena, 14	Español	Araba etorbidea 14	943 79 18 65
Eguena, 15	Ruiz	Maala 31	943 79 14 09
Egubakoitz, 16	Etxeberria	Zarugalde 42-44	943 77 16 30

**BERGARA**

Zapata, 10	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Domeka, 11	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Astelehen, 12	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Martitzena, 13	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Eguaztena, 14	Urrutikoetxea	Oixorondo 4	943 76 11 74
Eguena, 15	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Egubakoitz, 16	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05

**ÖÑATI**

Zapata, 10	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Domeka, 11	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Astelehen, 12	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Astelehen, 13	Barrenetxea	Kale Zaharra 1	943 78 01 22
Eguaztena, 14	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Eguena, 15	Garate	Kale Barria 42	943 78 05 58
Egubakoitz, 16	Juldain	Kale Barria 6	943 78 11 28

**ARETXABAleta**

Zapata, 10	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Domeka, 11	Fraile	Herriko plaza 10	943 79 21 99
Astelehen, 12	Iturrealde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Martitzena, 13	Iturrealde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguaztena, 14	Iturrealde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Eguena, 15	Iturrealde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43
Egubakoitz, 16	Iturrealde	Belorrieta auzoa1	943 08 11 43

**TELEFONO JAKINGARRIAK****((112))  
SOS DEIAK****OSASUNA ETA LARRIALDIAK**

Osakidetza (Larraldia).....	943 46 11 11
DYA (Antzuola).....	943 78 71 57
Gurutze Gorria (Elorregi).....	943 76 55 76
Suhitzaileak.....	943 78 28 00
Ertzaintza.....	943 53 47 20
Osasun Etxeak	
Arrasateko ospitala.....	943 03 53 00
Antzuola.....	943 76 62 23
Aramai.....	945 44 53 40
Aretxabaleta.....	943 71 19 59
Bergara.....	943 03 54 00
Elgeta.....	943 03 54 00
Eskoriatza.....	943 71 44 52
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 03 54 00
Udalzainoak.....	
Antzuola.....	943 76 62 46
Arrasate.....	943 79 14 39
Aretxabaleta.....	943 71 18 63
Bergara.....	943 77 91 06
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

**GARRAOAK**

PESA.....	902 10 12 10
Taxiak	
Arrasate.....	943 79 12 22
Aramai.....	945 44 50 33
Aretxabaleta.....	943 77 12 64
Bergara.....	943 79 12 22
Eskoriatza.....	943 71 40 59
Oñati.....	943 78 03 65

**DEBAGOIENA**

Mankomunitatea.....	943 79 33 99
Hiltegia (Zubillaga).....	943 78 15 12
Nekazaritza ganbera.....	943 76 10 15
Zerba Bulegoa.....	943 76 58 63
Hondakindegia alternatiboak	
Arrasate.....	943 77 11 43
Bergara.....	943 76 44 42
Oñati.....	943 78 03 53
Kiroldegiaik	
Aramai.....	945 44 53 35
Arrasate.....	943 77 16 77
Aretxabaleta.....	943 71 26 28
Bergara.....	943 76 56 41
Elgeta.....	943 76 82 84
Eskoriatza.....	943 71 53 28
Oñati.....	943 71 63 75
Kultura Etxeak	
Antzuola.....	943 76 60 65
Aramai.....	945 44 53 74
Arrasate.....	943 77 01 05
Aretxabaleta.....	943 71 10 27
Bergara.....	943 77 91 58
Eskoriatza.....	943 71 46 88
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 03 53
Udalak	
Antzuola.....	943 76 62 46
Aramai.....	945 44 50 16
Arrasate.....	943 79 09 00
Aretxabaleta.....	943 71 18 62
Bergara.....	943 76 91 00
Elgeta.....	943 76 80 22
Eskoriatza.....	943 71 44 07
Leintz Gatzaga.....	943 71 47 46
Oñati.....	943 78 04 11

**URBANOAK****ARRASATE**

Gorostizistik Eroskira (2 Linea)	
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguina B, Arimak, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biterri, Legaria, Musakola eta Eroski.	
Eroskitik Gorostizara (2 Linea)	
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.	
IBILBIDEA: Eroski, J. Bengoa, S. Teresa, C. Obregon, Oñate, Barrenetxea, Makaztenea, Iñarra, S. Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguina A eta Gorostiza.	
Gorostizistik Eroskira (1 Linea)	
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.	
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguina B, Zarugalde, Muxibar, S. Frantzisko, Iñarra, Makaztenea, Obrenreka, C. Obrero, Galizia, Bengoa eta Eroski.	

**Eroskitik Gorostizara (1 Linea)**

08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.	
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimak, Uribarri, Erguina A eta Gorostiza.	

**BERGARA****>1983an jaiotakoek baziaria egingo dute**

San Lorentzo/San Juanidik irteerak	
07:00, 07:55, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:40, 13:30, 14:10, 16:00,	

## kale inuesta

# Elgetako futbol taldea igotzear dago; pozik hartu duzu hori?



Maria Jesus Lete  
Etxekoandrea  
Elgeta



Julian Markiegi  
Langilea  
Elgeta



Emilio Mandaluniz  
Langilea  
Elgeta



Benedikta Bergaretxe  
Erretratua  
Elgeta



Javier Arantzialab  
Ikaslea  
Elgeta

Ez naiz oso aditu. Gure iloba, berriz, beti joaten da partiduetara. Harexek esaten dituenak dakizkit, pozik dabilela. Herria piztu egiten dute halakoek, baina arazoa ikusten dut diru aldetik.

Ilusioa egiten dit; emaitzak jarraitzen ditut eta Elgetako gazte guztiak ezagutzen ditut. Momen-tuz taldea fundamentuz dabil. Espero dut hala jarraitzea, baina zaila izango dela uste dut.

Ni bazkide naiz. Igoera jokatzean dute; ea, bada, igotzen garen! Gutxi joaten gara ikustera, baina ilusioa egiten du. Gure animuak baditzte eta jarraituko dutela uste dut, fundamentuz dabilza.

Gazte asko ezagutzen ditut eta galtzen dutenean pena handia hartzen dut. Joan daitezela gora! Uste dut geroeta hobeto ibiliko direla. Nire animuak baditzte; herrikoak animatu ezean, zein animatu, ba?

Futbola ez zait gustatzen, eta ez dut uste jarraituko duenik taldeak. Jendea lanean dabil, neskalagunak... Sakrifizio handia da eta ez dute dirurik; zaila izango dute jarraitzea; dena den, hala balitz hobe.

## txaloak eta txistuak



GOIATZ ARANA

# Errepideko lerro etengabea soberan dago



Aramaioar batek jakinarazi digu Aramaiotik irten eta Arrasateranzko errepideko seinaleez tapenean kontraesana dagoela. Hain zuen ere, bide-seinale batek ohartarazten du aurreratzeko debekua bukatu egiten dela, baina errepidean lerro etengabea margotuta dago.



**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlitzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria

## asteko datua

49

Fagor Taldeko 5.330 bazkidek erreferenduma egin dute Lagun-Aroren osasun-zerbitzuak jaso gura dituzten edo ez erabakitzeko. %50,69k baietz bozkatu zuten eta %49,31k ezetz. MCCren erabakia boto guztiak batuta erabakiko dute.

## 5 galdera...

### Loli Altzaga

Kontsumitzaileen elkartea  
Eibar

#### 1. Kontsumitzaileen bulengoan jasotzen dituzten erreklamazio gehienak telefonia zerbitzuei dagokie?

Bai, hala da. Jende askok erreklamazioak egiten ditu, tarifik gehiegizkoak direlako eta baja emateko zaitasunak izaten dituztelako. Horrez gain, gero eta jende gehiago kexatzen da politonoen zerbitzuagatik.

#### 2. Egia da Espainiako Estatuko poltsikoko telefonoen tarifak Europako handienetakoak direla?

Bai. Europako beste herrialde askorekin alderatuta izugarri ordaintzen dugu hemen. Bitxia da, adibidez, Frantziako Orangek, Estatuan lan egiten hasi den azkenak hemen, Estatuan, Frantzian baino tarifa garestiagoak kobraztzen dituela. Hemengo parera kobratzeko aukera ikusi du, eta hala egin du.

#### 3. Bada, orain dela gutxi Espainiako Parlamentuak galarazi egin zien telekomunikazio enpresei prezioan biribilketak egitea...

Bai. Azkenean, administrazioak erabaki hori hartu zuen era-biltzaile askoren erreklamazioak jaso zituelako. Berez, lege batzuk onartuta zeuden, baina ez zuten askorik espezifikatzen. Ordura arte auzi-bidea zen bide bakarra.

#### 4. Hori dela eta, telefonia enpresek prezioak igo gura dituzte...

Bai, lege horren ondorioz ez dituzte irabaziak txikitu gura, eta orain deia egiteagatik eta minutuko igoera nabarmenak egin gura dituzte.

#### 5. Eta zer deritzozu gaur (martitzena) poltsikoko telefonorik ez erabiltzeko deitutako protesta-ekintzari?

Lehenengo pauso bat da. Era-biltzaileak ez gara jabetzen zen-baterainoko indarra daukagun gutako asko ados jartzen bagara. Askok kexatzen gara, baina ez gara mugitzen. Beste herrialde batzuetan gauza asko lortu dituzte.



ZERBITZUAK &gt; ZABALETAKO MERKATARITZAGUNEA

# Zabaletako hiru fabrikak bota egin behar dituzte

Merkataritzagunea eginez gero, Epele Galdarategia eta inguruko fabrikak bota egingo dituzte

Ibaiondo baseria ez dute botako, oraingo astean bertan Udalak onartu duen moduan

UBANE MADERA &gt; ARRASATE

Zabaletako merkataritzagunea sarra-sarra dabil azkenaldian arrasatearren ahotan. Iza ere, herriaren berarenengen ez ezik, herritar askorengan eragingo du proiektu horrek. Tartean daude Zabaletan bizi direnak eta han lan egiten dutenak.

Haien artean, bostetik hiruk ez dute lurrik saldu gura. Beste biek, berriz, bai. Azken bion lurrik dira kopuru osoaren %71. Beraz, horiek eskuratu gero, merkataritzagunearen promotore Txomintxok aurre-egun dezake proiektuarekin; jakina, Udalaren behin betiko baimeña eskuratu behar du lehenago.

Edozelan ere, Zabaletako baserriar eta enpresariekin izan da GOIENKARIA, euren ikuspean ere azal dezaten.

IBAIONDO BASERRIA

Arregitarra bizi dira Ibaiondo baserrian, 1961a ezkerro. Beldur ziren etxe galduko ote zuten; baseria ordenazioz kanpo dago udal arauen arabera, eta botako zutela jasota zuen Zabaletako plan bereziak. Astelehenean, berriz, baldintza hori aldatzea erabaki zuen Tokiko Gobernu Batzarrak eta Ibaiondo baseria ez botatzea proposatu behar dio Txomintxo promotoreari. Merkataritzagune berriaren izkina batean geratuko da Ibaiondo baseria, aldaketarik ez bada.

ALTZIBAR BASERRIA

Ibaiondo baino apur bat gorago, Altzibar baserrian bizi da Pedro Agiriano. 20.000 m<sup>2</sup> lursail ditu hark eta 12.000 eskuatu dizkio Txomintxo promotoreak. Saldu egingo dizkiola dio Pedro Agirianok: "Lepotik helduta nago. Lurrengatik zerga oso altuak ordaindu behar ditut orain. Iaz 4.200 euro pasa eta aurten 4.800 euro pasa ordaintza espero dut. Lur guztia laranjondo beteta ere, ez nuke diru hori aterako".

ZABAleta BASERRIA

Beste baserri bat ere eragingo dio merkataritzaguneak: Zabaletari berari. Iberdrolaren estazioaren ondo-ondoan dagoena da. Gorosabel ugazabak (baserri erdiaren ugazaba) asmoak azaldu ditu: "Lurrik saldu edo ez, gero ikusiko dugu. Orain eskatzen duguna da gure baseria etxe moduan sailka dezatela eta baserri inguruaren 200-300 m<sup>2</sup>-ko espazioa uztea, erabiltzeko". Gorosabelek argitu du proiektuan Zabaleta dagoela sailkatuta ekipamendu moduan; Diputazioak, berriz, etxebizitza moduan du. Horrenbestez, eskatzen dute Diputazioarena kontuan hartu eta etxebizitza moduan sailka dezatela.

Udalean, berriz, zehaztuta dute Zabaletaren egoera. Bietaera sailkatuta dago, ekipamendu eta etxebizitza moduan. Baino hala izan arren, hango bizilagu-



BOTA Argazkian ikusten diren eraikinak (baserria izan ezik) bota egingo dituzte merkataritzagunea egiteko.

U.M.

nek han bizi izaten jarrai dezaketen jakinarazi dute.

Baserriaz gainera, Zabaletakoek dute 3.200 metro koadro lur. Merkataritzagunearen beste izkin a batean geratuko da Zabaleta.

DANONA KARROZERIAK

Baserriez gainera, hiru fabrikatan eragina izango du: Carrocerias Danona, Epele eta Esman. Danonari dagokionez, 10 urte dela ipini zuten negozioa, lokala erranteari hartuta: "Hasieratik dugu kontratu ezegonkorra, bagenekeila-

ko merkataritzagunea zetorrela", dio ugazabak. "Guztiz izorratzen gaitu. 50 urtetik gorako bi langile gara. Inor ez da etorri berba egitera eta ez dakigu zer gertatuko den", gaineratu du. Kontatu duenez, orain sei hilabete sinatu zuen lurron jabeak aurre-kontrataua, lurrik saltzeko.

ESMA ZENAREN PABILIOIA

Esmarena zen lantegiari dagokionez, berriz, Logistica Aldekoa oñatiarrek erabiltzen dute pabiloi hura, merkataritzagunearen

obrak hasi arte. Hasieratik zeki-ten merkataritzagunea bazetorrela eta hori gertatzean handik joan beharko zutela; ondorioz, ez dute inbertsio handirik egin Arrasaten. Orain, langile bakarra dute han.

TXOMINTXO PROMOTOREA

Bilboko Txomintxo promotorea dabil Zabaletako proiektua lanzen. Haien iritzia jaso gura izan du GOIENKARIAK. Hala ere, ez dute azalpenik egin gura izan: "Orain ez da momentua; akaso, aurrerago egingo dugu zerbaite".

## EPELE GALDARAGINTZA

## Epele Galdaragintza lantegiarendako ez da etorkizun garbirik ikusten

Epele Galdaragintza enpresak ere jasango du merkataritzagunearen eragina. Haren ugazabak ez ditzu lurrik saldu gura. 16 langile ditzu. Jaime Osinaga ugazabak gogor kritikatu du udalbatzarraren jarduna: "Daramatzagu 25 urte hemen eta 20 urtean egon gara lantegia handitzeko baimen guran eta sekula ez digute eman, merkataritzagunea eraiki gura dutelako. Azkenean amore eman beharko dut, ez didatetako beste aukerarik ematen. Esmaren kasua bestelakoa da. Hura porrot egoeran zegoen eta Txomintxok enkantean erosiz zuten". Alegazioak aurkeztu dituela ere kontatu du: "2001ean plan partziala jendaurrean ipini zutenean aurkeztu nituen alegazioak, Zubizarreta alkate zela; erantzun ere ez zidaten egin. EAJk hartu zuenean alkatezta ere

aurkeztu nituen eta batzuk erantzun zizkidaten 2004an. Inor ez da gurekin kezkatzen. Oraingo alkateak esan zuen amore eman beharko genuela". Osinagak azpimarratu du aspalditik datorrela asmo hori: "Eroski eraiki zutenetik. Orduan (orain dela 19 bat urte), industrialde hura zatitu zuten hirutan". Etorkizunaren gainean, berriz, zera dio: "Ganorazko zerbaite emango validate, hartuko nuke. Arrasaten jaiotakoa naiz eta gurako nuke Arrasaten bizi eta lan egin. Baino orain arte ez didate ezer egokirik eskaini. Gainera, orain fabrika dagoen lekua pribilegiatura da eta hori galdu egingo dut. Arrasaten ez dago lur industrial askorik. Dena den, ez dute ezer esan fabrikaren lekualdatzearen gainean. Eta nik negoziatuko dut, beste erremediorik ez dudanean".

Garagardo ona, giro hobea



**TXIRRITA**  
Taberna  
Gesalibar auzoa. Tel.: 943 79 10 35

**UGARTE****Industria hornidurak**

San Andres auzoa 2. 5-6  
Pab.  
Tel.: 943 -71 21 41  
Faxa: 943 - 71 21 40

**Martxa eta estilo handiko arropa**

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

LANA > UDAL LANPOSTUAK

# Liburuzain laguntzaile lanposturako azterketa otsailaren 22an da

Oraingo astean egin dituzte arotz eta udaltzain izateko aurreneko azterketak; datorren astean egingo dituzte hurrengo probak

**UBANE MADERA** > ARRASATE  
Eguaztenerako 29 lagun zeuden deituta udaltzain lanpostu bi betetzeko hasierako azterketetara. 13 aurkezu ziren eta bederatzik gainditu zuten ([arrasatemondragon.org](http://arrasatemondragon.org)). Hala, haien datorren eguztenean dute hurrengo hitzordua, gaitasun fisikoaren froga egiteko. Iturripeko kirolegira jo beharko dute, 09:30erako.

Oraingo asteko egunean, berriz, Monterronen egin zuten azterketa udal arotz izateko pro-

betara aurkeztu direnak. 27 lagun zeuden deitura. Eta oraindik ez dugu jakiterik izan zenbatek gainditu duten proba; ezta noiz eta non duten hurrengo hitzordua ere.

**LIBURUZAIN LAGUNTZAILEAK: 87**  
Hori bai, dagoeneko zehaztu dute liburuzain laguntzailea izan gura dutenek otsailaren 22an, eguna, dutela aurreneko proba. 87 lagun daude onartuta azterketa egiteko; Musakolako kirolegian izango da, "Uarkape okupatuta dago-eta, beherapenen azokarako presta-

tzen", argitu dute Udaletik. 09:30erako egon beharko dute han, besteak beste, nortasun agiria aldean daramatela, "bestela edozeinek egin ahal du azterketa".

**HIRU IPINTZEA FALTA DIRA**  
Udalak azaroan egin zuen funtzionario izateko zazpi lanpostu betetzeko deia: liburuzaina, liburuzain laguntzailea, erizaina, delineatzailea, arotza eta udaltzain bi.

Probetarako epaimahaikideak izendatzeko atzerapenak izan dituzte administrazioan, eta horrexegatik atzeratu dituzte azterketen datak. Hain justu, falta dira zehazteko delineatzaile eta liburuzain izateko azterketak noiz egingo dituzten, epaimahaikideak izendatzea falta delako.



AURKEZPENA J. Garai (Udala), I. Lakuntza alkatea eta A. Albistur (AZK). T. MADINA

ZERBITZUAK > KULTURA ETXE BERRIA

## Astelehenean zabalduko dute kultura etxea: Kulturate

Kulturari erabat zabalik dagoen ate moduan aurkeztu dute kultura etxe berria

**GOIENKARIA** > ARRASATE  
Kulturate. Izen hori aukeratu dute Arrasateko kultura etxe berria izendatzeko. "Erabat zabalik dagoen espazio kulturala" delako aukeratu dute kultura eta ate berbezin egindako hitz joko hori. Hala azaldu zuen kultura etxearen irudia eta izena diseinatu dituen AZK enpresako Asier Albisturrek

aurkezen ekitaldian. Udaleko ordezkarriak ere izan ziren ekitaldi berean.

Halaber, jakinarazi zuten datorren astelehenean estreinatu ahal izango ditugula Kulturateko zerbitzu guztiak (liburutegia, haur liburutegia, haurtxoteka, fonoteka, bideoteka...), nahiz eta inaugurazioa martxorako utzi.

HEZKUNTZA > MESEDEETAKO IKASTETXEA

## Mesedeetako Andra Mari ikastetxea ixteko arriskuan dagoela-eta, protesta egin zuten

Ikastetxea egoera ekonomiko txarrean dagoelako daude ixtekotan; ikasleen gurasoek negoziatzea eskatu dute asteon



ESKARIA Ikastetxeko ikasle bat, eskola ez ixteko eskatzen. TXOMIN MADINA

**GOIENKARIA** > ARRASATE  
Guraso, ikasle eta senitartekoak Mesedeetako Andra Mari ikastetxearen ate aurrean batu ziren astelehenean pankartekin, ikastetxearen itxieraren kontra. Iaz irailean haurzaindegiko sei irakasle kaleratu zituztenean geratu zen agerian ikastetxearen egoera ekonomiko kaxkarra. Orduan, guraso elkartekoetan esan zieten konponbide bila hasiko zirela, baina sala-

tzen dutenez, azken hilabeteotan ikastetxeko arduradunek esanda-koak ez dituzte bete. Halaber, gurasoek gaizki ikusten dute ikastetxeko arduradunek hilabete haue-

tan erabili duten "sekretismoa". Ikastetxekoek gurasoei esan die-te 2008an areak itxiko dituztela. Arduradunek ez diote GOIENKARIA-ri adierazpenik egin.

> MERKATARITZA

## Ibai Arte merkatari elkarteak herriaren gaineko jardunaldi informatiboa antolatu du

Besteak beste, erosketa ohiturak, aisiaidai, merkataritzaguneak eta Arrasate Iraunkorra gaien gainean jardungo dute hurrengo martitzenean, hilaren 13an, Ibai Arte elkartearren eskutik, *Arrasate herri bizia* izenburuean jardunaldi informatiboa antolatu dute-eta. 19:00etarako egin dute hitzordua, Kulturaten. Interesa duen edozein joan daiteke jardunaldira.

> EMAKUMEAK

## Autoen mekanika eta mantentze-lan ikastaroa Emakume Txokoan, emakumeendako

Autoen oliao eta ura aldatzea, delkoa, bujiak, frenoak (pastillak, likidoa,...), gurpilak aldatzea, bateria, sistema elektrikoaren funtzionamendua... Halako gaia landuko dituzte martxoaren 1etik apirilaren 26ra bitartean Emakume Txokoan egingo duten oinarritzko mekanikaren gaineko ikastaroa. Parte hartu gura duenak otsailaren 22a baino lehen eman behar du izena, Emakume Txokoan (943 79 41 39, 11:00-14:00 eta 15:00-19:00).



Pando  
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6  
(Legarre pabiloia)  
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak  
Ibilgailuak  
Stand-ak  
Itsasgarriak  
Biniloa  
Seinaleak  
Lonak  
Erliebedun hizkiak

**BITTORI**  
**ERRETEGIA**  
**Eguneko menua - Kartako menua**  
**Espezialitateak:**  
**legatz kokotxak eta txuleta**

Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

**Monte**  
**taberna**

Maalako errabala 2  
Tel.: 943 79 20 56

ARATUSTEAK > ARATUSTE-ZAPATURAKO EGITARAUA EGIN DUTE HAINBAT HERRITARREK

# 'Sardinaren konkista' egingo dute Aratusteetako zapatuan

'Sardinaren konkista' lelopean zapatuan Aratusteak ospatzeko egitaraua antolatu dute. Herritarrek implikatzeko, urtez urte sardina txandakatu egingo dute

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Aurten bigarren aldiz, hainbat herritarrek Aratusteak antolatuko dituzte zapaturako. Iazko arrakasta ikusita, berriro egitea erabaki dute, eta egitaraua handitu eta herritarren implikazioa areagotu egingo dute.

"Iaz herritarren erantzuna itzela izan zen. Goizean kalean zegoen giroa ikusita, askok etxera jo zuten mozorroen bila eta eguerdirako jaian sartu ziren", azaldu digute antolatzaileek.

## 20 TABERNA ETA UDALA

Hasieran antolatzaileek gaztexera eta taberna batzuetara jo zuten laguntza eske. Horrez gain, egitaraua udaletxera eraman zuten. Guztiek oso ondo hartu zuten ekimena, eta laguntzeko prest agertu ziren. Hala, deialdia taberna gehiagotara zabaldut, eta Udalak eta 20 tabernak eskaini dute laguntza.

Antolatzaileek azpimarratu dute helburua ez dela "martitzeneko jaiari konpetentzia egitea. Asmoa da martitzenean jaia ospatu ezin dutenei beste aukera bat ematea".

Ekitaldiak 12:00etan hasiko dira. Pregioa egingo dute Seber Altuben, eta umeendako taile-



BAZKARIA Aurten ere egingo dute bazkaria Uarkapen, iaz moduan (argazkian).

GORKA MORRAS

## ARATUSTEETAKO UDALAREN HORMA-IRUDI LEHIAKETA

### Iñigo Urrutiak irabazi du lehiaketa

Iñigo Urrutia eskoriatzarrak irabazi du Udaleko Kultura Sailak antolatutako 2007ko Aratusteetako horma-irudi lehiaketa. Irudi hori erabiliko du aurten Udalak. Aspaldian, Urrutiak hainbat sari eskuratu ditu Arrasaten.

Ume eta gaztetxoen alorrari dagokionez, Ainhoa Iturrioz eta Naiara Moreno arrasatearrek elkarlanean egin duten lanak beste sari bat jaso zuen; hain zuzen ere, lagun bi horiek 100 euroko txartel bat jasoko dute pintura-materialean gastatzeko.



Aratusteetako irudia. IÑIGO URRUTIA

rrak jarriko dituzte. Horren ostean, txarangak lagunduta kalejira egingo dute.

**BAZKARIRAKO TXARTELAK SALGAI**  
Bazkaria egingo dute Uarkapeko kantxan, eta dagoeneko salgai daude txartelak hainbat tabernatan. Derrigorrezkoa izango da bazkarira mozorrotuta joatea.

Bazkalostean, batukada talde batetik kalejira egingo dute Uarkapetik Herriko Plazara, eta han jokoak egingo dituzte. Mozorro onena duen edo jokoetan arrakasta handien duen taldeari goma-aparrez egindako sardina emanago diote gaztetxeen 21:00etan. Tallede eta koadrilak implikatzeko, urtez urte sardina hori txandakatzea erabaki dute antolatzaileek.

> ANTZERKIA  
**Zapatuan 'Ni ez naiz txotxolo' antzeziana Amaia antzokian**

Bihar, zapatua, Teatrora antzerki taldeak *Ni ez naiz txotxolo* antzeziana egingo du Amaia Udal Antzokian, 17:00etan.

Ikuskizuna ume eta gaztxoei zuzenduta dago, eta Aizpea Goenagak idatzitako testu baten oinarrituta dago. Edi Naudo da zuzendaria, eta aktoreak, berriz, Olatz Beobide eta Xabier San Sebastian.

Aktore bi horiek hainbat pertsonaia antzezten dituzte ikuskizunean, baina batez ere Martin, Nora eta Ali ize-neko lagunen biziaren eta ametsak izango dira garrantzitsuenak, baita euren inguruko senitartekoak, lagunak eta kaxa maitagarria ere.

> IPUINAK  
**Erakusketa eta ipuin kontaketak egingo dituzte Kulturate-n**

Ospitale zaharrean kokatutako Kulturate, kultura etxe berria, hasi da ekintzak antolatzen. Astelehenean, otsailaren 12an, *Tunela, desberdin-tasunak aberasten gaitu* era-kusketa zabalduko dute, eta hilaren 28ra arte egongo da ikusgai. Batez ere gazteei zuzenduta dago.

Erakusketa Anthony Browne idazlearen *Tunela* liburu arrakastatsuan oinarrituta dago, eta Paco Abrellek egin du Gijoneko Udaleko Kultura Sailarendako. Debagoienean, Arrasatera bakarrik eramango dute.

Erakusketa ipuin kontaketak egingo dituzte: martitzenean, 4 eta 6 urte bitarte-koendako; eta hilaren 20an eta 27an 6 eta 8 urte bitarte-koendako. Kontaketa horiek 18:00etan egingo dituzte.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

MUSIKA > GOVERNORS TALDEAREN ESTREINALDIA

# Governors, J. 'Odola' Arrasateko musikari geldiezinaren proiektu berria

Fjord eten eta atsedenaldi luzea egin ostean,  
bueltan dator Brutal Melody, Ekon eta Fjord talde  
arrakastatsuen sortzaile J. 'Odola'

**IKER BARANDIARAN > ARRASATE**  
Gaur, egubakoitzta, Governors taldeak estreinako kontzertua egingo du Arrasateko 3.60 aretoan, UEK taldearekin batera. 23:00etan izango da.

Governors Arrasateko J. Odola-k sortutako proiektu berriada. Juanek (J. Odola-k) aurretitik Brutal Melody, Ekon eta Fjord taldeak gidatu zituen. Fjord eten ostean, 2005eko otsailean, atseden luzea hartu zuen. Orain, berriz, bueltan dator talde berriarekin: "17 urte neuzkanetik ez dut inoiz atsedenik hartu, talde guztietak jarraian sortu ditugulako. Horregatik, atseden hartu eta zer egin gura nuen pentsatzeko astiazan dut", azaldu zigun Arrasateko musikari eta abeslariak.

Hainbat abesti idatzi zituen, etxearen. "Horren ostean, gertuko-ei laguntza eskatu nien abestiar gizatiartzeo. Xabi Del Rey, Keu, Yago eta Iñigo Zubizarreta izan nituen alboan".

**FJORDEN JARRAIPEN NATURALA**  
2006ko apirilean musikariak lortu eta entseautzen hasi ziren. Bateria jotzen Soraluzeko Heloy dabil (Ekonen ibilitako da, eta Fly Shit taldean ere jotzen du); aurretik Yago ibili zen guitarra jotzen (Ekon, Isarevolution...), baina beste zeregin batzuk ditu eta Aitor algortarrak hartu dio lekukoa. Horrez gainera, Radio Wingseko Borja zuzenekoak egiten laguntzen dabil. Dena dela, etorkizunari begira, baxu-jotzai-



GOVERNORS Argazkian, gaur 3.60 aretoan arituko diren musikariak: ezkerretik eskumara, Heloy, Juan, Borja eta Aitor. S.D.EAD

le bila dabilta Governors taldeko lagunak. Juan abeslariaren esanetan, Governors "proiektu neur-neurea da. Hasieratik guztia nik neuk egin dudalako. Bai-

na nirekin dauden musikariekin euren ideiak plazaratzen dituzte, kantuak eurenak egiteko. Orain egiten dudana da Fjorden jarraipen naturala. Mugarik

gabeko rocka da... Punk-rocka badauka, metalera ez da helten...". 2007ko Durangoko Azokarako diskoa kalean izango du taldeak.

**GRUPO ARKHAUZ**  
ARTXABAleta 1950 • 2007 ARRASATE

**ETXE MOBEL**  
ALTZARIA Araba etorbiidea 5 Tel./Fax: 943 79 41 82 ARRASATE

**ARKHAUZ**  
CUCINA INTEGRAL Mitarte 3 Tel./Fax: 943 77 04 55 ARTXABAleta

**ARKHAUZ**  
MUEBLES Araba etorbiidea 20 Tel./Fax: 943 79 23 51 ARTXABAleta

Etxeko arropak ondo zaintzeko asmotan?  
Har ezazu tarte bat eta...  
Arkauz etxetresna elektrikoekin lortu egindo duzu.

**Arkauz zure etxea da.**  
expert banatzale ofiziala

**ATLETISMOA****Urrezko domina  
Maria Jose  
Gilendako**

Arrasatearrak 800 metroko proban lortu zuen domina Mendizorrotzan

J.E. > ARRASATE

Pozik daude Arrasate Atletismo Taldekoak. Izen ere, joan den astean Mendizorrotzan jokatu zen beterano eta gazte mailetako Euskadiko Txapelketatik bi domina ekarri dituzte. 800 metroko proban Maria Jose Gil lehena sailkatu zen beteranoetan eta Markel Blancok, berriz, hirugaren amaitu zuen gazte mai-lako 3.000 metroko proba.

Bestalde, Andoni Perezek Zarauzko krosean hartu zuen parte, infantil mailan, eta 3.450 metro korrika egin ostean seigarren geratu zen.

Oraingo aste bukaerako, berriz, hitzordu bat baino gehiago dituzte Arrasateko atletek: batetik, Lasarteko eskolarteko txapelketa; eta bestetik, Euskadiko Txapelketa Anoetan.

**ESKUBALOIA > HIRU PUNTUREN FALTAN****Barakaldo taldea ez da kontrariorik errazena berriro ere hasitako bolada onari eusteko**

Barakaldon jokatutako partiduan arrasatearrek sekulako jipoia jaso zuten, eta ez dute partidu erraza izango Iturripen

**JOKIN ETXEBARRIA > ARRASATE**

Ford Mugarrik porrotez beteriko boladari agur esan zion joan den astean Arretan. Ez zuten partidua irabazi, baina gutxienez puntu bat lortu zuten Erromoren aurka; eta ez da gutxi, etxeekoek defentsa gogorra egin zuten-eta. Azkenean, baina, 21-21 amaitu zen lehia eta Arrasatekoek bigarren itzuliko lehen puntuak poltsikoratu zuten.

Horrenbestez, bolada txarra-ri agur esan zioten joan den astean, eta taldean badakite etxean jarraian jokatuko duten hurrengo bi partiduetan puntuak at-eratzear behar-beharrezko dela mailari matematikoki eusteko. Oraindik denboraldia amaitu arte badaude partiduak beharrezko diren hiru puntuak lortzeko, baina zenbat eta lehenago batzen hasi, hobeto.



DEFENTSA Arrasatek lan ona egin beharko du defentsan.

GOIENKARIA

Hala ere, oraingo aste buka-eran izango duten aurkaria ez da nolanahikoa. Zapatuan 17:00etan Iturripen, Barakaldoren aurka jokatu beharko du Ford Mugarrik, eta lehen itzulian Barakaldon jaso zuten jipoia kontuan

hartuta, puntu bat lortzea ez litzateke emaitza txarra izango. Barakaldo laugarren dago sailkapenean, baina igotzeko faboritoetako bat da. Edozelan ere, etxeokoak gogo biziz daude eta ezustekoa eman gura dute.

**futbitoa zaldibar****EMAITZAK**

Lasagabaster-THC .....	5-1
Ciprés - Omu Dribling .....	0-4
Saukelu Abian- Abokajarro .....	7-1
Iluntz- HLB 108 .....	4-3
Equus- Cicatriss .....	3-1
Dublin Irish Pub- McAwen Dauen .....	2-1
Iriztu Taberna-Iturrioz Taberna .....	5-3
Billy & The Cowboys- Betrayer .....	2-6
Manhattan Pippol - At. Celaya .....	4-9

**PARTIDUAK (KOPIA)**

Otsailak 10, zapatua	Epaileak
12:00 Iturrioz Tab. - Saukelu	Antolakunza
13:00 Dribling - Lasagabaster	Antolakunza
15:50 Iluntz- THC	Antolakunza
17:00 Betrayer - At. Celaya	Antolakunza

**SAILKAPENA**

	P	J
1. Saukelu Abian! .....	28	10
2. Dribling .....	14	10
3. At. Celaya.....	23	10
4. Betrayer.....	22	10
5. HLB 108 .....	21	10
6. Iluntz .....	20	10
7. Ciprés .....	16	10
8. Iriztu Taberna.....	15	10
9. McAwen Dauen .....	14	10
10. Abokajarro .....	14	10
11. Lasagabaster.....	13	10
12. Dublin Irish Pub .....	12	10
13. Manhattan Pippol .....	11	10
14. Iturrioz Taberna.....	7	10
15. Billy & The Cowboys .....	7	10
16. Equus .....	6	10
17. THC .....	4	10
18. Cicatriss .....	3	10

**Aste bukaeran kopa jokatuko da berriro ere**

Bazirudien kopa txapelketa ahaztuta zutela bai jokalariek eta baita antolakuntzak ere, aspaldian ez baita kopako jardunaldirik egon. Hala ere, aste bukaeran bueltatuko da txapelketa hori, eta ez edonolako partiduekin, gainera. Final-laurdenak daude jokoan eta finalerdieta pasea lortzeko faboritoek gogoz borrokatu beharko dute sorpresaz beteriko txapelketa horretan aurrera egiteko.

Lau partidu jokatuko dira zapatuan eta horietako bi aipatzeko modukoak dira: batetik, Betrayer eta At. Celayak jokatuko dutena. Sailkapeneko hirugarrena eta laugarrena nor baino nor gehiago; bestetik, Dribling eta Lasagabasterren artekoak. Lasagabaster ez dabil fin ligan, baina edozer egiteko gauza da.

**ARRASATE UDAL ZERBITZUEN TELEFONO BERRIAK**

Helbidea: Herriko plaza nagusia 1  
Tf: 943 252000 / 010  
Fax: 943 798056  
[www.arrasate-mondragon.org](http://www.arrasate-mondragon.org)

BAZ .....	943 252000 / (010)
Alkatetza .....	943 252001
Idazkaritza .....	943 252002
Kontuhartzaileta .....	943 252003
Pertsonala .....	943 252004
Hirigintza .....	943 252005
Obrak, Zerbitzuak eta Mantentzea .....	943 252006
Gizarte sustapena .....	943 252007
Euskara, Kultura, Hezkuntza .....	943 252008
Garapen estrategikoa .....	943 252009
Udaltzaingoa .....	943 252010 / (092)

**BESTE ZERBITZU BATZUK**

AUKEA -Musakolako Kiroldegia .....	943 771677
ITURRIPEKO KIROLDERIA .....	943 770995
ITURBIDE EGOITZA .....	943 252090
EMAKUME TXOKOA .....	943 794139
GAZTEEN INFORMAZIO BULEGOA .....	943 252065
SEXOLOGIA BULEGOA .....	943 252066
UDAL EUSKALTEGIA .....	943 797077
KULTURA ETXEA - Liburutegia .....	943 252025
KZ GUNEA .....	943 793554
HILERRIA .....	943 799521
UDALAKO INGURUMEN ESKOLA .....	943 770488
AZOKA .....	943 795155
AMAIA ANTZOKIA .....	943 792053
BILTEGIA .....	943 712650
UR ZERBITZUAK .....	943 712650
LANGAI .....	943 252070

OHARRA: GIDA 07an telefonoak oker daude

**ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA**

- Diagnosia-Orientazioa.
- Laguntza terapia.
- Mota guztiako eskola arazoak.
- Peritaje judizialak.
- Psikomotrizitatea eta logopedia.
- Tratu fisiko edo psikiko txarrak jasaten dituzten pertsonei laguntza psikologikoa.
- Ikasketa teknika eta ohiturak.
- Estimulazio goiztiarra

Ignazio Zuloaga kalea, 10 Tel: 943 79 48 77 ARRASATE

mingainari tiraka bote prontuen

Rafa Luengo > Itzala taberna

## "Zuhaitz on baten itzalpeien edarto egoten da"

JOKIN ETXEBAKRIA > ARRASATE

Urteaskuen futbol kanpuen baloiei ostikuek emu-ten ikusi dogu Rafa Luengo. Azkenaldixen, baiñe, futbola tabernako telebistan bakarrik ikus-ten dau haren. Itzalako kamarero da, eta barra gaiñen pintxo ugeri eukitte be, bezeruek baka-rrrik jaten ei dittue...

Itzala zerei edo zeiñei egingo zeuskixo?

Zerei egingo neuskixon ez dakit, baiñe klaru dauket zuhaitz on baten itzalpeien edarto egoten dala.

Pintxoazale izengo zara, ez?

Egixe esateko, ez naz pintxoazale. Tabernan pintxo asko egoten die, baiñe bezeruek jateko bakarrak ataraten dou.

Zerbezia ala ardaue?

Bixek gustetan jat. Zerbiduteko iguel zerbezia gureu, errexau dalako, baiñe edateko orduen ez dakit zein aukeratuko neukeen. Hori morenak edo rubixak, zein gureu dozun galdeketie bezela da.

Honezkero preparaute eukiko dozue zer-bait Karnabaletarako, ezta?



Ondiokan prestakuntza lanetan gabitz. Izen be, ez dakigu zapatu edo martitze-nien ospatuko dogun. Baiñe zelan jantziko nazen jakin gure badozu, egunien bertan etorri biherko dozu Itzalara. Ordura arte sorpresie gorde egingo dogu.

Zelan idaztie gureu: ordenadorez ala boligrafoz?

Boligrafoz, duda barik. Eskola zaharre-kuek gare gu.

Horregaitik erregaletan dozue boligra-fuek tabernan?

(Barre). Bai, horrexegaitik.

Txikiteue galtzen dabil?

Bai, duda barik. Eta, gaiñera, ez dot uste errekuverauko danik.. Jente gaztiek beste ohittura batzuk dauko.

Zeiñei atarako zeuskixo azukar bako kafie? Eta goxo-goxue?

Kafie berez azukar barik edan biher da. Baiñe kafe txar-txarra politiko askori atarako neuskixe gustura; eta kafe onona, emaztiei.

bere ustez



Ander Etxeberria

Telefonoetako argazki aukera

Guztiok edo ia guztiok sakelako telefonoari lekua egin diogu gure bizitzan. Bain denok berdinak ez izateko "pertsonalizazio" aukerak daude, eta modu bat pantailako imajinak dira.

Prentsan sarritan publicitatzen dira telefonorako argazkiak. *Asteleheneko Goienkarian* bertan ere baditugu. Kasu honetan euskal irudiak dira. Eta ez dute zerikusirik Estatu osoan hedapena duten aldizkarietan datozenekin. Hala ere, batzuek eta besteek logo bat kompar-

**"Deigarria da gurutze bikoaren presentzia Estatuko aldizkarietan, beste telefono logoekin"**

itziten dute: ikurrina. Deigarria da gurutze-bikoaren presentzia Estatuko aldizkarietan beste telefono logoekin batera. Izango da asaldura-en sinbolotzat hartzen dute-la, eta horrek jarraitzaileak leku guztietan dituela.

Harrigarria da ere Estatuko iragarkietan neska eta mutil katxarroak beti agertzea, eta euskal irudioint bat ere ez: satanasen eta garagardo pitxeren marrazkiak bai, baina haragirik ez. Izango da, esaten denez, hemen ez dagoelako zer eginik? Izango da baztergarritzat dutelako? Zeren eta arrazoia ez da izango gorago aipatutako irudiak baino euskaldunagoa ez denik. Dendarik balego, "modeloa" txapela edo zapiarekin ager-tu litezke.

hau be badaukogu



JON BEREZIBAR

ad Ibabe  
**IBABE GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa z/g.  
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

**KONTRATAK IRYROK S.L.**  
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka 5 bis - 246 posta-kutxa  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE

**OGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

TELEBISTA &gt; ALKATEA 'DEBARRI' PROGRAMAN

# Udal Euskaltegia azokara eroan eta Zabalotegiko aretoa berrituko dute

Auditorioko lanen lehen fasea datorren abendurako bukatu nahi dutela dio

Hasierako helburuak beteta utziko duela Udal esan du Victoriano Gallastegik

OIHANA ELORTZA > BERGARA  
Udal Euskaltegia Santa Marina-k eliza ondoan dagoen azokako bigarren solairuan kokatuko dutela esan du Victoriano Gallastegi alkateak GOITBko *Debarri* programan. Mizpirualde egoitza handitzeko bota egingo dute oraingo Udal Euskaltegia eta berria azokan dagoen eraikinean egongo da: "Solairu hori hutsik dago. Teknikariak egon dira eraikina ikusten eta esan dute posible dela han euskaltegia koka-tea", esan du Victoriano Gallastegik. Egoitza berrian hasiko dute datorren ikasturtea euskal-tegiko ikasleek.

ZINEMA ZABALOTEGIN  
Euskaltegiaren kokaleku berriaz gain, beste galdera batzuk ere egin dizkiote herritarrek alkateari. Zinemaz galduen diote, ea zergatik ez dagoen zinema aretorik Bergaran. Alkateak erantzun die Seminarioko eraikinean egingo duten auditorioan egingo dutela zinema aretoa: "Proiektu hori bukatu orduko bizpahiru urte pasako dira eta bitartean Zabalotegi jarriko dugu areto txiki bat. Zinea Orain plataformakoekin egin ditut bilerak eta hori da aurkitu dugun irtenbidea. Orain Zabalotegiko lokala ez dago erabilteko moduan, baina hori egokitu ostean, filmak ikusteko gela presatuko dugu. Formatu txikian iku-siko dira filmak eta 150 lagun inguru

DEBARRI Alberto Gorritibreak egindako galderi erantzun zien Victoriano Gallastegik Bergarako alkate moduan egindako azken *Debarrin*.

O.E.

## ESANDAKOAK

**"Aparkaleku gehiago egingo ditugu, baina autoak garajeetan sartzeko ohitura hartu behar dute herritarrek"**

rurendako tokia izango du aretoak", aurreratu du herriko alkateak. Auditorioarekin lotuta, esan du apirilerako adjudikatu nahi dituztela lanak eta abendurako lehen fasea bukatu. Aldundiak

**"Autobusen geltoki aurrean biribilgunea egiteko proiektua du Udalak, egunero egoten den zirkulazioa arintzeko"**

1.750.000 euroko dirulaguntza emango du. Bestalde, Aranzadi ikastolak plazako eraikinean jasoko ditu Martinez de Iralako gelak eta hango eraikina eskola publikoarenak geldituko da.

**"Auditorioan egongo da zinema aretoa, baina hori egin bitartean, Zabalotegin emango dituzte filmak, formatu txikian"**

**BIRIBILGUNEA AUTOBUS GELTOKIAN**  
Aparkaleku arazoa nola konponduko duen ere galduen diote herritarrek Victoriano Gallastegiri. Hark erantzun du Seminarioan 235 ibilgailurendako aparkale-

kua egingo dutela, baina automobil garajeak sartzeko ere esku tu die herritarrei: "Elurra egin duenean tokia egon da kalean, jendeak autoak garajeak sartu dituelako. Hori egunero egitera ohitu behar du jendeak", esan du alkateak. Zirkulazioari buruz, berriz, autobus geltoki aurrean biribilgunea egiteko proiektua ere baduela Udalak esan du Gallastegik.

Horrez gainera, alkate izendatu zutenean zituen bi helburuak bete dituela esan du Victoriano Gallastegik: Udaletxea presatu herritarrei zerbitzuak emateko eta Union Cerrajerako sailetan industriagunea egitea.

Diodo bidezko laser depilazioa:  
eraginkorra eta azkarra

## GORPUTZ GUZTIRAKO DEPILAZIOA:

- Hiru hilabetean behin
- Tratamendua bukatzeko 4 edo 6 saio
- Osasunean profesional direnek egina

Estetika zentroa  
**Igaro**

Presta zaitez  
udarako, orain!

Barrenkale, 35 • Tel.: 943 76 17 27 • 20570 BERGARA

# OGIZUN

koop. elk.  
okindegia



Ibargarai 44-46  
BERGARA  
943 76 45 53

Zubillaga 10  
OÑATI  
943 78 24 13

**JAUJA KIROLAK**  
Irizar 2. BERGARA  
943 76 14 95



ZUBIA Datorren astean hasiko dira Osintxuko harrizko zubia berriztatzen.

UBANE MADERA

**BERRIZTATZEA > HARRIZKO ZUBIA BERRIZTATUKO DUTE**

## Jatorrizkoa zen moduan lagako dute Osintxuko zubia

Zubia zabaltzeko egindako zatiak botako dituzte eta petrilak jarriko dituzte bi aldamenetan

**OIHANA ELORTZA > BERGARA**  
Osintxuko zubi zaharra berriztatu egingo dute. Datorren astean hasiko dituzte lanak. Hain zuen ere, Oñatiko Egaralur eraikuntza enpresak egingo ditu lanok, ia 109.000 euroko aurrekontuarekin.

**LEHENKO ZUBIA BERRESKURATU**  
Zubia antzina zen bezalakoa izango da berriztatze lanak bukatu eta gero. Egaralur enpresako itu-

rriek azaldu duten moduan, lehen estuagoa zen zubia, eta zabaldu egin zuten garraiolariendako. Orain, ordea, zubi berria eginda dago eta hura erabiltzen dute kamioiek. Hori ikusita, lehengo tamainara bueltatuko da Osintxuko zubi zaharra: hiru metro eskas zabaleran eta 50 metro inguru luzeran. Horretarako, kendu egingo dituzte duela urte batzuk zubia zabaltzeko aldamenetan egin zitzuten zatiak.

### HARRIA KANPOTIK EKARRI

Berriztatze lanetarako oraingo harria aprobatxatuko dute, neurri handi batean. Hala ere, izkina bietan egingo dituzten petrilak egiteko litekeena da kanpo-ko harrobi batetik ekartzea harria. Zubiak orain duen harri bera ekarriko dute, ekartzekotan.

Lanak urtarilean adjudikatu zizkioten Oñatiko Egaralur enpresari, eta argia eta ura nondik hartu eta obretako txabolak non jarri aztertzen ari dira orain. Datorren astean hasiko dituzte obrak eta bukatzeko hiru hilabete beharko dituztela uste dute.

> LANPOSTUAK  
**Bi udaltzain eta informatikari postuko deialdiak zabalik**

Udalak funtzionarioen lantaldia betetzeko beste bi udaltzainen eta informatikari baten plazak betetzeko deialdiak eginditu. Funtzionario mailako lanpostuak dira eta oposizio bidezko lehiaketa deitu du udalak. Interesa dutenen eskaerak aurkezteko azken eguna otsailaren 22a da. Oinarriak GAOn edo udal web gunean daude.

> ERAIKUNTA  
**Mizpirualdeko lanak egiteko proiektuaren baldintzak onartuta**

Mizpirualdeko egoitza handitzeko eta horrekin batera Udal Euskaltegia botatzeko lanak egiteko proiektuaren baldintzak onartu zituen udalbatzak, aho batez, astelehenean egindako ezohiko bilkuran. 240.000 eurotan esleituko du Udalak proiektu hori. Hartzaileak bi hilabeteren barruan entregatu behar du oinarrizko plana.



ANGIOZARKO ESKOLA

## Angiozarko eskolak eman du saria

Lauri Azkarate-Ascasuak irabazi du Angiozarko eskola txikiak zozketatu duen saria. Hondarribiako Txenduneabe Azpi landetxeen bi lagunendako asteburu bat -egonaldia eta gosaria barne- eta 150 euro irabazi ditu. Saria Igone Elortza eskolako gurasoak eman zion. Zorionak!

## ARISTEGI iturgintza

Tel.: 943 76 25 57  
Mug.: 646 02 16 94

Ibargarai hiribidea 32-04.B  
BERGARA



lleordeak eta margoak

*Gracian*

LURRINDEGIA - MERTZERIA


Bidekurutzeta, 6 - Tel. 943 76 10 25  
20570 BERGARA



*Kabutzia*

ARRAINDEGIA


Fraiskozuri 6  
BERGARA  
Tel.: 943 76 56 62

 IRURAK MARGOAK  
DISEINUAK, S.L.

Era guztiak lanak  
Moketa eta sintasola  
Iztuku esponjatura

Paper pintatuak  
Harea zorrotada  
Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara  
Telefona: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984  
Faxa: 943 76 09 32



GAZTELU  
BURDINKI DENDA

Mintegi 1 • Tel.: 943 76 32 48 / 943 76 34 50 • BERGARA

*Mujika*  
gozategia



Bizkotxoak  
Erreileenaoak  
Tostoiak

Artekalea 3 BERGARA  
943 76 10 34

JAIAK &gt; ARATUSTEEN ATARIAN

# Aratusteetako kartela, Mikel Calvorena

22 urteko gazteek irabazi du Udaleko Kultura Zerbitzuak deitutako kartel lehiaketa

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

Mikel Calvo 22 urteko gazteek irabazi du Udaleko Kultura Zerbitzuak antolatutako Aratusteetako kartel lehiaketa. Aurtengo denboraldian irabazten duen bigarren lehiaketa du Mikel Calvo; izan ere, film laburren lehiaketan ere lehen saria eraman zuen, joan den irailean, *Ebaki* izenburuko lanarekin (beste hiru film laburrekin batera Kafe tabernan ikusteko aukera izango da zapatuan, 23:00etan).

Zuri-beltzean ageri den arlekin batzen profila aukeratu du Calvo saritutako kartelean. Beste hiru lan aurkeztu ziren lehiaketara, eta epaimahaia Luis Abajok, Kultura zinegotziak, eta Beartek kide Luis Laskurain eta Rikardo Azkargorta margolariek osatu dute. Lehiaketa irabaztearen 300 euroko saria jaso du Mikel Calvo. Leioako Arte Ederretako fakultatean ari da, hirugarren mailan. Hark esan digunez, ez da bereziki Aratustezalea.



ARATUSTEAK Mikel Calvo egindako kartelak iragarri ditu aurtengo Aratusteak.

E.M.

**ARATUSTEETAKO EMALDI**

Pirritx eta Porrotzek otsailaren 17an egin beharreko bi emanaldiak sarrerak agortu egin dira astean. Udaleko Kultura Zerbitzuak aditzera eman due-

nez, emanaldien egunean bertan ez da sarrerarik salduko Udal Pilotalekuaren. Lehen emanaldia 16:30ean eta bigarrena 18:30ean izango da. Emanaldi bakoitzera 835 sarrera saldu dituzte.

Bestalde, Aratuste-domekan, neska-mutikoei zuzendutako *Xurdin kobazuloan galdurik* antzerki musikal eskainiko du Sointek taldeak Udal Pilotalekuaren, 17:30ean.



GOIENKARIA

## Aratusteetako kontzerturako sarrerak salgai

Udal Musika Bandak eta Orkestra Sinfonikoak Aratusteetako kontzertua eskainiko dute hurrengo egubakoitzean, hilaren 16an, Udal Pilotalekuaren, 22:30ean. Bandak ondoko piezak joko ditu: *Cielo andaluz, Marcha eslava* eta *Balkan dreams*. Orkestrak beste bi pieza joko ditu: *Spartacus* eta *Marcha hungara, nº5*. Azkenik, bi taldeek *Les gitans* joko dute elkarrekin. Kontzerturako sarrerak kultura etxearen eta Lazkano oinetako denden eskura daitezke, 5 euroen truke.

## &gt; ZINEMA

### 'Julietta, fokatxo xelebrea' haurrentzako filma emango dute asteburuan Agorrosin kirolgunean

*Julietta, fokatxo xelebrea* haurrentzako filma proiektatuko dute oraingo aste bukaeran Agorrosingo ekintza aretoan. Zapatuan eta domekan egongo da filma ikusteko aukera, 16:00etan eta 18:00etan. Sarrerak euro baten truke eskuratu ahal izango dira.

## &gt; PINTURA

### 'Juxe' argazkilariaren erakusketa Aroztegin eta Juanjo Altunaren margoak Eibarren ikusgai

Joxe Angel Areta *Juxe*-ren Amazoniako oihanetik pazifikora izenburuko argazki erakusketa ikusgai dago Aroztegiko aretoan, otsailaren 25era arte. Ekuadoren ateratako argazkiak dira.

Betalde, Juanjo Altuna Akizuk margo erakusketa jarri du Eibarko Arrate kultura elkartean (Zuloagatarren 3), otsailaren 18ra arte.

## &gt; BERTSOAK

### Andoni Egañarekin eta Xabi Payarekin bertso afaria bihar, zapatua, Artatse elkartean

Bihar, zapatua, bertso afaria izango da Artatse elkartean: Andoni Egaña Euskal Herriko txapelduna eta Bizkaiko txapela eskuratu berri duen Xabi Paya algortarra gonbidatu dituzte. Izenez-matea (20 euro) Arrano, Pol-Pol eta Kortazar tabernetan.

**ARRI**  
Industri hornidura  
*Latigilloak*

Telleria 2, BERGARA  
Tel.: 943 76 19 04  
Faxa: 943 76 43 03  
Sakelakoa: 656 78 64 84

### TOKI-ONA

Bodegoia-taberna

Egunerojan janariak  
Txitzizotzak  
Kazolatxoak  
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA  
Tel.: 943 76 39 53

### Jose M. Martin

pinturak - paper pintatuak  
sintasola - moketak - gotelea  
pintura industriala

Errekalde auzoa 5, 1.a ANTZUOLA  
Tel.: 943 76 62 02 /  
666 517 295



Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida



Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34

hemen □ bada  
**giro!**



Zatoz gure musikaz gozatzera

Mitarte 9 ARETXABALETA Tel: 943 79 92 01



**VALDEZATE**

Bokaiak eta  
platet-konbinatuak

Araba ibilbidea 5, behea - Tel: 943 25 07 40



**IOSU**

*taberna  
harategia*


Urdaitegia-gozotegia  
Kroasantegia  
Gertatutako janariak

Mitarte 1  
Tel.: 943 77 03 08



**EXPRESS TABERNA**

Santa kurtz 16 Aretxabaleta  
Tel.: 943 79 23 43



*Loteria primitiboak  
eta kinielak*

DORLETA TABERNA

Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA



**OTZETA JATETXEA**

Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67



**BASABE**

Menuak eta afariak

Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 07 94



**Gurea**  
TABERNA

Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64



**HIRUSTA JATETXEA**

Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57



Herriko plaza Aretxabaleta Tel.: 943 79 09 33



**ZARAIA**  
taberna

Goizeko 06:00etik irekita

Araba Ibilbidea 20 • ARETXABALETA  
Tel.: 943 79 88 95

hemen □ bada  
**giro!**



*Matikua jatetxea*

Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68

**FUTBOLA**

## Bergarak San Pedrotarrak hartuko du

**M.B.** > BERGARA  
Aurreko asteburuan Oriokoren aurka 2-0 galdu ostean, gogotsu dago datorrenari begira lehen erregional mai-lako Bergara futbol taldea. Zerrendaren beheko aldean dagoen San Pedrotarrak izango du bisitari, bihar, zapatua. 16:00etarako dago jarrita hitzordua Agorrosinen.

**BTLS, IGOERA FASEAN**  
Bestalde, bigarren erregional mailako BTLS taldeak igoera faseko lehenbiziko partidua jokatuko du zapatuan, 17:45ean. Urnieta taldea izango dute bisitari Ipintzan. Zortzi talde dira igoera fasean eta Urnieta dugu faborito nagusietako bat.

**TXIRRINDULARITZA**

## Zikloturisten baimenen azken txanpa

**M.B.** > BERGARA  
Denboraldi honetarako zikloturisten baimenak berritzeko abian jarritako kanpaina bihar bertan bukatuko da. Beraz, oraindik egiteke daukanari ordu gutxi batzuk baino ez zaizkio geratzen.

Esan beharra dago prezioa iazko bera izango dela: 92 euro, hain zuzen ere. Eta dirua Bergarako Txirrindulari Elkartearen kontu korrontean sartu eta gero, bankuan jasotako egiaztagiriarekin eta nortasun agiria-rekin batera i2 edo Biciprecision Igartua dendetara joan behar da.

Baimena lehen aldiz eskanzen duenak, berriz, esandakoaz gainera argazki bat era-man eta eskakizun orria beteko du bertan.



NAGUSIAK Jon Larrañagak (argazkian) eta Eneko Mugurutzak Illunpeko bikotea hartuko dute gaur.

XABIER URTZELAI

**PILOTA** > UDABERRI TXAPELKETAK AURRERA JARRAITZEN DU

## Pilota partiduak gaur eta bihar frontoian

Atsedenerako astirik ez da izango arratsaldetik aurrera Bergarako Udal Pilotalekuauan

**MIRIAN BITERI** > BERGARA

Gaur, egubakoitza, Bergarako Udaberri txapelketako partiduak izango dira Udal Pilotalekuauan, 19:00etan, benjamin eta alebin mailetan. Ondoren, Gipuzkoako Udaberri txapelketako nagusien partiduak izango dira: bigarren

mailan, Oier Aldai eta Beñat Iñarra Altzako bikotearen aurka ari-tuko dira; Eneko Mugurutza eta Jon Larrañagaren txanda iritsiko da ondoren: Illunpe 2 garai-

tzen saiatuko dira bergararrak; eta azkenik, Euskal Ligaren egi-tarauaren barruan, Ander Mugu-

rutzak eta Igor Gutierrezek ere duten guztia aterako dute gaur, garaile irten daitezkeela kontutan izanik. Adiskide taldeko bikotea izango dute aurrez aurre.

**ALEBINAK ETA INFANTILAK BIHAR**

Udaberri txapelketaz gain, esko-la arteko alebinak eta eskualdeko infantilen final-laurdenak ere izango dira zapatuan. 16:00etan hasiko dira partiduak.

**TXIRRINDULARITZA** > LOKATZAK BLOGA AURKEZTU DU

## Taldearen gorabeherak eta nazioarteko bira esanguratsuenak edonoren eskura daude

**M.B.** > BERGARA

Txirrindularitzaren gaineko berriak jakin nahi dituenak blog berria du esku-eskura: [www.gorostia.net/blogak/lokatza](http://www.gorostia.net/blogak/lokatza). Duela astebeteko pasatxo hasi zen martxan, eta bertan, Lokatza Ziklismo Eskolako gorabehera guz-

tiak eta txirrindularitzarekin zerikusia duten albiste esanguratsuak konsulta daitezke.

**HITZORDU NAGUSIAK**

Hain zuzen ere, denboraldian zehar taldeak izango dituen hitzordu nagusiak eta bertan

lortutako emaitzak ikusi ahal izango dira. Horrez gainera, inguruaren nahiz nazioartean ospea duten birei buruzko berriak jasoko dira. Era berean, iritziek ere tarte garrantzitsua izango dute Lokatzak abian jarri berri duen egitasmoan.

## Iabegaraieta

### EMAITZAK

Tiki-Taka - Irubide .....	5-3
Tortilleria Deba - Altosportos .....	4-18
K. Piperrak - Belengua .....	7-5
C.M. Errota-Gain - Irish Pub .....	8-1
Niu Tim - Teatekh .....	

### PARTIDUAK

Otsailak 11, domeka	Epaileak
10:00 Errota-Gain - K. Piperrak	Irubide
11:00 Irubide - Teatekh	C.M. Errota-Gain
12:00 Tiki-Taka - Belengua	Teatekh
16:30 T. Deba - Irish Pub	Niu Tim
17:30 Niu Tim - Altosportos	Irish Pub

### SAILKAPENA

	P	J
1. C.M. Errota-Gain .....	33	11
2. Niu Tim .....	30	11
3. Altosportos .....	24	11
4. Teatekh .....	21	11
5. Tiki-Taka .....	15	11
6. Irish Pub .....	9	11
7. Belengua .....	9	11
8. Irubide .....	9	11
9. Komando Piperrak .....	6	11
10. Tornilleria Deba .....	3	11
11. Azkenak .....	0	0

## Iker Rollanek eta Gorka Olmedok partidu bateko zigorra jaso dute

Bi jokalari izan ziren zigortuta aurreko jardunaldian: Niu Tim taldeko Iker Rollan eta Teatekh taldeko Gorka Olmedo jokalariak, hain zuzen ere. Partidu bateko zigorra ezarri diente biei, aurreko asteburuan txartel urdina jasotzeagatik.

Datorren jardunaldiari begira, aipatzeko da, bereziki, Niu Tim eta Altosportos taldeek jokatuko duten partidua. Lehenengoak sailkapeneko bigarren postuari eusten dio, 30 punturekin. Altosportos, berriz, postu bat beherago dago, baina puntu aldetik urrutia samar. Izan ere, sei puntuko tarte ateratzen dio Niu Tim-ek.

Iragan asteburuan ere bigarren eta hirugarren sailkatuen arteko norgehiagoka jokatu zen. Niu Tim-ek 5-4 irabazi zion Teatekh-i, eta azken horrek hirugarren postua galdu zuen. Altosportos taldearen onerako.



Ospa ezazu San Valentín gurekin!

Matxiategi 1 - BERGARA • Tel.: 943 76 07 47



bote prontuen

Laura Gallego > Ile-apaintzailea

## "Sormenetik asko du gure jardunak"

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Martxoan urtebete beteko da Laura Gallegok ahizparekin, Mariarekin, Laumar ile apaindegia zabaldu zuela. Gustura dago oso ile apaindegian. Azken batean, ilea apaintzeak artetik asko due-la uste du 24 urteko bergararrak.

Topikoa da ilea mozteko orduan guraizek ihes egiten dizueten uste hori?

Bai, topikoa da. Bezeroak eskatzen duen tamainan mozten dugu ilea, ez gehiago.

Orrazkera aldetik ausartak gara Bergaran ala nahiko tradizionalak?

Hala-hala. Adinaren arabera da hori. 40 edo 50 urteko emakumezkoak ausartagoak dira 20 urteko neska gazteak baino.

Ile apaintzaileen jarduna artea da?

Bai. Sormen lanetik asko du. Bestalde, psikologotik ere badu zerbait. Eguneko jardunean ikusten da hori. Pentsa, bezeroa orraztu berri eta makilatuta irteten denean autoestimuan ere nabaritzen du.

Ze ile mozketak da errazena eta zein zailena?



Errazenak mozketak informala dira. Zailenak, berriz, linea zuzendunak.

Zuk zer ez zenuke sekula ilean egingo?

Denetarik egin izan dut. Baino, bueno, burua ez nuke sekula kaskamotz eroango eta ezta rastak jarri ere.

Eta zer da egunen baten egin nahiko zenukeena?

Ile oso luzearekin, ipurdirainoko ilearekin datorren bezero batitxura erabat aldatzea. Halako gutxi dago, baina, Bergaran.

Ondo orraztuta joaten den pertsonaia famatu bat eta gustatzen ez zaizun beste bat.

Ondo orraztutakoa Victoria Beckham eta batere gustatzen ez zaidana Albako dukesa.

Topikoa da ile apaindegietan asko kuxkuzeatzen dela?

Kuxkuxeo sanoa izaten da. Aldizkarieko pertsonaien gainean.

bere ustez



Unai Lopez

Lurraren osasunaz jabetzen?

Otsailak 2, Paris. Aldaketa klimatikoan adituak diren mundu osoko ehunka ikertzailek adosturako txostena aurkeztu zuten, munduaren gaurko eta biharko egoera klimatikoaren gainean jarduten dena, alegia. Aurrez genkien bezala, ikuspegi latza.

Bezperan, hiriburu eta herri ezberdinietan bateraturako salaketa ekinza burutzera gonbidatua zegoen europar gizartea, argiak itzaliz politikarien kontzientziak piztea helburutzat zuena. Politikarienak soilik?

**"Gaurko bizimodu aurreratu hau ingurumenaren babesarekin bateraezina da"**

Jakina da bai soilik politikarien esku dagoela baliabideen kontsumoa edo hondakinen sorrera mugatuko lukeen lege-dia garatzeko ahalmena, ados, baina gai honetan guztiok, politikariak barne, dugu zer esan. Ea behingoz jabetzen garen gaurko bizimodu *aurreratu* hau gure ingurumenaren babesarekin bateraezina dela, ez erritmo honetan behintzat.

Bost minutuko ilunaldi horrek Madrileko M-30eko ohiko auto-hilera batean harrapatu ninduen, kaotikoa. Ez aurrera eta ezta atzera ere, auto, ke eta humore txar artean ia ordu betez geldi. Hango hura gure kontzientzia ekologikoaren islara bada edo munduaren norabidea zuzentzeko lema berriaren adibide, gureak eta gure ondorengoenak egin du.

Aranzadi ikastolako 2. DBHko ikasleak elurretan izan dira Panticosan




ARANZADI IKASTOLA

Aranzadi ikastolako 2. DBHko ikasleak elurretan izan dira Panticosan

Aranzadi ikastolako 2. DBHko ikasleak Jakan izan dira duela pare bat aste. Eskiatzerajoi zirela kontatu digute, eta baita han igorotako egunen narrazioia egin ere. Oso ondo pasatu dutela argi geratu zaigu hiae entzunda, batik bat, Panticosako pistetara igo eta ikasleeta-

ko batzuek eskiak oinetan jantzi eta egindako kome-riezin. Eskerrak eski-irakasleak ere bazitzen, bestela... Eskiatzeaz gainera, Jaka ezagutzeko aukera ere izan zuten ikasleek. Horrekin guztiarekin, berriz bueltatzeko moduko irteera egin dutela, seguru.

**ZABALA**  
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14  
BERGARA.  
Tel.: 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az gerotzik zure zerbitzura

**ARANE**  
KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.  
BERGARA  
Tel.: 943 76 74 09  
670 483 903

**JOXAN**  
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

**OSOKO BILKURA** > ZAHARREN EGOITZA BERRIA

# Ez zuten onartu zaharren egoitza egiteko lurren izendapena aldatzea

Iñaki de Juanaren aldeko mozioa onartu zuten aho batez

Aralarrek egoitzaren inguruko informazioirik eza salatu du, eta EAJk aukera aprobetxatu behar dela dio

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABAleta Ezohiko osoko bilkura egin zuten astelehenean, eta Iñaki de Juanaren aldeko mozioa aurkeztu zuten, zera esatzeko: euskal preso politiko eta bereziki De Juanaren aukako zigor politika bertan behera uztea; gaixotasun larri eta sendaezinak dituztenen eta zigorrenaren 2/3 beteta dutenen askatasuna; eta presoen eskubideak errespetatzea eta konponbide prozesuan parte hartzea. Aho batez onartu zuten mozioa Aralar eta EAJko kideek.



OSOKO BILKURA Aralarko hiru zinegotziak eta EAJko bostak astelehenean egindako ezohiko osoko bilkuran.

na Aralar aurka azaldu zen. Salatu zuen egoitza berriaren gaineko informaziorik ez zutela ez gainera-ko alderdiek, ez oraingo egoitzako langileek: "Hasieran emandako datuak besterik ez dugu, eta Urats Gain egoitzaren fundazioa ez da elkartu azken urtean", esan zuen Xabier Sarasuak. Alkateak argitu zion Udalak jaso duen informazio guztia eman duela. Sarasuaren erantzuna izan zen, hain argibide gutxi izanda, oraingo langileekin zer gertatuko den jakin barik, aurre-rra egitea ez dela zuzena. EAJko Jesus Mari Herrastik zera bota zuen orduan: "Egoitza beharrezkoa da herrian? Bada, orain daukagu auke-rra egiteko, eta nahiko da hori". Men-dekotasundunen ardura Aldundiak izan arren, Udalak erantzukizun handia duela aipatu zuen Sarasuak, eta irizpide batzuk ezarri beharko lituzkeela. Bozketa egindakoan Ara-larkoek ezetza eman zuten, eta gaia onartzeko gehiengo osoa behar zenez, atzera bota zuten. Orain, gainerako alderdiekin elkartzeko asmoa dauka EAJk, eta adostasuna lortu gura du onartu ahal izateko.

**ZAHARREN EGOITZA EZTABADAGAI**  
Osoko bilkurako eztabaidea, berriz, zaharren egoitzak eragin zuen. Mendekotasuna duten nagusienda-ko zaharren egoitza egin gura du

Aldundiak, eskualderako. Aretxa-baletako Udalarekin berba egin, eta Untzillarako bidean-Egilleor base-rri azpian- egitea zehaztu zuten. Nekazaritza izendapena daukate

lurroak, eta orain dela sei hilabete inguru hiri-lur bilakatzeko pausoak ematen hasi zen Udal. Astelehenean, behin-behinekoz onartzea zuten helburu EAJko kideek, bai-

## INFORMAZIO BILERAK:

Otsailaren 15ean euskeraz 18:00etan  
eta gaztelaniaz 19:00etan.

## KURTZEBARRI ESKOLA

2-12 urte bitartekoentzat



**INFORMAZIO BILERAK:**  
Otsailaren 21ean 18:00etan

## KURTZEBARRI BHI

12-16 urte bitartekoentzat

### MATRIKULA EPEA ZABALIK:

otsailaren 26tik martxoaren 6ra arte, egunero, 18:00ak arte



Telefona / Faxa: 943 79 00 49  
e-maila: kurtzebarrieskola@euskalnet.net

**Egutegi eta ordutegi zabala ( uztaila... )**  
**Goizeko eta arratsaldeko zaintzak.**

**goieskola**

debagoieneke euskal  
eskola publikoa



- Ikasten ikasteko,
  - Egiten ikasteko,
  - Elkarrekin bizitzen ikasteko,
  - Norbera izaten ikasteko,
- Zatoz Gurera!**

... Euskara eta Euskal kulturaren jabekuntza eta bizi-pena bide, Mundura begira.



Telefona / Faxa: 943 79 57 40  
e-maila: 012945aa@hezkuntza.net



Gipuzkoako Ikasleen  
Gurasoen Federazioa

Iaz baino bi milioi gehiago zehaztu dituzte, eta erdia inbertsioak egiteko da

Otalora kaleko lanak bukatzeko eta Mitarte eta Herriko Plazako saneamendu lanentzat dirutza gorde dute

Aralarrek ezetza eman zion, "adostasuna bilatzeko ahaleginik ez delako egon"

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Astelehenean onartu zuen udalbatzarrak 2007ko udal aurrekontua. Aralarko hiru zinegotziak eta EAJ-EAk bost kide besterik ez ziren egon, eta azken haien aldeko botoekin onartu zuten.

**ERDIA INBERTSIOAK EGITEKO**  
Iaz baino bi milioi gehiago onartu dituzte, eta udal aurrekontu osoa 14.233.975 euro da. Arritxu Oliden alkatearen esanetan, diru sarrera potoloak egon direlako hazi da hainbeste aurrekontua. Eta erdia inguru inbertsioak egiteko izango da: "Otalora kaleko lanak aurten bukatuko ditugu, eta herria biziberritzenten jarraitu gura dugu kalitatezko espazio publikoak izateko. Hala, Herriko Plazako saneamendu lanak egingo dira, eta, bide batez, eraberritzea dugu helburu herritarren topagune bihurtzeko. Mitarte kalean ere saneamendu lanak hasiko ditugu, eta kulturarako eraikina hornitzeko milioi bat euro inguru gorde ditugu", azaldu digu alkateak.

**ALARARREK EZETZA**  
Aralar alderdia, ostera, ez zen ados azaldu aurkeztutako aurrekontuarekin, eta ezetza eman zion. Hori arrazoitzeko hainbat puntu aipatu zituzten: porlanaren politika bultzatzen dabiltzala lanak eta lanak eginez aurreikuspen barik; gastu soziala ez dela aurrekontuen proportzioan igo; eta kulturarako eraikina egin arren ez dutela zehaztu ekintzak zela bideratu. Gainera, inbertsio batzuekin ez ziren ados azaldu: Pausoka haur eskolaren eraikina errentan hartzea hilean sei mila euroren truke, iaz erostea

**EKONOMIA > UDAL AURREKONTUA ONARTUTA**

# 14 milioi eurotik gorako udal aurrekontua onartu du EAJ-EAk



MITARTE KALEA Herritarra joan-etorrian Mitarte kalean, astelehen goizean; aurten, saneamendu lanak hasiko dituzte.

M.A.

## 2007ko udal aurrekontua

### Aurrekontua batzordeka

Hirigintza	4.366.636 €
Lehendakaritza	2.857.296 €
Zerbitzuak	1.883.119 €
Ongizatea	774.038 €
Kultura	1.455.291 €
Kirolak	336.217 €
Euskara	275.361 €
Baserri-autoak	751.428 €
Ogasuna	246.562 €
Ingurumena	377.453 €
Gazteria	93.701 €
Udalzaingoa	33.670 €

### Inbertsio aipagarrienak

Otalora, Mitarte eta plazako saneamendua	2.489.577 €
Kulturarako eraikinaren ekipamendua	1.140.617 €
Lursailak erostea	600.000 €
Kirol etxe berriaren proiektua	450.000 €
Otalora jauregitik Aozaratza pasealeku	400.000 €
Futbol zelaiko belarra aldatzea	350.000 €

### Aurrekontu osoa

Udal aurrekontua	13.799.105 €
Urats Gain zaharren egoitza	698.556 €
Aretxabaletako Bihargintza SA	110.515 €

aurreikusi zenean; kirol etxe berriaren proiektua egiten dirutza gastatzea hauteskunde ostean osatuko den udalbatzarrak jarraipena egingo dion jakin barik; eta Ugasteira doan bidean porlana botatzea. Sarasua zinegotziak aipatu zuen udal kudeaketan parte hartzerik ez dagoenean eta informazio falta denean nagusi, adostasunera ezin dela iritsi: "Iazko aurrekontuetan gure proposamenak sartu ziren, baina ondoren ikusi dugu asko eta asko ez direla bete. Hortaz, zertarako?", gaineratu zuen. Alkateak erantzun zien bilera egingo dutela kontuak argitzeko.

**M**obiliario  
**A**RENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07  
ARETXABAleta

**JON DÍAZ**  
**Harakina**

Loramendi 1  
Tel.: 943 79 71 69  
20550 ARETXABAleta

**P**IE  
**SUNZUE s.a.**

## FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak  
Ongarriak- Haziak

Mitarte 7 behea  
ARETXABAleta  
Tel. 943 77 00 33/79 42 56



UMEAK Ama bi hainbat ume inguruan dituztela, eguzaten arratsaldean, Mitarte kalean.

## PRESOAK &gt; EKITALDIAK

## Argazkia aterako dute bihar, Zuhaitz Errasti eta Kepa Urraren eguna delako

Otsailaren 17 eta 18rako hainbat ekitaldi antolatu dituzte: mendi ibilaldia, ekitaldia, luntxa eta kalejira

na inguruan. Ondoren, 15:30ean, autobusa aterako da Azbe lantegi pareti Donostiarra, *Euskal gazteria aurrera!* lelopean egingo duten manifestazioa joateko. Izena, baina, aurrez eman beharra dago Urbaltz tabernan.

## MENDI IBILALDIA ETA KALEJIRA

Otsailaren 17rako, ostera, Errasti eta Urraren urtebetetzea ospatzeko dei egin diete herritarrei, eta hainbat ekitaldi antolatu dituzte. 09:00etan, Azbe lantegi parean elkartu, eta mendi ibilaldia egingo dute. Eguerdi parterako itzuli, eta 13:00etan, ekitaldia egongo da Mitarte kalean, eta horren ostean, antolatzaileek luntxa emanago diete hurreratutako guztie, Urbaltz elkartean.

Eta hurrengo egunean, Aratuste-domeka, amnistia-ren aldeko kalejira egingo dute 17:30ean, kirol etxetik irienda. Hain zuzen, orduantxe bukatuko da Aratusteetako herri baziaria kirol etxeen, eta urte batzuetan egindako moduan, jai giroa izango da nagusi aldarrikapenarekin batera.

## ARGAZKIA ETA MANIFESTAZIOA

Otsailaren 13an da, hain zuzen, Urraren eguna, eta azken urteotako ohiturari jarraituz argazkia ateratzeko elkartuko dira hainbat herritar bihar, zapatua. 15:00etan da hitzordua Mitarte plazako Urbaltz taber-

## &gt; EUSKARA

## Helduendako ikuskizuna egingo du Txan magoak hilaren 16an, egubakoitza, 22:00etan

Txan magoak helduendako ikuskizuna ekarriko du Loramendi Euskara Elkartea gonbidatuta. Otsailaren 16an, egubakoitza, izango da ekitaldia, 22:00etan, Kurtzebarri eskolako aretoan. Umeak aho zabalik uzten dituen magoak helduen arreta eskuratu eta harri-dura pizteko egingo du lan oraingoan.

Bestalde, urtarrilaren 22an hasteko zen masaje txinatarren gainekeo ikastaroa datorren astelihenean hasiko dute. Taldea dagoeneko osatu da, eta Maitena Arana arrasatearrak txinatar zientziaren gorabeherak eta sihatsuaren gainekeo kontuak irakatsiko dizkie hainbat astelihenetan.

## LAGUNTZAK &gt; FAMILIA UGARIAK

## Irizpideak ezarriko dituzte kirol etxeko tasa murritzeko

Kirol etxeko tasaren erdia ordaintzen zuten auren arte herriko familia ugariet; orain, baina, irizpideak ezartzeko eskatu dio Gobernu batzordeak Ongizate Sailari

## MIRARI ALTUBE &gt; ARETXABAleta

Herriko familia ugariet kirol etxeko tasaren erdia ordaintzen zuten auren arte. Orain, baina, dirulaguntza zuzenean eman beharrean irizpideak ezartzeara erabaki du Udalak, eta diru sarrek hartuko ditu kontuan.

## BOST FAMILIA IZATETIK 32RA

Orain dela zappi urte hasi ziren kirol etxeko tasa erdira murritzen familia ugariei. Orduan bost familiak jaso zuten laguntza, eta gaur 32ri dagokie. Iaz arte kirol etxeko tasa osoa ordaintzen zuten aipatutako familiek urte hasieran, eta ondoren udaletxetik pasatu behar zuten ordaindutakoaren erdia jasotzen.

Aurten, baina, Gobernu batzordeak erabaki du erdia zuzean itzuli beharrean irizpideak ezartzeara zeini eta zenbat itzuli erabakitzeko: "Lehengo sistema ez zitzaidan iruditen bidezkoa, familia ugaria izateagatik bakanrik dirua itzultzea. Orain diru sarreren arabera mailak egitea da gure asmoa, eta horren arabera itzuli", azaldu digu alkateak.

Ongizate Sailari eman diote irizpideak ezartzeko ardura, baina hari ez zaio bidezkoa iruditu proposatutakoa; eta hala jakinarazi zion Gobernu batzordeari. Hala ere, alkateak aipatu zigun Ongizate Sailak bete egin beharko duela hartutako erabakia.

## LAGUNTA GUTXII

Hainbat familia ugari, baina, ez daude ados hartutako erabakirrekin, eta jakinarazi digute oso laguntza gutxi ematen dituela Aretxabaletako Udalak, "dauzakunak ere kentzen hasteko". Tasa horrekin batera ondasun higiezinaren gaineko zerga murritzeko aukera dago, baina urteko sarrerak 24 mila eurotik azpikoa izan behar du. Iaz hiru familiak bakarrik jaso zuten murritzeta.

> ERRETIRATUAK  
**Mahai-joko txapelketa antolatu dute erretiratuek**

Urtero bezala, mahai-joko txapelketa antolatu du Basotxo erretiratuen elkartea. Hain zuzen ere, briskan, musean, tutean eta dominioan jarduteko aukera izango dute elkarteko bazkide diren guziek. Horretarako, baina, aurrez izena eman behar dute jokalariek Basotxo elkartean bertan.

Txapelketa noiz hasiko den ez dute zehaztu; izan ere, lehenengo taldeak osatu gura dituzte, hau da, gutxienez lau bikote joko bakoitzerako. Lasai egoteko diote antolatzaileek, taldeok osatutakoan behar bezala emango dutela-ko aditzera hasiera data.

## Gaur bukatuko dute Antzerki Astea Kurtzebarri eskolan

Antzerkiak, txotxongiloak, ipuin kontaketa, dantzak, bertsoak eta beste hainbat ekitaldi egin dituzte aste guztiak Kurtzebarri eskolako Lehen Hezkuntzako ikasleek. Azken urteotan antolatzen duten astea da, eta neska-mutikoak eurak izan dira protagonista, gainerako ikaskideen eta guraso-en aurrean egin dituzte-eta ekitaldiok.



M.A.

bere ustez



Irati Pagoaga

Atzera-  
aurrera,  
noraezien

Kontu pare bat gure nittuke komentetie hamen. Alde batetik, gehixenok entzungo geuen 67 urteko andrie (atsue?) ama izen dala, bi ume erdittu dittuela. Hau entzun neuenien galderaz josi jaten burue: ama edo amandrie egin da? Bixed batera, bi baten? Eta hau txalotu egiten daue? Holako hamaika itaun etorten jaten burure. Hau ei da zientzian aurrerapena: segittuen umezurtz geratu leikezen ume batzuk munduraketa. Nork zainketako? Umezurzegixan bukaketako? Holako adibidiek

**"Epaiketia hasi  
zanien ikusi zan  
zelako fartsa zan, ze  
montaje eta nora  
bideratu gure euien"**

takien takien agerketan dabitz eta nora goiez? Solorik solo, galduete gaz, atzera-aurrera.

Bestetik, gazte erakundien aurka urten dan epaixe salatu gureko nauke. Barriro be iku si da borondatze zein dan. Gaztiekin daukien proiektuek gera tu eta hamen dauen lanerako gogue itxungi. Zoritzarrez ez daue lortuko. Ez gara itsu, mutu eta gor geratuko holako injus tizien aurrien. Epaiketia hasi zanien ikusi zan zelako fartsa zan, ze montaje eta nora bideratu gure euien. Luze jo dauen kontu honek azkenien be ez dau akabera onik eduki. Bi urtez kalien egon dien gaztiekin barri ro be zulo baltzien bukatu daue. Holakuek barriro gertau ez daitzezen zapatuen Donostiarra fatera animetan dot jentie. Aka betako, agur bero bat Amaia eta gainontzeko danei, animo!

> GAZTEAK

**Aratusteetan zela gertatu jakiteko makillaje  
ikastaroa jasoko dute gaztelekuko kideek, bihar**

Bihar, zapatua, Aratuste egunean zela eman azken ukituak mozo rroari erakutsiko diete Atxagazte gaztelekuko kideei. Hala, zela maki llatu eta orraztu ikastaroa jasoko dute, 16:30etik aurrera.

Hilaren 16 eta 17an, ostera, eskaiolazko maskarak egin eta mar gotzea aurreikusi dute arduradunek. Hala ere, gazteen esku dago beti zein jarduera egin erabakitzea, eta mahai-jokoetan edo futbolinarekin jolas egin edo film bat ikusi gura izanez gero halaxe egin go dute.

Otsailaren 23 eta 24an eskiatzeria joateko asmoa daukate, elurrik balego behintzat. Candanchura joango dira 60 euroren truke. Izena aurrez eman behar da gaztelekuuan, eta argibide gehiago gura izanez gero bertan galdetu.

JAIA > ARATUSTEAK

# Aratuste-domekako bazkarirako txartelak salgai daude, 500 inguru

Herriko zortzi tabernatan eta kultura etxeen eros daitezke, 15 euroren truke

Loramendi Euskara Elkarteak mozorro lehiaketa antolatu du tabernendako; euskal jokoak izango dute gai

**MIRARI ALTUBE > ARETXABAleta**  
Aratusteak gainean ditugu. Hamar egun eskas gelditzen zaie koadrila eta gainerako herritarrei mozorroak gertatzeko. Bestalde, Kultura Sailak gertu dauka Aratuste-domekarako egitaraua, eta laster emango du horren berri.



ARATUSTEAK Giro ezin hobea sortuko da koadrilen eskutik.

go dute, eta San Kanuto antolatzan duen taldeari eman dio ardua Udalak. Kirol etxeen izango da bazkaria, eta txartelak dagoeneko salgai daude kultura etxeen eta honako tabernetan: Azkena, Dorleta, Urbaltz, Aretz, Arlutz, Ezkutu, Orly eta Amets. Hain zuzen ere, 15 euroren truke hau xe emango dute: patatak errioxar erara, txahal-erredondo saltsan, hojaldrezko tarta eta kafea. 500 bat txartel atera dituzte, iaz baino gehiago, baina lehenbailehen erostea komeni da.

## TABERNAK MOZORROTZEKO

Bestalde, Loramendi Euskara Elkarteak mozorro lehiaketa antolatu du tabernendako. Antolatzan duten hirugarren urtea da, eta mozorrotzeko gaia euskal jokoak izango dute tabernariekin. Parte-hartzaile guztieie afaria emango die gero Loramendi EEk.

argazki zaharra

## 1944ko kintoak ere Santa eskean

Eskean eta dantzan jardun dute Santa Ageda mutilek, eta lehen ere halaxe zen. Hona 1944ko kintoak: Javier Urreta, Aiatzui Aramaioko txistularia, Angel Elkoro, Xabier Zubizarreta, Juan Mari Errasti, Bernardo Luengo, Jose Ignacio Bengoa, Jose Angel Olazabal eta Angel Urtzelai. Azpian: Benito Kortabarria, Angel Barandiaran, Jose Luis Elkoro, Ramon Mari Elkoro eta Javier Urtzelai.

Argazkia: Felisa Elkoro.  
Testua: F. Elkoro eta J.R. Arantzabal.  
Urtea: 1944.



## BURTSAN INBERTITU, DIRURIK GALTZEKO ARRISKU BARIK

### FOND MAPFRE 703 BERMATUA FONDO BERMATU BERRIA

- SEGURTASUNA %100
- ERRENTAGARRITASUN BERMEA %135

Errekabarren 3 ARETXABAleta  
Tel.: 943 77 11 76 / Fax: 943 71 17 34 Posta-e: angelzubi@euskalnet.net

UMEAK PROTAGONISTA Herriko umeak kalera irteten dira *ziria* eskuan eta Urdelardero Eguneo kantua abesten.

GOIENKARIA

**ARATUSTEAK > URDELARDERO EGUNA**

## 'Ziria' eskuan, Urdelardero antzinako usadioari eutsiko diote

Urdelardero Egunaren jatorriaren gaineko datu zehatzik ez dago; gaur egun Eskoriatzan bakarrik ospatzen dute

**IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA**  
Egunean, hilaren 15ean, Urdelardero Eguna ospatuko dute herrian, antzinako tradizio bat jarraituta. Goizean ikastetxe guztietako umeak kalera irtengo dira eta kalejira egingo dute, Aratuseei hasiera emateko.

11:30ak aldera, kalejira bukatu bezain laster, txistorra banatuko dute herriko plazan, gertu-

ratutako ume, guraso eta bestelako herritar guztiek indarberritzeko.

Arratsaldean, berriz, ekitaldi gehiago izango dira. 17:00etan, hain zuen ere, Patxin eta Potxin pailazoien ikuskizuna izango da herriko plazan. Udaleko Kultura Zerbitzuko arduradunek jakinarazi digute eguraldi txarra eginenez gero, ikuskizuna pilotale-

kuan egingo dutela. Horren ostean, txokolate-jana egingo dute. Antolatzaileek jakinarazitakoaren arabera, bakoitzak edalontzia eraman beharko du.

**ANTZINAKO JATORRIA**

Urdelardero Eguna ospatzeko ohitura antzinakoa da. Udaleko Kultura Zerbitzuko arduradunek ez dute jai horren sorrera-

ren datu zehatzik. Horregatik, herriko antzinako kontuak ondo gogoratzen dituen Marixu Alegriarengana jo dugu.

Alegriak esan digu gaur egun 77 urte dituela, eta hura umea zenean ere ospatzen zutela Urdelardero Eguna. Badaki, baita ere, hura baino urte gehiago dituztenek ere jai hori ospatzen zutela. Alegriak kontatu digu haurtzaroan ez zirela kalez kale ibiltzen; auzoko lagunen etxera jotzen zutela: "Gaztainak, intxaurrak eta bestelakoak ematen zizkgutten, eta lagunen baten etxean merienda egiten genuen jasotakoarekin".

**LATINETIK DATORREN HITZA**

Alegriak ondo gogoratzen du egun horretako kantua: *Urde lardero / urdeixa janda / Bazkaixa gero / hor goixen iturri bat / haren gaiñien txori bat / ura pil-pil etorri da / Etxekoandre zabala / etxe oneko alaba!* Eta umeek halaxe abestuko dute egunean.

*Lardero* hitzak latinezko *lardum* eta *lardium* hitzetan du jatorria. Hitz horrekin erromatarrek urdaia eta txerri-manteka izendatzen zituzten.

**'ZIRIA' ESKUAN DUTELA**

Aratusteei hasiera emateko, Eskoriatzan antzinatik Ostegun Gizen egunean Urdelardero Eguna ospatzen da. Herriko umeak baserritar jantzita kalez kale ibiltzen dira abesten. Horrez gain, eguneko berezitasun nagusia izaten da umeek eskuan eramatzen duten *ziria* izeneko makilatxoa. Makilatxo horretan sartuta, txorizoa, ogi zatia, sagarra eta beste eramatzen dute.

Maritxu Alegriaren sasoian herriko umeek Urdelardero Eguna aurrera astebete jai izaten zuten. Hala abesten zuten, hain zuen ere: *Jueves gordo, viernes flaco, sábado regular, domingo carnaval, martes carnaval, miércoles ceniza eta jueves a estudiar*.

Gaur egun, berriz, hilaren 21ean, Hausterre Egunean, bakanrik ematen diete herriko umei jai eskoletan; eta ez dute orduan bezala astebete jai izaten.

**AZPIEGITURAK > ABIADURA HANDIKO TRENA**

## Abiadura Handiko Trenaren eragina ikusteko ibilaldia

Domekan mendi ibilaldia egingo dute AHTk non eragingo duen ikusteko

rrian kaltetuko dituen inguru-neak bisitatuko dituzte, eta antolatzaileek jakinarazi digute hiruzpalau orduko ibilaldia izango dela. Are gehiago, antolatzaileek gomendatu dute ibilaldia egin behar dutenek linternak eramateko.

Ibilaldi horren helburua da AHTk eragingo dituen kalteen gainean herritarra kontzientziatzea. Lanen esleipena dela-eta, AHT Gelditu Elkarlanak eta beste talde batzuk hainbat ekinmen bultzatzen dabilta lanak geldiarazteko.

**I.B. > ESKORIATZA**

Etzirako, domeka, mendi ibilaldia deitu dute Eskoriatzan. AHT Gelditu Elkarlanak antolatu du ekinmen hori, eta ibilaldira joateko 09:00etarako egin dute hitzordua herriko plazan. Abiadura Handiko Trenak udale-

**JAIAK > KINTOAK SANTA AGEDAN**

## Neskek esku hartu dute lehenengo aldiz Santa Agedako kintoen ekimenean

Asteburuan Santa Ageda eskean ibili ostan, dantza egin zuten herriko plazan

Joan den domekan herriko kintoak baserriz baserri ibili ziren Santa Agueda eskean eta Santa Agedaren omenezko koplak abesten, urteroko ohiturari eutsita. Horren ostan, astelehe-nean herrigunean ibili ziren koplaka, eta iluntzean herriko



DANTZAN Herriko plazan.

plazan dantza egin zuten jendarrerean. Urtero moduan, jende ugari batu zen herriko plazan herriko gazteen dantza eta desafioa ikustera.

Aurtengo berrikuntza nagusia izan da lehenengo aldiz neskek ere esku hartu dutela kintoen ospakizunean.

Ohiturak agintzen duen moduan, etzi, domeka, herriko kintoek berriro egingo dute dantza herriko plazan. 19:00etarako dute hitzordua. Ekinmen horrekin bukatuko dituzte Santa Agueda inguruko ospakizunak.

Carlos Mô > Klowna

# "Guztiok daramagu kloon bat barruan, eta apur bat zabaldu ahala, hazi egiten da"

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA

Gaur, egubakoitza, Bartzelonako Carlos Mô kloonak *Mal parto me raya (me atormenta a una vecina)* umore ikuskizuna egingo du HUHE-Ziloko aretoan, 22:30ean. Mokoso sari garrantzitsua jaso ditu hainbat lehiaketatan.

Aktorea, kloon eta pedagogoa zara. Zer ordenatan? Eta noiz erabaki zenuen interpretazioa egitea?

Batez ere kloon naiz. Interpretazioa ikasten motibazio handi barik hasi nintzen. Hori ikasten nenhilela, kloon ikastaro baten izena eman nuen eta era bat harrapatu ninduen. Ordutik hona ez diot utzi kloon alorra lantzeari. Sormena eta nire eroke-riak garatzeko aukera paregabea ematen dit. 2000. urtean igo nintzen lehenengo aldiagerto-ki batera kloon egitera eta ordutik hona ez dut etenaldirik egin.

**Leo Bassi, Virginia Imaz eta beste irakasle ezagun batzuk izan dituzu. Zer ikasi duzu?**

Gaua asko. Eurek irakatsi didate dakidana: irakasle bakotzak gauza bat. Leo Bassik, esaterako, agertoki gainean zelan egon eta ziurtasuna edukitzen irakatsi zidan, nork bere ikuskizunean sinistea, agertoki gainean eta baita behean ere. Virginia Imazek, berri, kloon maitakorrera izaten irakatsi zidan. Bi irakaspen horiek oso garrantzitsuak dira. Guztiok daramagu kloon bat barruan, eta apur bat zabaldu ahala, hazi egiten da.

**Bakarka ibili aurretik, beste talde batzuetan ibili zara?**

Bai. Antzerki klasikoan lan egin dut, baita antzerki experimentallean ere. Bartzelonako Match taldean asko esperimentatu genuen. Horren ostean, Mohausen kloon taldean lanean hasi nintzen, eta hainbat ikuskizun egin genituen. Oraindik ere tarteka egiten ditugu ikuskizun batzuk.



Carlos Môk mimoa, kloon eta musika batuko ditu ikuskizuneari.

CARLOS MÔ

**"Ondo egindako umore guztiak adimentsuak direla uste dut; nik hitz jokoak egiten ditut"**

**"Kasualitate baten ondorioz hasi nintzen bakarrik lanean eta ordutik hona ari naiz"**

Eta zelan hasi zinen bakarrik lanean?

Kasualitate baten ondorioz. Mohausen kloon taldearen ikuskizun baten, taldeko kide batek huts egin zuen, eta agertokian zerbait inprobisatu behar izan nuen. Jendeak oso ondo erantzun zuen, eta izen bat bilatu behar izan nuen ikuskizun gehiago egiteko. Mohausen Mo aurrikia hartu eta hala bataiatu nuen nire burua. Ordutik hona hala jarraitzen dut.

**Umore adimentsua egiten duzula esaten dute. Baino zer da umore adimentsua, zure ustez?**

Ez dakit. Umore adimentsua, absurdua eta surrealista egiten dudala diote. Nik ez dut uste halako denik, nik neurea egiten dut. Txiste korapilatsuak, hitz jokoak eta bestelakoak egiten ditut. Ondo egindako umore guztiak adimentsuak direla uste dut. Bestalde, nik txorakeria asko egiten eta esaten ditut; niri ez zait absurdoa iruditzen.

**Eskoriatzara ekarriko duzun ikuskizunak bi urte pasatxo egin ditu Bartzelonako antzoki baten. Zein da sekretua?**

Bai, oso pozik gaude. Nire zuzendariak dio ikusleek oso ondo hartzen nautela, eta edozein xelebrekeria ontzat hartzen dute-la, guztia barkatzen didatela. Gurea ping-pongaren modukoa da. Nik emandakoa hartzen badute, ni horrek elikatzen nau.

> BERBALDIA

## Ahotsak emakumeen plataformak berbaldia egingo du Ibarraundi museoan eguztenean

Ahotsak-ek, ideologia askotako Euskal Herriko emakumeek osatutako plataformak, berbaldia egingo du eguztenean, hilaren 14an, Ibarraundi museoan. Berbaldi-aurkezpen hori 19:00etan egingo dute, eta Aitzorrotz elkartea antolatu du.

Ahotsak oso ezaguna egin da, gatazka politikoa konpondu eta bakea lortzeko bide elkarrizketatuaren alde sinistu eta lan egiten duelako. Are gehiago, lehenengo pauso politikagintzan eta beste alor batzuetan lan egiten duten hainbat emakumezko ezaunek eman zuten. Horren ostean, milaka batzuek eman diote babesera ekimenari, eta zenbakia uneoro handitzen doa. Ideologia anitzasuna da haren ezaugarri nagusia.

KIROLA > KIROL IKASTAROAK

## Kirol ikastaroetako batzuk hasita, eta besteak osatzear

Kirol ikastaroetan izena emateko aukera dago oraindik; eskaintza handia da

I.B.> ESKORIATZA

Dagoeneko hasi dira kirolegian hainbat ikastaro ematen. Aretxabaletako Goienasport enpresak hartu du ardura hori eta eskaintza zabala osatu du. Hainbat lagunek eman dute izena eta arratsaldeetako hainbat ikastarotako taldeak osatuta daude.

Goizetan, beriz, ez dute taldeek osatu oraindik. Goizetarako aukera zabala dago hitzartuta: sasoian egoteko gimnasia, tonifikazioa, stretch-pilates, spinning eta batuka, hain zuzen.

Arratsaldeetarako, beriz, eskaera handiagoa da. Indarre-

an daude hirugarren adineko gimnasia, sasoian egoteko gimnasia eta batuka.

**TALDE GEHIAGO OSATZEN**

Horrez gain, arratsaldeetarako talde gehiago osatzen dabilta. Hain zuzen ere, Atzegikoak laster hasteko dira, baita multifitnesskoak ere. Stretch-pilatesari dagokionez, sei bat lagunek eman dute izena. Goienasport enpresakoak eta Udalekoak bai-kor dira jende gehiagok izena emango duelako.

**IZENA EMATEKO AUKERAK**

Interesatuek kirolegira jo dezakete izena ematera goizez zein arratsaldez. Oraindik badute hori egoteko aukera. Bestalde, datorren astean kirol zerbitzuaren gaineko hiruorriko banatuko dute udalerriko etxe guztietai.



SPINNING ARRAKASTATSUENA Spinning eskola ematen.

IKER BARANDIARAN



**ILE APAINDEGIA**

**APAINDU**

San Juan kalea 12c behea  
ESKORIATZA

**Tel.: 943 08 26 40**

> ERRETIRATUAK  
**Aratusteetarako txokolate jana antolatu dute**

Aratuste-martitzenean, otsailak 20, txokolate jana egingo dute erretiratuek, 17:00etan, erretiratuen elkartearren egoitzan. Ondoren, kina jokoan jarduteko aukera egongo da. Parte hartzeko izena eman behar da, hilaren 15ean edo 16an, 18:00etik 19:00etara, eta hiru euro ordaindu.

> ARATUSTEAK  
**Umeendako txokolatea eta pailazoak**

Aratuste jaia antolatu du Udalak umeendako. Otsailaren 16an, egubakoitza, izango da hori, frontoian. 16:30ean, txokolate jana eta musika emana naldia izango dute.

Ondoren, 17:30 aldera, Poxpolo eta Mokolo pailazoen ikuskizunarekin gozatzeko aukera izango dute.

> FUTBOLA  
**Igoera faseari ekingo dio erregional mailako taldeak**

Ligako lehen fasea bukatu du bigarren mailako erregionalen taldeak, ondo bukatu ere: 4-1 irabazi zion Elgetari eta bere taldeko lider geratu da. Hain zuzen ere, datorren asteburuan igoera fasea hasiko dute antzuolarrek; horrenbestez, lehen mailara igotzea aukera izango dute.

> KORRIKA  
**Otsailaren 14an egingo dute hurrengo batzarra**

Jakinari genizuen moduan, martxoaren 25ean pasatuko da Korrika Antzuolatik; hura antolatzen laguntzeko taldea osatu nahi dute herrian, eta lehenengo batzarra egin zuten otsailaren 2an. Hurrengoa hilaren 14an egingo dute, 19:00etan, udaletxeen.

**GAZTEGUNEA > TXATXILIPURDIREKIN BESTE URTEBETERAKO HITZARMENA SINATZEA ERABAKI DU UDALAK**

# Txatxilipurdik jarraituko du gaztegunea kudeatzen, 45 gazte eta hiru begiralerekin

Zapatu eta domeketan zabaltzen dute gaztegunearen Errekaldeko lokala

Orain dela urtebetetik Txatxilipurdi elkarreka kudeatzen du gaztegunea

**AINTZANE IRIZAR > ANTZUOLA**  
Herriko gaztetxoek aisiajdirako aukerarik eta egoteko tokirik ez zutela-eta, orain dela ia hiru urte zabaldu zuen Udalak gaztegunea, Errekalde auzoko lokal baten. Harrezkero, geroago eta gehiago dira asteburuetan hantxe elkartzen diren gaztetxoak. Gaur egun 45 gaztetxoak dute izeña emanda (urtean 42 euro ordaintzen dute) eta hiru begirale dituzte, tartean Goretti Fernández antzuolarra. Hark azaldu digunez, hasiera baten 12 eta 14 urte bitartekoiei zuzenduta bazeagoen ere, adin tarte hori handitu egin da: "Orain dela hiru urte hona etortzen zirenek zerbitzu hau erabiltzen jarraitu dute eta gaur egun 15 eta 16 urte dituzte".

**EKINTZA UGARI**  
Zapatu eta domeketan zabaltzen dute gaztegunea; zapatuetan 16:00etik 20:00etara eta 21:00eta-



IRTEERAK Urtero hainbat irteera egiten dituzte; irudian, Gabonetan Txuri-Urdinera egindako irteera.

MAIALEN IPARRAGIRRE

tik 23:00etara eta domeketan, 16:00etik 21:00etara.

Orain arte, irailetik uztailera zabaldu izan dute gaztegunea; aurten, baina, asmoa da maiatzera arte bakarrik zabaltzea. Gabonetan, bestalde, ia egunero egon zabalik.

Ekintza ugari egiten dituzte: eskulanak, ikastaroak, jokoak... Bestalde, irteerak ere antolatzen dituzte: patinatzera, asteburua pasatzera...

## GAZTEXEAREKIN ELKARLANA

Gazteguneko arduradunen hurrengo erronka da gaztexearkin eta Antzuolako Gazte Asanbladarekin elkarlana bultzatzea. Zera adierazi digu Fernandezek: "Gaztexoi kosta egiten zaie gazteguneak gazttxerako jauzia ematea; hori bideratzeko, Zubialdea egiteko, gure hurrengo erronka da haietkin elkarlanean jardutea eta elkarrekin antolatzea hainbat ekimen".

## TXATXILIPURDIK JARRAITUKO DU

Orain dela urtebetetik Txatxilipurdi elkarreka kudeatzen du gaztegunearen jarduna; bada, urtarileko osoko bilkurak udalbazzarrak erabaki zuen elkarrekin duen hitzarmenarekin jarraitzea, eta urtebete luzatu dute kontratua. Udaleko arduradunak gustura daude Txatxilipurdik urtebete honetan egindako lanarekin, eta horregatik haratu dute erabaki hori.

**IKASTAROAK > OTSAILEAN HASIKO DIRA UDALAK ANTOLATUTAKO IKASTAROAK**

# Barreterapia eta gozogintza ikastaroak

**A.I. > ANTZUOLA**

Udalak antolatutako hiru ikastaro hasiko dira otsailean. Alde batetik, euskal kantu eta kantu-jolas ikastaroa hasiko da gurasoendako, otsailaren 23an, jakinarazi genizuen moduan. Sei orduko ikastaroa izango da hori:

otsailaren 23an eta martxoaren 3an eta 10ean, egun bakotzean bi orduko saioak izango dituzte, 10:00etik 12:00etara.

Beste bi ikastaro ere otsailean bertan hasiko dira: barreterapia eta gozogintza ikastaroak, hain zuzen ere.

## OTSAILEAN BESTE BI IKASTARO

Barreterapia ikastaroa otsailaren 20an hasiko da eta martxitenero izango dira eskolak, 19:00etik 21:00etara. Maiatzaren 8an amaituko da.

Bestalde, gozogintza ikastaroa antolatu dute. Otsailaren

22an hasita, eguenero, 18:30etik 21:00etara izango dira eskolak, apirilaren 26ra arte. Ikastaro biak dira 20 ordukoak, eta 20 euro ordaindu beharko dira. Izena emateko udaletxera jo behar da edo telefono zenbaki honetara deitu: 943 76 62 46.

**SUKALDEKO ALTZARIAK**  
**Harizki**

Zurrategi plaza 4, beheia. ANTZUOLA. Tel. eta faxa 943 78 71 80

**MUEBLES IGEA**

Sukalderako eta bainurako altzariak  
Altzari rustikoetan  
espezializatuak

**zabalo**  
IGELTSEROTZA  
Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua  
ANTZUOLA.  
Tel. eta faxa:  
943 76 60 89

## ZAHAR BERRITZEAK:

Fatxadak  
Bainugela eta sukaldea  
Lokal komertzialak  
Teiliatuak

> UDALAK LAN ESKAINTEA  
**Liburutegiko liburuak  
katalogatzeko  
pertsona bat behar da**

Liburutegiko liburuak katalogatu eta informatizatzeko aldi baterako pertsona bat behar da.

Izena otsailaren 19a baino lehen eman behar da udal-letxeen bertan. Bete behar diren baldintzak honakoak dira: euskaraz jakitea, katalogatzen jakitea eta Absysnet programa ezagutzea.

Informazio zabalagoa jasotzeko udaletxera jo behar da edo 943 76 80 22 telefono zenbakira deitu behar da.

> KORRIKA 2007  
**Korrika batzordea  
otsailaren 14an,  
eguztena, egingo da**

Korrika batzordea otsailaren 14an, eguztena, egingo da Elgetan. Hitzordua udaletxe-ana, 19:00etan. Herriko elkar-te guztieei bertan parte hartze-ko dei egiten diete. Bertan zehaztuko dituzte Korrika dela-eta Elgetan egingo dituzten ekintzak.

Izan ere, Korrika 07 martxoaren 25ean, domeka, igaro-ko da Elgetatik. Hain justu, 08:30ean iritsiko da Bergara-tik eta Elorriorantz egingo du.

> BERGARA-ELORRIO  
**Udaberrian  
amaituko dituzte  
mantentze-lanak**

Gabonetan oporraldietarako gelditu zituen Foru Aldundiak Bergara-Elorrio errepideko mantentze-lanak. Amaitzeke utzi zituzten, eta orain-dik ere zati handia gelditzen da berritzeko.

Bada, eguraldi kontuak direla tarteko, jakin dugu ez diotela lanari udaberriira arte berriz ekingo. Neguko elur-tekin errepeidea asko hon-datzen da, eta martxo-april arte ez ditugu beharginak hantxe lanean ikusiko.

> HAURTZAINDEGIA  
**Hezitzale berria hasi  
da haurreskolan:  
Ander Mayora**

Hamar ume hartzen ditu otsaila ezkerro Elgetako hau-reskolak. Hori dela eta, Lau-ra Martinek eta Elbira Gon-zalezek laguntzaile berria dute aurrerantzean.

Ander Mayora du izena hezitzale berriak, 22 urte ditu eta eibartarra da. Arratsaldez arituko da lanean Mayora, 15:00etatik 18:30etara. Eta, aldaketarik ez badago, uztai-lera arte arituko da herriko haurreskolan.

**DIRULAGUNTZAK > UDALAK AURKEZTUTAKO BI PROIEKTU BABESTUKO DITU ELKARTEAK**

## Elgetako Udalak ia 19.000 euro jasoko ditu Debagoieneko Landa Garapenerako Elkartetik

Baserri bideak hobetzeko eta Andra Mari plazan postontzi berriak ipintzeko erabiliko dute diru hori, hain zuzen ere

**LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA**  
Debagoieneko Landa Garapene-rako Elkartetik 18.794,10 euro jasoko ditu Elgetako Udalak. Izen ere, hainbat proiektu aurkezu zituen Udalak, eta bik jaso dute elkartearren dirulaguntza.

Hain zuzen ere, baserri bide-eta hobekuntzak egiteko 15.284,10 euro jasoko ditu Elge-tak, aurrekontuaren %65. Andra Mari plazan baserritarren postontzi berriak ipintzeko, berri, 3.510 euro etorriko dira Elgeta-ra, lanon aurrekontuaren %65 baita kasu horretan ere.



PLASTIKOA Askok erre egiten dute, baina Mankomunitateak bildu egiten du. L.Z.

**PLASTIKO BILKETA**  
Asteon egindako baserritarren batzordean, baserri ingurunean sortutako plastikoaren bilketa ere izan zuten hizpide. Elgetako base-rritarrei gogorarazten zaie Deba-

goieneko Mankomunitateak plasti-ko biltzeko zerbitzua eskaintzen duela. Egun ez du baserritar bakar batek ere zerbitzu hori erabiltzen. Interesatuta egonez gero, udaletxe-ja jo besterik ez dute.

### AHT

## Domekan mendi ibilbidera joateko deia

Eskoriatzan izango da, eta herriko plazan egin dute hitzordua, 08:45erako

L.Z. > ELGETA

Abiadura Handiko Trena ez da Elgetatik igaroko, baina herritar talde batek proiektu horren inguruko eztabaia da sortu nahi du herrian. Hain zuzen ere, informazioa batu eta zabaltzea da asmoa.

Kanpaina horren barruan, domekan Eskoria-tzan egiteko den mendi ibilbide batean parte hartzeko dei egin du lantalde-ak. AHTk eragingo dituen kalteak bertatik bertara ikusteko aukera izango da 3-4 ordu iraungo duen txangoan. Hala, Eskoriatzarantz batera abiatzeko herriko plazan egin dute hitzordua, domekan, 08:45erako.

**BILERA EGUNLEAN, 20:30EAN**  
Ekintza gehiago ere egingo dituzte Elgetan AHTrekin lotuta. Herriko alderdi politiko, eragile eta herritarrei eguneean udaletxeen egingo den bileran parte hartzeko dei egin die lantalde horrek. Bile-ra 20:30ean izango da.



L.Z.

## Arantzetako bihurgunea hobetzen

Aspaldiko eskaerak jaso du erantzuna, antza; izan ere, asteon ikusi ditugu makinak Arantzeta auzoko sarrerako bihurgunean. Foru Aldundiak Bergara-tik Elgetarako igoeran dauden bihurguneetan zabaltze lanak egin zituenean, arriskutsu utzi zuen sarrera hura. Behin eta berri eskatu dute erabiltzaileek puntu horretan ikusmena oztopatzen duen lurra kentzeko.



**RECYDE, S.A.**

Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa  
Tel.: zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10  
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es



ISO 9002  
QS 9000  
ISO/TS 16949

bere ustez



Geaxi Ezpeleta

## Tristuraz eta amorruz beterik

Begiak itxita, tristura eta amorruz beterik irudi-katzen dut hemen dagoela, suposatuko duena. Baino martxa honetan berandu baino lehen irudikatu beharrak ere ez dugu izango, amets gaizto izatetik errealtitate izatera igaroko baita. Hala erabaki dute herri honen "ordezkariek", guretzat eta Euzkadi-rentzat hoherena izango baita. Europarantz garamatza, garapenerantz, eta duda izpi-rik gabe hau baita onena, garrantzitsuena. Bertan gasta-tu behar diren milioika

**"Ez dago ikusi nahi  
ez duena baino itsu  
handiagorik, AHTren  
ondorioak denek  
pairatuko ditugu"**

milioiekin osasun zerbitzu eta ikerketetan, hezkuntzan, kul-turaren eta euskararen zabalkuntzan... lan handia egin ahal izango litzateke baina beno, hori gutxiengoa da, esku-tuko digute herritarroi horre-tarako dirua zerga bidez edo ta telebistako maratoi solidarioren batekin. Ingurugiro eta baserrieta dugun ondare neurtezina ere hutsaren ure-ña bihurrarazi dute tren erraldoiaren ahopeak. Tristura sentitzen dut guzti hau buru-za etortzean. Eta amorrua berriz, agintarien botereaz eta herritar ugariren itsutasunaz jabetzean, beraingan eragin zuzena duten gaietan ere bota eman dieten eskuetan hausnarketa izpirik gabe jar-tzen direla ikustean.

## ETXEAK

## Badatoz babes ofizialeko etxeen obrak

Bukatu dute Pedro Inazio Barrutia kaleko orubea egokitzen

**U.M. > ARAMAIO**  
Laster hasiko dira babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko lanak egiten. Dena den, oraindik data zehatzik ez du ipini Construcciones Olabarri, etxeok eraikiko dituen enpresa bilbotarrak.

Kontua da dagoeneko bukatu dituztela Pedro Inazio Barrutia kaleko orubea egokitzeo lanak. Han erakitako pareta bat konpontzen ibili dira orain arte; Olabarri enpresako adituen ustez, pareta hura ez zelako segurua.

Bada, jakinarazi du Eusko Jaurlaritzako Etxebizitzaz Sailburuordetzako prentsa arduradun Pilar Matiasen obren bukaeraren berri eman diotela Olabarri enpresari, "ahalik eta lasterren has daitzen eraikitze lanak egiten".

**OLABARRIKOAK ZAIN**  
Enpresa eraikitzaileari dago-kionez, adierazi dute eurek oraindik ez dutela jaso Jaurlaritzaren jakinarazpen ofizialik; beraz, "hura iritsi arte, zain" egongo direla. Edozelan ere, gaineratu dute "Jaurlaritzaren baimen guztia iritsi bezain laster" hasiko direla Aramaioko babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzen.

## &gt; ARATUSTEAK

### Mozorro lehiaketarako izenematea zabalik

Mozorro lehiaketa antolatu du Udalak Aratusteetarako, eta izena emateko epea zabdu du. Edozeinek parte har dezake otsailaren 17an egongo duten lehiaketa horretan, taldeka edo banaka; eta gaia librea da. Izena emateko azkeneko eguna da otsailaren 15a, liburutegian.

Taldeka aurkezteko lau lagun baino gehiago beharrezkoak dira.

Honako sariak zehaztu ditu Udalak: haurrendako, 90 euro lehenengoari eta 36 bigarrenari; 14 urtetik gorakoendako sari berak. Eta originaltasuna ere sarituko du: 48 euro lehenengoaren dako eta 30 bigarrenaren dako. 18:00etan banatuko dituzte sariak, herriko plazan.

## AZPIEGITURAK &gt; ABIADURA HENDIKO TRENA

# AHTren kontsulta antolatzen zebilen taldea desegin egin da

Herri galdeketa antolatzeko moduak sortu du taldekideen arteko desadostasuna

**AHT Gelditu Elkarlanekoek herri batzarra deitu dute herri kontsultarekin zer egin erabakitzeko**

**UBANE MADERA > ARRASATE**  
Abiadura Handiko Trenaren gainerako herri kontsulta antolatzen zebilen taldea desegin egin da, oraingo asteko astelehenean. Hain zuzen, herri kontsulta antolatzeko moduak eragin du taldekideen artean desadostasuna. Taldea zegoen osatuta EAJ, EA eta AHT Gelditu Elkarlaneko bina ordezkarirekin. Bada, AHTren kontrako taldeko kideek salatu dute orain arte ez dutela hasieran taldean zehaztutako ia ezer ere lortu.

**HERRI KONTSULTA**

Herri galdeketa dela-eta AHT Gelditu Elkarlanekoek gogorarazi dute udalbatzak puntu hau onartu zuela: "Aramaioko Udalak bitarteko guztia ipiniko ditu herri kontsulta ahalik eta parte hartzaleena izan dadin, informazioa eta eztabaidea bultzatuz eta herri kontsultaren antolaketan herritarra inplikatuz. Horregatik proposatu zuten Ibarren mahai bat ipintzea goiz eta arratsaldez. Eta elizateetan ere goizean bi ordutan mahaiak ipintzea, "auzo alkatekin egonda geunden, guztia zeuden ados eta gainera oso ondo iruditu zitzaien. Guk gura genuen ahalik eta partaidetza handiena lortzea", diote elkarlaneko kideek.

Baina gainerakoek ez dute onartu proposamena. Haiek gura dute bozketa egin beste edozein hauetako kundetan moduan: mahaiak Ibarren bakarrik ipinita: "Proposamen hori bozkatu genuen eta aldeko lau bodo eta kontrako bi izan zituen. Beraz, gehiengoa lortu zuen. Bainan gainerako bi taldekideek ez zuten onartu hori, eta horixe da, hain justu, salatzeko: gehiengoa onartu nahi ez izatea", dio alkateak.

**HERRI BATZARRA**

Egoera hori ela eta, herri batzarra deitu dute AHT Gelditu Elkarlanekoek, "erabakitzeko zer egin behar dugun herri kontsultarekin. Batez ere dei egiten diegu herri kontsulta bultzatzearen alde sinatu zutenei", baina interesa duen edozeinek parte hardezkeela gaineratu dute.

Batzar hori izango da egutegiaren, hilaren 14an, kultura etxearen, 19:00etan.

**ALDEKO ETA KONTRAKO IRITZIAK**

Herri kontsulta antolatzen zebilen taldearen beste zereginetako bat zen AHTren gainean ahalik eta informazio gehien lortu eta helaraztea herritarrei. Horren gainean ere egin dituzte salaketa.

tak AHT Gelditukoek: "Gure asmoa zen egitea hitzaldi bat Abiadura Handiko Trenaren alde, haren onurak esplikatzen. Beste hitzaldi bat proiektuaren kontrako arrazoak azaltzeko. Eta gero, mahai inguru bat. Bada, ez dugu lortu inor berba egiteko AHTren alde. Lortu dugun gauza bakarra da datorren astelehenean Jaurlaritzako ordezkarirekin. Espero dezagun proiektuaren gainean berba egitera".

Talde horretako gainerako lau taldekideen izenean, berriz, alkateak dio hora arduratu zela

## DATOZEN HITZORDUAK

**> MENDI IRTEERA**

Otsailaren 11n, domekan. Trenaren ibilbidea ezagutarazteko. 09:30ean, oinez joateko. 10:00etan Untzillara autoz igotzeko; autobus geltokian.

**> JAURLARITZAKO ORDEZKARIAK**

Otsailak 12, astelehena. Etorriko dira Arantzeta Tapia, Garraio eta Herrilan sailburuordea; Mirari Arruabarrena, Garraio Azpiegituren zuzendaria; eta teknikari bat. 18:30ean, osoko bilkuren aretoan.

**> HERRI BATZARRA**

Herri kontsultarekin zer egin erabakitzeko. Otsailak 14, 19:00etan, kultura etxearen.

**> KALTEEN GAINeko HITZALDIA**

Otsailak 21, kultura etxearen, 19:00etan. Iñaki Antiguedad geologoa eta EHNEko kide bat.

gai horrekin eta Jaurlaritzara jo zuela informazio bila: "Lortu dugu astelehenean Jaurlaritzako ordezkarirekin. Espero dezagun proiektuaren gainean berba egitera".

**EZTABAI DAN PARTE HARTU EZ**

Alkateak azaldu du, baita ere, zer dela-eta ez duten parte hartuko gai horren gaineko eztabaidan: "Jaurlaritzak bidali du idatzi bat azalduz zergatik ez duen parte hartzen halako eztabaidetan eta neu guztiz ados nago idatzi horrekin", esan du Mertxe Mondragonek. Besteak beste, idatzi horrek dio AHTren proiektua Jaurlaritzan eta Legebiltzarrean onartuta dagoela eta diputazioen, Estatuko gobernuaren, Europako batzordearen eta EAEko udal gehienetan babesa duela: "Ikuspuntu politikotik legebiltzarkideen %80 aldeko ditu, eta, Garraio eta Obra Publikoen Sailak dituen datuen arabera, ikuspuntu sozialari dago-kionez, euskal gizartearen gehiengo zabalak babestu du azpiegitura berri hori. Gure herrian gai gutxi daude halako adostasuna lortzen dutenak". Zera ere gaineratzen du idatziak, besteak beste: "Mahai inguru erabiltzea prozesua gerarazteko edo interes alderdikoiek kultura politiko demokratikoaren defizita da".

Bukatzeko, AHTren informazioak eza ere salatu du AHT Gelditu Elkarlanak: "Aramaioko zatia lehiaketara ateratzen abenduan eta udaletxeen oraindik ez dago inolako informazioak".



## Jende ugari Masusta haur eskolaren inaugurazioan

Txistu, bertsola eta antzeko doinuek lagunduta eta apaizak eraikina bedeinkatu eta gero, Bidatz eta Haizea bikiek moztu zuten. Masusta haur eskola inauguratzeko zinta. Argazkian azaltzen dira lehen erabiltzaileak. Guztira, bedertzi ume dira. Eta bi irakasle (argazkian). Horren harira, azken orduko aldaketa bat egin zuten eta Jurgi Lopez de Arkaute eta Maika Martinez izendatu zituzten haur eskolako irakasle izateko. Matrikulazio epea zabalik dago oraindik.



JOKIN ETXEBARRIA > ARRASATE  
Jesus Merinok hiru urte daramatzatza Ointxe Arrasate Saskibaloitik zuzendaritzan sartuta. Klub galdu baten sartu zela dio eta gutxiaka-gutxiaka, lanaren bitartez, Arrasateko jendea berriz ere saskibaloirekin gozatzen hasi dela ikusi du. Pozik dago orain arte lortutakoarekin, baina lehen pausoa besterik ez dutela eman uste du.

**Badirudi, gutxiaka-gutxiaka bada ere, Arrasateko saskibaloia berpizten dabilela.**

Bai, horrela dela esan daiteke. 2003an sartu ginenean klubak nola zegoen eta gaur egungo egoera nolakoa den alderatuz, gauzak asko aldatu direla esan dezakegu. Orduan, hiru talde federatu besterik ez genuen: lehen mailakoa, gazte mailakoa eta kadete mailakoa. Gaur egun, berriz, hamar talde federatu ditugu klubaren barruan. Lehen genituenetan gain, seniorretan beste talde bat atera dugu, kadetetan beste bat eta, horiez gain, infantil mailako lau eta alebinetako beste talde bat ere badauzkagu.

Gainera, saskibaloien inguruaren giro polita sortu da, ilusio handiz gabiltza lanean eta, gutxiaka-gutxiaka bada ere, gorantz gozela uste dut.

**Aldaketa horiek zer eragin izan dute klubean?**

Ointxeren interesak aldatzen joan dira pixkanaka-pixkanaka. Gu sartu ginenean egoera larrian zegoen klubak. Orduan garrantzitsuena zen geneuzkan talde gutxientzako entrenatzaleak topatzea; eta talde kopurua zenbat eta gehiago handitu, entrenatzaile gabezia orduan eta handia goa egiten zen.

Ordutik hona, lortu dugu jokalari asko egotea saskibaloian jokatzeko prest daudenak, eta horren adibide garbiena infantil eta alebin mailetan dagoen haur kopurua da. Horrez gain, giro polita eta ilusioa dago. Horrek ekarri du jendea berriz saskibaloirekin lotzen hastea eta talde txikiak lanean jartzea.

Daukagun kirol proiektuarekin lortu nahi duguna da herrian ilusioa piztea eta oinarri handia sortzea, goi mailako taldeek dituzten jokalariak behean egiten den lanaren fruitu izateko.

Hala ere, arazoak beti egoten dira. Kirol mailako arazoak nahiiko ondo konpondu baditugu ere, proiektua aurrera ateratzeko diru faltan gaude.

**Baina kluba ez da bakarrik kirol arlora mugatzen, ezta?**

Horretan garapena izan dugu. Duela hiru urte, zuzendaritzan zeuden kideek guraso batzuetako kluba aurrera ateratzeko laguntza eskatu ziguten. Egia esan, gogoz sartu ginenean, baina guztia denen artean eginez ibili gara gaur arte, organizazio handirik gabe. Eta norberak gehien zekien arloan ekarpenak eginda.

Orain, berriz, lan guztia banatu egin behar ditugu. Kluba handituz doa, lan handiagoa dago, eta organizazio prozesu horretan gaude sartuta. Hainbat

Jesus Merino > Ointxe Arrasate Saskibaloitik lehendakarioordea

# "Piramideak zenbat eta oinarri zabalagoa izan, orduan eta hobeto"



Jesus Merino, Ointxe Arrasate Saskibaloitik lehendakarioordea.

JOKIN ETXEBARRIA

ataletan banatu nahi dugu klubak: kirol mailan, maila sozialean, gurasoek ere euren leku izango dute... Eta horretarako laguntza behar dugu. Zenbat eta jende gehiago murgildu gure artean, hobeto.

**Proiektu berri baten inguruaren gabiltza hitz egiten, baina zer-tan datza?**

Nik ez nuke esango berria denik, sartu ginenean ere horrela pentsatzen genuelako. Kontua da Arrasaten saskibaloien inguruaren talde amateur bat iza-nik, herrian kirol horrekiko ilu-

**"Pena da Debagoienean horren enpresa handiak edukita, gure herrietako kirol taldeei horren laguntza gutxi ematea"**

sioa sortzea. Nola? Bada, ahal den eta neska-mutiko kopuru handiena kirol horretara erakarrita.

Uste dugu haurren heziketan parte garrantzitsua duela kirolak, eta guk saskibaloien bitartez horretan lan egin nahi dugu. Besteak beste, talde lana, parte-hartzea, diziplina eta halako balioak erakutsita.

Guk hazten jarraitu nahi dugu, goi mailako talde onak iza-teko gogoz, baina horiek behe mailako taldean egindako lan onarekin hornituta. Beraz, piramide moduko bat egin nahi dugu. Piramideek oinarri zabala edu-

ki dezakete, edo oso puntazorrotzekoak izan daitezke. Gure ustez, piramideak zenbat eta oinarri zabalagoa izan, orduan eta hobeto. Eta goian talde lehiakorra lortzen badugu, zer esanik ez...

**Baina ez duzue Arrasatera bakarrik mugatu nahi, ezta?**

Ez, noski. Gaur egun ere, Bergara, Aretxabaleta, Oñati eta inguruko herrietako jokalariak ditugu gure taldeetan. Gure klu-ba Arrasatekoa da, baina hurbileko herrietako klubekin elkarlanean jarraitu behar dugu. Euren lana gurearekin uztartu eta Debagoienean talde indartsua egitea lortzen badugu, denen lanagatik izango da.

**Proiektua lehen fruituak emanen hasi dela esan daiteke?**

Bai. Lehen mailako taldea EBArako igotzeko lehian dabil. Gaste mailako taldea Euskal Liga jokatzen, klubaren historian lehen aldiz, eta kadeteak Gipuzkoako Txapelketako finalerdieta iritsi ziren. Bai, lan gogorraren erantzuna dela esan daiteke, eta, gainera, jendeak nola erantzuten duen ikustea zoragarria da. Joan den astean, adibidez, 400 lagun inguru batu ginen Iturripen gatzte mailako taldea ikusteko.

Emaitzak laguntzen dabilta eta uste dut horrek ere jendea era-kartzen duela. Era berean, harmailetan egoten den giroak taldea *kutsatzen* du eta emaitza onak etortzen dira. Gurpil baten antza hartzen diot nik horri.

**Lokala estreinatu duzue. Zer-tan lagun dezake horrek?**

Saskibaloitik kantxatik aparte, elkartzeko puntu bat daukagu. Bertan, zuzendaritzan batzordearen batzarrak egiteaz gain, entrenatzaleak etor daitezke eta bideo edo paperen bitartez, entrenamenduak programatu, egin diren akatsak nola zuzen daitezkeen ikusi... Nik uste dut erreferentzia puntuak dela, saskibaloian jokatzeaz aparte egin daitezkeen lan guztiak egiteko.

Orain arte gastronomia elkartetan eta horrelakoetan elkartzeten ginen gai ekonomikoak, sozialak eta beste batzuk lantzen. Orain, berriz, gure leku daukagu, gutxiaka-gutxiaka hobetzen joango garena, noski.

Gainera, lokala mutilek jokatzen duten lekutik gertu egotea behar-beharrezko da; bestela, duen baliagarritasunetik asko galduko luke-eta.

**Proiektu berri batek, baina, finantzaketa behar du.**

Hurrengo urteetan, maila berean edo goragokoan egoteko, dirua behar dugu. Gaur egun, esate baterako, EBA mailara igotzeko ez daukagu behar adina diru. Orain arte Mugarrak eta Alkesak hiru urte hauetan laguntza handia eman digute, baina pena da Debagoienean horren enpresa handiak edukita, gure herrietako kirol taldeei horren laguntza gutxi ematea.

Horrenbestez, ahal dugun moduan aurkitu beharra daukagu dirua, eta horretan lanean gabiltza gaur egun.

IGERIKETA &gt; BERGARA, ANTZUOLA ETA ELGETAKO NESKA-MUTIKOENDAKO

# 200 ikasle inguru ur-jokoez gozatuko dira bihar Agorrosinen, goizean barrena

Goiz osoan hiru kale hartuko dituzte programa jarduerako ekintza behar bezala egiteko

Erabiltzaileek, bitartean, sei kale erabili ahal izango dituzte lasaitasunez igeri egiteko

MIRIAN BITERI &gt; BERGARA

Bergara, Elgeta eta Antzuolako 200 bat ikaslek hitzordua dute bihar goizean Agorrosin ekinzagunean. Hain zuzen ere, 09:00etik 13:00etara, askotariko ur-jokoetan jarduteko aukera paregabea izango dute igerilekuantua bertan.

Herri horietako eskola kiroletan dauden 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutilenzako da kirol ekintza. Alegia, Lehen Hezkuntzako hirugarren eta seigarren maila bitartean ikasten dabiltzentzako.

Guztira, hiru kale erabiliko dituzte ikasleek, saskibaloia, boleibol akuatikoa eta mota horretako kirolak praktikatzeko. Horiez gainera, urpekaritza, lasterketak eta alfonbra baten gainean ibiltzea eskatzen duten jokoak ere ez dira faltako bihar Agorrosinen.

Igerilekuo gainontzeko sei kaleak, berriz, erabiltzaileentzako gorde izan dira, non egunero nahiz aldian behin hurbiltzen direnak lasaitasun osoz igeri egin ahal izango duten, haien ere tokia behar dute-eta.

Aldagelak, bestalde, hiru zati banaturik egongo dira. Eskola kiroleko ikasle eta ohiko erabiltzaileentzat ez ezik, jaioberrrien igeriketa dutenentzako ere gorde izan da tokia.

HIRU MONITORE

Koordinazio lanetan hiru monitore ibiliko dira guztira. Hainbat txanda izango direla aintzat hartuta, haeiek antolaketaz ardura tuko dira.

Horren harira, aldageletan haurrek jarrera egokia izan dezataela arautzetik, igerileku dena behar bezala irten dadila kontrolatuko dute. Prestaturiko egitarauaren dinamizazioa ere euren kargu izango dute goiz osoan. Koordinazio lanetan hiru monitore ibiliko dira.

Mota horretako ekimenek egin izan da lehenik ere. Aurtent, baina, Agorrosinera eraman dela kontuan izanda, iazkoa baino interes handiagoa eskuratzeari espero du Bergarako Kirol teknikariak.

Ur-jokoak eskola kiroleko programazioaren barnean sartzen dira. Bertan, zapatuetan,



UR-JOKOAK 8 eta 12 urte bitarteko neska-mutikozentzako dira. Irudian, gaztetxo batzuk Eskoriatzan jolasean.

GOIENKARIA

hainbat kiroletako liga erregularrako jardunaldiak eta topaketak izaten dira. Lehenengo alorraren barruan, saskibaloia eta futbol norgehiagak sartzen dira, besteak beste. Eskolen arteko topaketetan, bestalde, mota askotako jarduerak egiten dituzte, hala nola: patinajeoa eta herri kirolak.

Bihar goizean, beraz, Agorrosin ekintzagunea ardatz bilakatuko da. Bergarako, Elgetako eta Antzuolako ikasleek jo eta su ibiliko dira ur-jolasetan.

XAKEA &gt; ARETXABAleta eta ARRASATEKO TALDEAK

# Iruñerantz abiatuko dira debagoiendarrak

Arlutzek eta Arrasate-San Andresek Txantreako Orvina taldeen aurka arituko dira aste bukaieran

Lehenengoak nahiko denboraldia ona ari dira egiten; bigarrenak, oraingoz, ez horren ona

MIRARI ALTUBE-M.B. > ARETXABAleta Bilboko Peña Rey Ardid taldea hartz zuen joan zen zapatuan Arlutz Xake Taldeak etxeak, eta aurkaria irabazteko modukoa izan arren, berdindu egin zuten: "Bina egin genuen, eta, partidaren gaineko hausnarketa eginez gero, emaitza bidezkoa izan zela esango nuke", adierazi du Aitor Alcaide jokalari aretxabaletarrak. Partida guztietan eskuratu dituzte puntuak, eta, horregatik, sailkapeneko laugarren postuan daude aretxabaletarrak:

"Oraindik talde indartsuen aurka jokatut behar dugu, Sestao esaterako, eta atzerantz egingo dugu", dio Alcaidek.

Bihar, zapatua, Iruñera joango dira Orvina taldearen aurka jokatzen: "Azken bi urteotan bina berdindu dugu haien aurka eta oraingoz ere emaitza ona izango litzateke berdinaketa", adierazi digu Alcaidek.



ARRASATE-SAN ANDRES Josu Tornay (ezkerrean) partida bat jokatzen. GOIENKARIA

ARRASATE, ITXAROPENTSU

Arrasate-San Andres taldea ere Nafarroako hiribururantz abiatuko da. Txantrea auzoko Orvina B taldearen kontra jokatuko dute. Euskal Liga B mailan sailkapeneko bederatzigarren postuan daude arrasatearrak (guztira hamar talde dira lehian). Hala ere, itxaropentsu azaldu da Josu Tornay taldeko kidea. Dena dela, zapatari begira, taldea osatzeko arazoak dituztela onartu du.

Orain arte izandako lau norgehiagokoetan, onenen aurka lehiatu eta galdu egin dute. Horrenbestez, "zorte handirik" ez dutela izan aitortu du. Era berean, hemendik aurrera puntuatzea errazagoa izango dela uste du arrasatearrak: "Ondo puntuatzean dago gakoa", aipatzen du.



SARIA JASOTZEN Gipuzkoako Kirol Federazioak saria eman zion eguztenean Mankomunitateari.

MIRIAN BITERI

**IGERIKETA EGOKITUA > IKASTAROAK BERGARAN, ARRASATEN ETA OÑATIN IZATEN DIRA**

## Boluntarioen esker oneko lana saritu dute

2005a ezkero igeriketa egokituko ikastaroak daude Bergaran, Arrasaten eta Oñatin; horretan lan egiten duten boluntarioak saritu dituzte

**MIRIAN BITERI> ARRASATE**  
Debagoieneko Kirol Zerbitzuak kirol boluntariotza sustatzeagatik saria jaso du Afedegiren eskuak. Zehazki, Bergaran, Arrasaten eta Oñatin garatzen ari diren

igeriketa egokituko ikastaroak direla-eta.

Egitasmo hori Debagoienean baino ez dela egiten azpimarratu zuen Arrasateko Kirol teknikari Iratxe Aranburuk eguzte-

nean egindako prentsurrekoan. Era berean, bertan parte hartzen duten boluntarioek egiten duten lana goraipatu zuen.

### OSASUNA ETA KIROLA

Agerraldi berean, Elgetan egindako azken kirol politikari buruzko topaketan liburu bilduma aurkeztu zuten. Osasun eta kirol zerbitzuen arteko sinergiak sakon aztertzen dira lan horretan.

### MENDIA

## Mendi gala Elgetan martxoaren 16an

M.B. &gt; ELGETA

Datorren martxoaren 16an, Euskal Mendizale Federazioak antolatzen duen euskal mendizaletasunaren XI. gala hartuko du Elgetako Espainia antzokiak. Ekimen hori urtarrilaren 26an ospatzekoaz zen, baina elur ekaitzaren ondorioz atzeratu egin zuten.

### EMF ETA PYRENAICA

Egitaraua bertaratutako en harrarekin hasiko da, 18:30ean. Ondoren, galaren aurkezpena –Arizteta abesbatzak jardungo du–, mendi proiekzioa, EMF eta Pyrenaica sariak banatu eta sariuei aurreskua dantzatuko diete. Amaiera puntuera afariak jarriko du.



MIRIAN BITERI

## Gustura daude pilotariak materialarekin

Xala-Eulate bikotea Leiza-Zearraren kontra arituko da domeka arratsaldean Bergarako Udal Pilotaleku. Atzo bertan partiduan erabiliko duten materiala aukeratzeko hurbildu ziren pilotariak Bergarara. Xala eta Leiza bozera maile lanetan aritu ziren. Aukeratutako pilotekin gustura daudela jakinarazi zuten biek.

## asteburuko hitzorduak

### FUTBOLA

Preferente maila  
Mondra-Berio.  
Zapatura: 16:00. Atxabalpe.

Aloña Mendi-Mutriku.  
Domeka: 16:00. Azkoagain.

Aretxabaleta-Idiazabala.  
Domeka: 16:30. Ibarra

Lehen erregionala  
Bergara-Sanpedrotarra.  
Zapatura: 16:00. Agorosin.

Ohorezko mailako gazteak  
(Igoera fasea)  
Aloña Mendi-Betiz Gazte.  
Zapatura: 16:00. Azkoagain.

Martutene-Mondra.  
Zapatura: 15:30. Martutene.

Anaitasuna-Aretxabaleta.  
Zapatura: 16:15. Txerloia.

Ohorezko mailako gazteak  
(Jaitsiera fasea)  
Zumaiako-Bergara.  
Zapatura: 15:30. Aita Mari.

Lehen mailako gazteak  
(Igoera fasea)  
Luberri-UDA Arizmendi.  
Domeka: 18:00. Berio.

Lehen mailako gazteak  
(Igoera fasea)  
Urki-Arrasate.  
Domeka: 15:30. Unbe Sup.

Zarautz-Bergara.  
Zapatura: 15:30. Asti-Txiki.

Antzuola-Zestoa.  
Zapatura: 16:30. Estala.

Ohorezko mailako  
kadeteak (Igoera fasea)  
UDA-Real Sociedad B  
Domeka: 11:30. Ibarra.

Bergara-Tolosa.  
Domeka: 12:00. Ipintza.

Ohorezko mailako  
kadeteak (Jaitsiera fasea)  
Arrasate-Alleru.

Urola-Aloña Mendi.  
Zapatura: 16:00. Argixao.

Lehen mailako kadeteak  
(kopa)  
UDA Arizmendi-Soraluze.

Zapatura: 10:30. Ibarra.

Bergara-Amaikak Bat.  
Domeka: 15:00. Atxabalpe.

Ohorezko mailako  
infantilak (Txapeldunen  
fasea)  
Hondarribia-Aretxabaleta.

Domeka: 16:30. Hondartzan.

Ohorezko mailako  
infantilak (kopa)  
Aloña Mendi-Urola.

Domeka: 11:00. Ibarra.

Añorga-Arrasate.

Zapatura: 12:00. Rezola.

Lehen mailako infantilak  
(Igoera fasea)

BKL. Arizmendi.  
Zapatura: 10:45. Beasain.

Goierriz-Leintz Eskola B.  
Zapatura: 13:00. Uretxu.  
Ikasi-Bergara 94.

Zapatura: 09:30. Azpeitia.  
Tolosa B-Leintz Eskola A.  
Zapatura: 10:30. Usabal.

Tolosa A-Aloña Mendi.

Zapatura: 10:30. Usabal.

### ESKUBALOIA

Euskadiko senior maila  
Barakaldo-Ford Mugarrir.  
Zapatura: 17:30. Iturripe.

Euskadiko senior maila  
(emakumezkoak)  
Verkol Aloña-Kukullaga.  
Zapatura: 17:30. Zubikoa.

Lehen maila territoriala  
Arrasate-Ormaiztegi.  
Domeka: 11:00. Iturripe.

Gazte maila  
Donibane-Aloña Mendi.  
Barikua: 18:00. Pasaias.

Hirugarren maila  
Xangauclub.com-UDA  
Domeka: 10:00. Olaizaga.

### Gazte maila

MCM-Aloña Mendi.

Zapatura: 12:00. Marianistas.

### SASKIBALOIA

#### Gipuzkoako ligako senior maila

Aloña Mendi-Haurtzaro.

Zapatura: 19:15. Zubikoa.

#### Gazte maila neskak (Udaberri txapelketa)

Verkol Aloña-Bera Bera.

Domeka: 12:00. Zubikoa.

Kadete maila neskak  
(Udaberri txapelketa)  
Arrasate-Aitzun.

Atzeratuta otsailaren 17ra.

### ERRUGBIA

Euskal ligako senior maila  
Arrasate-Durango.  
Zapatura: 16:00. Atxabalpe.

### XAKEA

Euskal liga (Ohorezko  
maila)

Orvina A-Arlutz.

Zapatura: 16:00. Iruñea

### Euskal liga (lehenengo maila)

Orvina B-Arrasate.

Zapatura: 16:00. Iruñea

### PILOTA

Binakako txapelketa  
profesionalak

Garlarza V-Elkor

Berasaluze IX-Nalda III

Xala-Eulate

Leiza-Zearria

Del Rey-Arruti

Larralde-Urberuaga

Domeka: 17:00. Bergarako

Udal polikiroldegian.




Arrasate-Durango errugbi partidua Atxabalpen

Euskal Ligaren barruan, Arrasateko taldeak Durango izango du aurre zapatuau, 16:00etan.



## > ANTHONY BLAKE

'El poder de la mente' zapatuauan, Elgetan > **45**



## > EUSKARAZKO WIKIPEDIA

Entziklopedia askea osatu nahi dute > **51**

> **FELIX  
SANCHEZ**  
Mutikotan hasi zen atletismoan eta argazkilaritza du beste zaletasunetako bat: *Runner's World* aldizkarian argitaratu izan dizkiote argazkiak > **47**



JESUS MARI LAZKANO



AURKEZPENA Lazcano, Guggenheimeko zuzendari Juan Ignacio Vidarterekin.

# Lazkanoren 'La curva del destino', Guggenheim

'Laboratorios' zikloa inauguratu du berigararrak; hainbat lanen sortze prozesua erakustea da helburua

### EDU MENDIBIL > BERGARA

Jesus Mari Lazcano margolari berigararrak *Laboratorios* izeneko zikloa inauguratu berri du Guggenheimen. 10. urteurrena betetzen dutela ospatzeko, museoaren bildumako hainbat lanen sortze prozesua erakustea da helburua. Orain dela hiru urte Bilboko museoaren enkarguz egin zuen *La curva del destino* margo-

lanaren prozesua erakutsiko dute lehenbizi, apirilaren erdialdera arte. Aipatutako koadroan New Yorkeko Manhattan auzoko ikuspegi pertsonala ematen du Lazkanok, errerealitatea, espazioa eta argia manipulatuta. 1988koa da *La curva del destino* lanaren jatorria, orduan egin baitzuen lehen bidaia New Yorkera. Arkitekturak eta espazioek berebiziko garrantzia izan dute Lazkanoren ibilbidean, lan horretan agerian dagoenez. Chicago, Dallas eta Roma ere landu ditu bere koadroetan. New Yorki buruz bi serie dauzka eginak.

*La curva del destino*-ren hasierako ideiatik azken emaitzara arteko prozesua jarraitzeko auke-

ra dago orain. Lazkanoren lana-ren eta ibilbidearen gaineko bideo bat, koadroaren lantzearen gaineko beste bideo bat eta bestelako materiala jarri dute ikusgai: "Koadroak izan duen bidaia moduko bat da erakusketa", diosku Lazkanok. "Aitzak ederra da espazioari eta denborari buruz hausnarketa egiteko. Ohore handia izan da ziklo hori zabaltzea".

### BILBOTIK ARCORÁ

Sortze prozesuaren gaineko hitzaldia egingo du Lazkanok Guggenheimen hilaren 27an, 19:00etan. Bien bitartean, Arco ferian izango da; Antonio Machon galeriarekin Berlini buruzko bi lan eramango ditu Madrilera.

LITERATURA &gt; AMODIOZKO GUTUNEN XV. LEHIAKETA

# Amodiozko gutun onena, Oihan Zubizarretarena

Oihan Zubizarreta gazte arrasatearrak irabazi du Jardun euskara elkarrekin antolatutako lehiaketa

Iñaki Serrano eibartarrak eskuratu du bigarren saria; Nerea Urtzelai izan da berargar onena

EDU MENDIBIL &gt; BERGARA

Oihan Zubizarreta 21 urteko arrasatearrak irabazi du Bergarako Jardun elkarrekin antolatutako Amodiozko Gutunen Lehiaketa. Aurtengoa lehiaketaren 15. ekitaldia izan da eta 37 gutun jaso dituzte, inoiz baino gutxiago.

Miren Agur Meabe idazleak, Garbiñe Intsausti kantariak, Uxue Alberdi idazleak eta iazko ekitaldian irabazlea izan zen Karlos Aizpurua zarautzarrak osatu dute epaimahaia. Finalisten eta saritutako lanen maila handia nabarmendu dute epaimahaiko kideek: "Tropeleko gutun guztiak izan dute esaldi ederrik eta printza nabarmenik. Gutun originalak badaude eta horiek baloratu ditugu bereziki. Gehienak gazte heteroseualen arteko harremanak izan dira. Maitasun deklarazioez gain, isilpeko maitasunak eta maitasun sekretuak ageri dira gehien, baita bata bestearengandik urrutu egoteak sor-

tzen dituen sentipenak eta ego-nezinak adierazten dituzten horiek ere. Bestalde, beste edizio batuetan ohikoa izan den tragediasuna ez da aurtengoan nabarmendu eta aipagarria da gutun umoretsuen presentzia".

**BESTE BI SARI**

Bigarren saria Iñaki Serrano 33 urteko eibartarrak eskuratu du. Lan oso originala dela azpimarratu du epaimahaia: Kant Von Fürstuckek maitasunaren balioa neuritzeko legea asmatu behar izan du neskatalguna maite due-la frogatzeko.

Era berean, beste bi sari eman dituzte: Nerea Urtzelai 18 urteko gazteak irabazi du berargar onenari zegokion saria. Protagonistak bere gaitz guztien jatorria izan den anorexiari idatzitako gutuna da. Anorexia pertsonifikatuz egileak joko polita egiten duela adierazi dute epaimahaiko kideek.



EPAIMAHAI A UXUE ALBERDI, MIGUEL ANGEL ELKOROBEREZIBAR JARDUNEKO ORDEZKARIA ETA MIREN AGUR MEABE, MARTITZENEAN. JARDUN

## Sari banaketa ekitaldia eguztenean, San Valentín egunean

Jardunek antolatutako lehiaketaren sari banaketa San Valentín egunean egitea tradizio bilakatu da. Aurtengoa Bergarako kultura etxearen izango da, eguztenean, 19:00etan. Ohikoa den moduan, sardinak euren gutunak irakurriko dituzte musikaz lagunduta.

Jarduneko Gazte Taldean ari diren Mikel Igartua eta Ane Arzamendi izango dira aurkezleak.

Gazteek protagonismo berezia dute Amodiozko Gutunen Lehiaketan. Sari nagusiez gain, irakurle gazteek emandako saria banatzen dute urtero, 26 urtetik beherakoentzat. Ainhizte Errasti 19 urteko arretxabaletarra izan da irabazlea aurren. 100 euroko saria izango da harentzat. Kasu honetan, Bergarako ikasle talde batek osatu du epaimahaia: Eneritz

Zuazolazigorraka, Judith Martinez, Loitzune Larrañaga, Idoia Ramirez de Okariz, Itziar Perez eta Ane Elortzak, hain zuzen ere.

Bestalde, telefono bidez bidaltzen diren mezuen gorakadaz jabetuta, SMS lehiaketa ere egiten da azken urteotan. Lehen saria Goizalde Hernando arrasatearrak irabazi du ondoko mezuagatik: "Gra2tat indrraz ny nuke jabtu, zre grputza nigna erkrtzeko. Uneoro zu nre ganean, ni zre azpian eotko. Newton ta bre sagarra. Zu ta ni". 90 euroko saria jasoko du Goizalde Hernandok eguzteneko ekitaldian.

Esan bezala, lehiaketa beteranoa bilakatu da dagoeneko Jardunen: orain arteko 15 ekitaldian 2.064 gutun jaso dituzte. Hitz polit ugari.

## Amodiozko Gutunen XV. Lehiaketako lehen saria



Oihan Zubizarreta  
21 urte - ARRASATE

**Frekuentzia modulatuan, gozero, gozero...**

Honenbestez goizak eman duena izan duzu hori entzule maite, bihar ere frekuentzietan galdu barik, hemen izango gaituzu, ondo izan...

Eta horrela, egunero agurtzen gaituzu entzule fidelenak. Zure ahots eztia garrazten hasita egoten da ordurako, nekatuta, dardarka. Eta hurrengo goizera arteko minutuen zain gelditzen gara, besteon eguna hastera doalako penatuta. Eta aurpegian gozero marrazten zaizkidan izaren arrastoak uretan garbitzen saiatzen naiz, gero tabernako zuloan itxura mantentzeko edo. Eta badakit bazkalondoko kafearekin (azukre gabe) aurkitu zaitudala han, eta presaka, urduri, balantzaka joaten naiz eguerdiko lehenengo minutuetan taberna irekitzera.

Oraindik ere gogoan daukat, lehenbiziko aldiz zure ahotsari aurpegia jarri nioneko hora. Ordura arte, tabernako barrara hurbiltzen ziren aurpegieki ahotsa jartzen ohiuta nintzen, ez ordea zurea hots eztia aurpegia bat irudikatzen, zure irribarrearen trazuak imajinatzen. Ezagutu zintudaneko eguna izan zen hora, eta zuk artean, betiko zerbitzaritzat ninduzun, nik ordea luzez ezagutzen nuen pertsona ikusi nuen aurrez aurre, eta ezagutu egin zintudan. Eta anonimo nintzen zure begietara, baina zu zinen nire belarrietara eta begietara. Eta pentsatzen dut maitasun radiofoniko bat zarela, edo bederen, ahotsaren parabola bat, edo komunikazioaren hiperbole bat... zer dakit nik.

Eta artean, egundo ez dizut ezer esan, "Laurogeita hamabost" baino ez, behin eta berriro, eta kikara alboan beti jartzen dizudan azukre poltsatxoa erretiratzen dut, eta zure gozotasunaren zatitxo hori egunero lapurtu. Eta ez dakit, gaur arte zenbat poltsatxo kolek-

zionatuko nituen, ehunka, milaka, ez dakit... asko. Gozoa zara eta, asko. Eta irri egiten diozu egunero, nire ateraldi xelebreari, azukrerik gabeko kafea hartzen duzula noiz ikasiko dudan zain. Bainaz zerbaite gehiago entzun gura nizuke, "kafe bat" baino zertxobait gehiago... eta egunero imajinatzen zaitut mikrofonoaren aurrean pausatuta, irakurtzen duzun notizia bakoitzari zein aurpegi jarriko diozun galdezka. Eta entzun gura nuke, zure ahotsak irratiko bozgorailuan kolpetxoak ematen dituen bitartean, tarteka zure arnasaren jolas nabaritzen den bitartean, merkadilloko galtzeten pareak merkatu direla, ogia inoiz baino gutxiago garestitu dela, munduan justizia dagoela, bihar eguzkiak esnatuko nauela... baina imajinatu gura zintuzket, niri hitz egiten, eta kafe gozoenak azukre gabek direla esaten eta zapore mingotsik ez duela uzten zure mihi puntan, eta tira, kafe goxo batek pizten dizula eguediroparen, eta maite nauzula... Ezen egunero markatzen baitzikizut axota gorri batekin tabernako egunkarian notizia kuriosoenak, biharamunean ahotsa jar diezalezun... eta urduri, nire baitan ezin kabiturik, itxaroten dizut irratien aurrean, bezperako ordu txikitam amak zorabiatzen duen frekuentzian zure ahotsa aurkituaz, instante bat bera ere galtzeko beldurrez. Eta batuetan AModiozko aurkituko zaitudala pentsatzen dut, eta irri inozo bat marrazten da nire ezpaintedan, eta frekuentziak galtzen ditudan orotan bilatzen zaitut... frekuentzia modulatuan, modulatuko nauzun zain... egunero entzuten zaitut, eta egunero ikusten...

Frekuentziak, kafeak eta trazu gorriak. Ahots gozoa dastatzeko, frekuentzia modulatuan lotuta zuri muxu bat edo bi emateko. Trazu gorriak frekuentzietan nahastu daitezten, maite nauzula entzun dezadan. Kafeak, frekuentzietatik ihes egiteko, elkarrekin galdu gaitezten eta bion mingotsa, bion gozoarekin nahastu dadila...

Eta gozero, egun ona opatu gura nizuke, lo orduen azkenetan izaratan kateatuta. Eta hitzokin, bide batez zu agurtu eta bihar arte ikusiko ez garenez, arrats ona opatu, eta biharko kafean itxarongo zaitudala esan.

*Axota gorriaren trazugileak,*

Bihar ere azukre gabekoa aterako dizut, seguru. Zure muxu gozo baten zain.

MENTALISMOA &gt; ZAPATUAN ELGETAN

# Anthony Blake ikusleen arreta bereganatzen ahaleginduko da

Anthony Blake bigarren aldiz izango da Elgetako Espaloia Kafe Antzokian; oroitzapen onak ditu

Litekeena da zuek lerro hauet irakurri orduko ikuskizunerako sarrera guztiak salduta egotea

## IKER BARANDIARAN &gt; ELGETA

Bihar, zapatua, Anthony Blake mentalista ezagunak ikuskizuna egingo du Elgetako Espaloia Kafe Antzokian. Emanaldia 22:30ean izango da, eta litekeena da artikulu hau irakurtzen duzuenerako ez dela sarrerarik geldituko. Eguna eguerdirako sarrera gutxi batzuk besterik ez zegoela jakinarazi ziguten Espaloikoek.

Anthony Blake izen artistikoa da, baina hala ezagutu dute nazioarteko hainbat herrialdean. Egiten duen diziplinari mentalismoa deitzen dio Blakek; besete batzuek, ordea, ilusionismoa edo kontrol mentala.

## NAZIOARTEAN IZENA DU

Thierry Malherbe, Julia Carruthers eta Augusto Carreras aditu en ikaslea izan zen, eta aspal-

ditik nazioarterko Psychic Entertainers Association elkarteko (entretenitzale psikikoen era-kundea) kide da.

Are gehiago, 2003an eta 2004an nazioarteko erakunde horrek lehenengo saria eman zion. Horrez gain, mentalista horrek hainbat ikuskizun egin ditu nazioarteko antzoki askotan.

## ELGETARA BUELTAZEKO IRRIKAN

Blakek hainbat liburu argitaratu ditu botere mentalaren, intuizioaren eta beste mundu batzuen gainean. Hainbat hizkuntzatan argitaratu dituzte liburu horiek.

Era berean, jakinarazi die Espaloiko arduradunei aurretik egin zuen bisitaren oso oroitzapen onak dituela, eta bueltatzeko irrikan dagoela; "Gogoan dut, batez ere, jendearen esku-hartza".



ANTHONY BLAKE Hori da mentalistaren izen artistikoa.

ESPALOIA

## &gt; ANTZERKIA

**'Meando fuera del tiesto' ikuskizunaren estreinaldia**

Datorren asteburuan, hilaren 18an hain justu, Kunka! antzerki taldeak *Meando fuera del tiesto* ikuskizunaren estreinaldia egingo du Arrasateko Amaia Udal Antzokian, 19:30ean.

Kunka! taldea Sobradun antzerki taldeko Gorka Aginagaldeko eta Elio Beatok sortu dute, besteak beste. Sobradun desagertuta dago, baina jakin badakigu Kunka! taldeak haien umore ganberroa berreskuratu duela.

## &gt; ZIRKUA

**Richards Bros zirkua  
Arrasaten izango da gaurtik astelehenera**

Azkeneko urteotan Holliday zirkua izan da Arrasaten. Aruten, berriz, Richards Bros joan da Eroski ondoko Arrueña parkera.

Ez dute abererik zirku horretan, eta gaurtik, egubakoitza, astelehenera bitartean ikuskizunak egingo dituzte: egubakoitzean, 18:30ean; zapatuan, 17:30ean eta 19:30ean; domekan, 12:00etan, 17:30ean eta 19:30ean; eta astelehenean, 18:30ean.

## Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

**ABOKATUAK**

**BERNARDINO MAIZTEGI**  
BERGARA / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

**JUAN ANTONIO SIERRA**  
BERGARA / Irizar 2  
T: 943 76 03 35

**LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER**  
ARRASATE / Iturriozt 15, 1 A  
T: 943 79 98 86  
F: 943 77 01 08  
altu-lasa@conet.es

**RAFAEL ARANBURU**  
BERGARA / Irizar 5  
T: 943 76 10 81

**AHOLKULARITZAK**

**AIERDI AHOLKULARITZA**  
BERGARA / Artekale 1  
T: 943 76 03 50

**ANDRA MARI AHOLKULARITZA**  
ARETXABAleta / Andra Mari auzunea 3  
T/F: 943 79 29 26  
andrama@arrakis.es

**ASEGI AHOLKULARIAK**

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4  
T: 943 71 25 49  
F: 943 71 17 79  
asegi@asegim.com

**TBG AHOLKULARITZA**  
BERGARA / Matxiategi 36  
T: 943 76 90 83

**ZENBAKI AHOLKULARIAK**  
ARETXABAleta / Basabe Ind. F-0-10 pab.  
T: 943 71 21 12  
F: 943 71 22 68  
zenbaki@zenbaki.es

**ARKITEKTO TEKNIKOAK**

**JESUS LASKURAIN PEREZ**  
BERGARA / Zurradero 4  
T: 943 76 53 53

**EKONOMISTAK**

**ARROBI / ANDONI URIBE ETXEBAARRIA**  
ESKORIATZA / Hidalga kalea 22, behe  
T: 943 533 888  
F: 943 533 865  
uribe.arrobi@euskalnet.net

**ETXE ADMINISTRAZIOAK**

**URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK**  
ARRASATE / Otalora 16, solairuarte esk.  
T: 943 79 51 25  
F: 943 71 19 85  
URIBESALGO@telefonica.net

**GESTORIAK**

**EGUREN**  
BERGARA / Irala 3  
T: 943 76 21 65

**PROKURADOREAK**

**JOSE M. BARRIOLA ETXEBAERRIA**  
DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma  
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

Iragarkia jarri nahi baduzu,  
deitu 943 71 23 91 zenbakira.

**ETXEBIZITZAK SALGAI**  
**Bergara:**  
 • San Antonio 50 m<sup>2</sup>. Berritua.  
 • Artekale, 12m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Masterreka 92 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Koldo Eleizalde 87 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Angiozar Bi solairu. Berriozko.  
 • San Pedro 110 m<sup>2</sup>. Estreñateko.  
 • Zabalotegi 50 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • San Pedro 65 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
 • Masterreka 78 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
 • Simon Arrieta 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Ibarra 87 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Ortuñua 97 m<sup>2</sup>. Oso ondo.  
 • Osintxu 95 m<sup>2</sup>. Prezio ona.  
 • Zubiaurre 60 m<sup>2</sup>. Berritua.  
**Etxebizitza berrien eraikuntza San Lorentzen, 2-3 logela, duplex-ak. Prezio ezin hobeak.**  
**Elgeta:**  
 • Etxebizitza berrien eraikuntza, 2-3 logela. Duplex-ak, garajeak, terraza. Bista politak.

**DEBA GARAIA INMOBILIARIA**  
 Telefono: Aranzadi 2  
 T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37

**BERGARA**  
 • Matxiategi, 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Simon Arrieta, 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Iparagirre, 160 m<sup>2</sup>. Berriozko.  
 • Artekale, 72m<sup>2</sup>. Oso Ondo.  
 • Bidekeruturria, 55 m<sup>2</sup>. Berriozko.  
 • Ibarra, 118 m<sup>2</sup>. Oso Ondo.  
 • Zubiaurre, 60 m<sup>2</sup>. Prezio Ona.  
 • Ibarra, 70 m<sup>2</sup>. Berria.  
 • Zabalotegi, 80 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Koldo Eleizalde, 107 m<sup>2</sup>. Ondo.  
 • Zabalotegi, 65 m<sup>2</sup>. Oso Ondo.  
 • Osintxu 95 m<sup>2</sup>. Garajearekin. Ondo.  
 • Osintxu, 125m<sup>2</sup>. Berriozko.  
 • San Lorenzo, 18 etxebizitza berri, garajeak eta trastelekuarekin.

**SORALUZE**  
 • Gabolatz, 65 m<sup>2</sup>. Oso Ondo.  
 • Atxuri, 93 m<sup>2</sup>. Oso Ondo.  
 • Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>. Erdi Berritua.

**ANTZUOLA**  
 • Beheko auzoa, 53 m<sup>2</sup>. Prezio Ona.  
 • Duplex berria, erdialdean  
 • Eguzki auzoa, 85 m<sup>2</sup>. Erdi Berritua.

**Tel:** 943 77 19 19 / 677 49 89 89

**ARRASATE**  
 • San Andres. 3 logela, egongela, sukaldetua, komuna eta trasteleku. 35.500.000 pezeta.  
 • Doneretea Portuko kalea. 3 logela, egongela, sukaldetua eta komuna. 35.500.000 pezeta.  
 • San Josepe. Erabat berritua. Igogailua. 42.000.000 pezeta.  
 • Zentroa. 84 m<sup>2</sup>. Igogailua.  
 • Zentroa. 45 m<sup>2</sup>. Igogailua.  
 • Makatzena. 72 m<sup>2</sup>. Berriozko.  
 • Ergun 65 m<sup>2</sup>. Oso ondo.

**ARETXABALETA**  
 • Markole. 99 m<sup>2</sup>. Bi trasteleku eta garajeak.  
 • Etxe bakaria, 140 m<sup>2</sup>. 400 m<sup>2</sup>-ko.  
 • Portasol. 85 m<sup>2</sup>. Berritua. Prezio ona.  
[www.alfamondragon.com](http://www.alfamondragon.com)  
 orrialdean 7.000 etxebizitza balio gehiago aukera

**1/ ETXEBIZITZAK****101. SALDU**

**Antzuola.** Beheko auzoan, 4. solairua. Bi logela, egongela, bainugela eta ganbara ditu. Eguzkitsua eta berritua. 639 58 13 83.

**Aretxabaleta.** Ganbaran dagoen etxebizitza salgai Durana kalean. 72 metro koadro. Hiru logela, egongela, sukaldetua, bainugela eta trasteleku. Eraberritu egin behar da. Garajeak, aukeraen. 659 64 67 38.

**Aretxabaleta.** Loramendi kalea. 3 logela, berogailua, igogailua eta garajeak. 699 10 08 58.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. Otañora 2an. Azken solairua, ikuspegi zoragarria, 3 logela, 2 komun. Bizi izatera sartzeko moduan. 675 71 37 27.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai. Zerkaosteta kalean, 83 metro koadroko, hiru logela, egongela, sukaldetua, bainugela, bainugela eta ganbara. Igogailua ere bai. 659 39 98 19.

**Arrasate.** Erdialdean. Hiru logela eta igogailua. Guztiz jantzia. 605 76 36 24.

**Arrasate.** Jose Luis Iñarra kalea. 4 gela, trasteleku, garajeak eta bi bainu. Berriozko. Telefonoa: 687 05 14 94.

**Arrasate.** San Andres auzoan. 200.000 euro. 635 75 50 36.

**Arrasate.** San Andresen, Doctor Bañez kalean. 75 metro koadro. Berriozko. Beharrean. 230.000 euro. 629 10 41 31.

**Arrasate.** Zerkaosteta kalean etxebizitza salgai. 85 m<sup>2</sup>. Egongela, hiru logela, bi bainugela eta bainugela eta bainugela. 659 39 98 19.

**Arrasate.** Zigorrolan. Hiru logela, egongela, bainua, sukaldetua eta trasteleku. Oso eguzkitsua. 652 73 22 83.

**Bergara.** Etxebizitza salgai Tokiederren. 607 27 20 23.

**Bergara.** Baseria salgai. 260 m<sup>2</sup>-ko koadrillaren. Garajeak eta 300 m<sup>2</sup>-ko lursaila. Telefonoa: 660 04 58 60.

**Bergara.** Duplex berria salgai. Igogailua eta garajeak. Garaje itxia aukera. 943 53 26 81.

**Bergara.** Etxea salgai Boni Lasurainen. Hiru logela, 90 m<sup>2</sup>.

**102. EROSI**

**Oñati etxebizitza erosiko nuke.** 619 88 88 72.

**103. ERRENTAN EMAN**

**Benidorm.** Apartamentua garajearekin errentan ematen da.

**104. ERRENTAN HARTU**

**Aretxabaleta.** Bi gazte langilek errentan ematen da.

**105. ETEXAK OSATU**

**Arrasate.** Ikasle bat bainu bat alokatzen prest. Etxe handia eta umeak eta unibertsitatek bi minutura. Deitu telefono honeketa: 699 14 37 79.

**106. BESTELAKOAK**

**Bergara.** Emakumea gertu atariak garbitzeko.

**107. GARAJEAK**

**108. SALDU**

**Arrasate.** Garaje plaza bat salgai Uribarri etorbidean. Telefonoa: 625 47 61 62.

**109. ERRENTAN EMAN**

**Benidorm.** Apartamentua garajearekin errentan ematen da.

**110. ESKAERAK**

**111. LANA**

**112. ESKAINTZAK**

**113. IRAKASKUNTZA**

**114. JASO**

**115. HARREMANAK**

**116. RELAX**

**117. ANIMALIAK**

**118. MOTORRA**

**119. DENETARIK**

**120. ALOKATU**

**121. EMAN**

**122. AGURRAK**

**123. HARRERMANAK**

**124. DEJAK**

**125. BESTELAKOAK**

**126. ESKAERAK**

**127. OÑATI**

**128. FRANTSESEKO ETA INGELESEKO IRAKASLEAK**

**129. IRAGARKI SAILKATUAK**

**130. GOIENKARIA**

**131. GARBIA**

**132. PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN**

**133. AURKAKO TRATAMENDU**

**134. ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**135. 603. ALOKATU**

**136. 7/ ANIMALIAK**

**137. 703. EMAN**

**138. 704. SALDU**

**139. 8/ DENETARIK**

**140. 801. SALDU**

**141. 802. EROSI**

**142. 803. EMAN**

**143. 804. HARREMANAK**

**144. 805. RELAX**

**145. 806. ANIMALIAK**

**146. 807. MOTORRA**

**147. 808. DENETARIK**

**148. 809. ALOKATU**

**149. 810. EMAN**

**150. 811. HARREMANAK**

**151. 812. RELAX**

**152. 813. ANIMALIAK**

**153. 814. MOTORRA**

**154. 815. DENETARIK**

**155. 816. ALOKATU**

**156. 817. EMAN**

**157. 818. HARREMANAK**

**158. 819. RELAX**

**159. 820. ANIMALIAK**

**160. 821. MOTORRA**

**161. 822. DENETARIK**

**162. 823. ALOKATU**

**163. 824. EMAN**

**164. 825. HARREMANAK**

**165. 826. RELAX**

**166. 827. ANIMALIAK**

**167. 828. MOTORRA**

**168. 829. DENETARIK**

**169. 830. ALOKATU**

**170. 831. EMAN**

**171. 832. HARREMANAK**

**172. 833. RELAX**

**173. 834. ANIMALIAK**

**174. 835. MOTORRA**

**175. 836. DENETARIK**

**176. 837. ALOKATU**

**177. 838. EMAN**

**178. 839. HARREMANAK**

**179. 840. RELAX**

**180. 841. ANIMALIAK**

**181. 842. MOTORRA**

**182. 843. DENETARIK**

**183. 844. ALOKATU**

</



**Juan Antonio Gomez de Segura eta Maria Dolores Aiastuik**  
25. urteurrena bete zuten urtarrilaren 30ean. Otsailaren 4an ospatu zuten familiakoekin batera urtemuga hori, Bergarako Zume-laga jatetxeen. Zorionak, familiako guztien partetik.

## hildakoak

- **Julia Siena Portal.** Oñatin, otsailaren 5ean. 84 urte.
- **Esteban Melero Valencia.** Arrasaten, urtarrilaren 30ean. 89 urte.
- **Juan Mari Lasagabaster Unzurrunzaga.** Arrasaten, otsailaren 4an. 69 urte.
- **Paulino Lasanta Otalora.** Arrasaten, otsailaren 4an. 85 urte.
- **Jose Manuel Palacios Ipiña.** Arrasaten, otsailaren 6an. 64 urte.
- **Teresa Leonor Benito Garcia.** Arrasaten, otsailaren 2an. 85 urte.
- **Pedro Arrazola Olañeta.** Elgetan, otsailaren 5ean. 85 urte.
- **Irene Teresa Zendin Amaro.** Bergaran, otsailaren 2an. 70 urte.
- **Pakita Agirrezabal Belastegi.** Bergaran, otsailaren 2an. 82 urte.
- **Susana Sanchez Ramirez.** Bergaran, otsailaren 4an. 83 urte.
- **Maria Freitas Plaza.** Bergaran, otsailaren 3an. 77 urte.
- **Simon Garitano Berraondo.** Bergaran, otsailaren 5ean. 89 urte.

## ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu,  
deitu telefono honetara  
eguen eguerdia baino lehen:

**943 25 05 01**

Edo zatoz ordezkaritza batera,  
eguzaten eguerdia baino lehen:

### Arrasate

Goiena: Otalora lizenziaduna 31. 943 71 25 11.  
Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 79 21 00.

### Bergara

Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 01.

### Oñati

Biklon publizitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65.  
Laixan euskara elkartea: Bidebarrieta 18. 943 71 63 11.

### Aretxabaleta

Goiena: Durana 11. 943 79 86 21.

### Aramaio

Kintelena janaridenda: Nardeaga 11. 945 44 50 22

### Elgeta

Mariasun janaridenda: Salbador 26. 943 76 81 90.

### Eskelaren prezioa: 87 euro.

Prezio berezia:  
egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN,  
bietan, argitaratuz gero, **100** euro.

**Goienkaria: astero, 45.000 irakurle.**



ESKER ONA

## Simon Garitano Berraondo

Andresa Garitanoren alarguna

Bergaran hil zen 2007ko otsailaren 5ean, 89 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko otsailaren 9an.


ESKER ONA

## Maria Freitas Plaza

Sergio Ciden alarguna

Donostian hil zen 2007ko otsailaren 5an, 77 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko otsailaren 9an.

ESKER ONA

## Maria Luisa Billar Beloki

Eskoriatzan hil zen 2007ko urtarrilaren 5ean, 88 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Eskoriatzan, 2007ko otsailaren 6an.

ESKER ONA

## Juan Maria Lasagabaster Unzurrunzaga

Arrasaten hil zen 2007ko otsailaren 4an, 68 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2007ko otsailaren 9an.

URTEURRENA

## Julian Gorosabel Romaratezabala

Lehen urteurreneko meza  
domekan, otsailaren 11n,

10:50ean,

Bergarako San Prudentzioko elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

ESKER ONA

## Susana Sanchez Ramirez

Victor Mujikaren alarguna

Bergaran hil zen 2007ko otsailaren 4an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko otsailaren 9an.

ESKER ONA

## Pakita Agirrezabal Belastegi

Francisco Erceren alarguna

Bergaran hil zen 2007ko otsailaren 2an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara etorritakoei  
eta samin-agurrak  
bidali zenizkigutenoi,  
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2007ko otsailaren 9an.

URTEURRENA

## Angel Mikeo Azpiroz

Angiozarren hil zen 2006ko otsailaren 5ean, 79 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza eta manta jasotzea  
domekan, otsailaren 11n,  
11:00etan,  
Angiozarko San Miguel Goiaingeruaren elizan.



Emaztea: Benita Gorosabel Belar;  
seme-alabak: Jose Angel eta Loinatz Lasa, Xabier eta Idoia Beitia;  
biloba: Eñaut.

ESKELA

## Juan Maria Lasagabaster Unzurrunzaga

Arrasaten hil zen 2007ko otsailaren 4an, 68 urte zituela.

Zure elkartekideak.



Leitzel elkartea.  
Arrasaten, 2007ko otsailaren 9an.

URTEURRENA

## Anton Martinez de Agirre Igartua

Lehen urteurreneko meza  
zapatuan, otsailaren 10ean,


19:30ean,

Arretxabaletako San Miguel elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,  
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

## bila-bila 7



## hitz gezidunak

	* Irudiko animalia	Batekoa	Bihia, alea
	Hegoa	Garaipena	Ondua
Aldapa			
Leku harten			
Maindire, izara	Ibarra		
Musika tresna	Jatorri atzizkia		
Hazia		Dauka	
Titulu britainiarra		Pl., infusio mota	
Sufrea	Palestinako hiria		H2O
Ez hotz, ez epel	Röntgen		Uranioa
			Bokala
		Ahuntzaren ar	


GOIENKARIA

## sudokua

1		9			2		8
	7		3		9	6	
		1		8			
2							3
7		5	6				4
8							9
		7	1				
8	9		2		1		
3	2			5		7	

## hieroglifikoak

Zenbat urte du osaba Joxek?



## hizki salda

Euskal Herriko 5 musika talde

A	Q	S	I	M	O	T	R	I
E	P	I	R	R	I	T	X	U
F	E	L	O	M	I	X	A	N
E	S	T	I	X	E	I	C	U
T	M	O	K	O	T	R	A	T
I	N	I	D	I	O	R	U	X
N	A	T	R	U	K	I	T	I
M	E	R	I	R	O	I	A	N
O	S	K	E	R	I	O	P	O

## bono fotoa



Irudiaren erdialdean ageri den tontorra Aloña Mendi bezala da ezaguna, baina bere izen jatorra beste bat da. Zein?

Argazkia eta galdera > Iñigo Biain

## Super BM

Super BMk emandako  
50 euroko erosketa-txartela  
zozketatuko du GOIENKARIAK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOIA .....

Ekarri txartela MARTITZEN EGUERDIRAKO  
Golenako edozein egoitzara

## Berberana ardo beltz gaztea

75 cl-ko botila


1,59 € 265 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

ELENA AGIRRErendako izan da erosketa-txartela. Zorionak!

Galderaren erantzuna: 1975ean hasi eta 1979an bukatu zuten Urkuluko urtegia.



## umore giroan

Kike Amonarriz

## Politikari ustelak

Mexikoko egunkari batek titular honekin zabaldu omen zuen lehen orria duela hilabete batzuk:

Gure politikari erdiak ustelduta daude.




Mexikoko parlamentua eta alderdi politiko guztietako egoitzak asaldatu egin omen ziren albistea irakurtzerakoan. Egunkariaren zuzendariak inoiz ez bezalako presioak jasan behar izan omen zituen, argitaratutako zuzentzeko.

Biharamunean honela zabaldu zuen egunkaria:


Gure politikari erdiak ez daude ustelduta.

Mexikon gertatu zela esan dut, ezta?

## soluzioak




Hieroglifikoak: Berrogegi.





# EGIN TXOTX! sagardotegietan



## Saizar

Kale-Zahar auzoa 39 / USURBIL  
943 36 22 28

- Urte guztian irekita
- Txotx garaian sagardotegiko menua sagardotegian
- Jatetxean urte guztian kartara
- Igande gauean eta astelehenen eguerdian itxita
- Bertako janaria
- 500 lagunendako lekua eserita
- "Tolare" sagardotegia



## Larre-Gain

Larre-gain sagardotegia  
HERNANI  
943 55 58 46 / 616 28 78 67

- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Bakailoa saltsan, aurrez deitura
- Astegunetan, gauetan bakarrik zabalik
- Egubakoitzetan eta zapatueta egin osoa zabalik
- Domeketan, eguerdira arte zabalik
- Astelehenetan, itxita
- "Tolare" sagardotegia



## Iparragirre

Iparragirre baseria / HERNANI  
943 55 03 28 / 639 05 33 10  
[www.iparragirre.com](http://www.iparragirre.com)

- Zutik edo eserita
- Eguaztenetik zapatura gaez bakarrik
- Zapatu eguerdietan zabalik
- Sagardoa botilan saltzen da
- Autobusak aparkatzeko tokia gordetzen dugu
- "Zabadiz" banataile ofiziala
- "Tolare" sagardotegia



## Arratzain

Arratzain Zahar baseria  
Arratzain auzoa / USURBIL  
943 36 66 63

[www.agroturismoarratzain.com](http://www.agroturismoarratzain.com) • [info@agroturismoarratzain.com](mailto:info@agroturismoarratzain.com)

- Sagardotegia, nekazaritza turismoa eta jatetxea.
- Urtarriletik maiatzera arte sagardotegia irekita
- Urte osoan erretegia
- Janaria sagardotegiak jartzen du
- Lekua: 120 lagun, eserita edo zutik



## Ixaun

Elosu auzoa / BERGARA  
943 85 32 50

- Egubakoitzak, zapatuak eta domekak zabalik
- Sagardotegiko menua
- Baserriko oilaskoa eta arkumea enkarguz
- Bertako janaria
- 55 lagunendako lekua



## Elutxeta

Elutxeta baseria / URNIETA  
943 55 69 81

- Urte osoa zabalik.
- Apiril bukaera arte txotxetik.
- Astelehenetan itxita.
- Erretegia urte osoan.
- Bertako janaria.
- 200 lagunendako lekua, eserita edo zutik
- "Tolare" sagardotegia



## Rezola

Ipintza baseria / ASTIGARRAGA  
943 55 27 20 / 608 14 33 32


- Txotx garaian zabalik.
- Enkarguz: Arkumea eta txarrikumea burduntzira eta arraina parrillan
- "Tolare" sagardotegia



## Begiristain

Iturrioz baseria / IKAZTEGIETA  
943 65 28 37  
[s.begiristain@terra.es](mailto:s.begiristain@terra.es)

- Urtarriletik uztail bukaera arte zabalik, sagardoa txotxetik
- Afariak astelehenetik zapatura, bazkariak eguenetik zapatura
- Sagardotegiko menua
- Arkumea burruntzian enkarguz
- "Tolare" sagardotegia



## Zabala

Garagartza baseria / ADUNA  
(Andoain eta Billabona artean)  
943 69 07 74

- Urtarriletik maiatz hasiera arte zabalik
- Zapatu eta domeka eguerdietan enkarguz
- Bertako janaria
- Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako Sagardo Lehiakitetan, 2002an finalistik eta 2004an eta 2006an irabazleak.
- Botilak salgai urte osoan
- "Tolare" sagardotegia

Felix Sanchez > Atletismoa eta argazkilarietza maite ditu

# "Olinpiar Jokoetan argazkiak ateratzen ibiltzea izugarria izango litzateke"

Felix Sanchez oñatiarra beti eza-gutu izan dugu antxintxika. 9 urte zituela hasi zen atletismoan eta

orduz gero hor dabil. Azken urte- etan, gainera, argazkiak atera-tzeko zaletasuna ere hartu du:

kirol argazkiak ateratzen ditu eta gero *Runner's World* aldizkariak argitaratzen ditu. Hain zuzen,

<http://es.geocities.com/djmary79> helbidean daude Felix Sanchez-en argazkiak.

**ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI**  
Gauzé lanean zebilela, arratsalde partean egin dugu hitzordua Felix Sanchezekin, Oñatin. Etxean hartu gaitu, gustuko duen musikaren doinuak lagunduta. Atletismoa eta argazkilarietza ditu zaletasun handienak, eta, horretaz jardun dugu.

**Zenbat urte daramazu atletis-moan?**

Mutikotan, 9 urterekin hasi nintzen, Arrasate-Oñati lasterketa egiten. Anaiak ere antxintxi-ka egiten zuen, eta horregatik hasi nintzen. Hasiera batean, Legazpiko taldean aritu nintzen, Oñatin ez baitzegoen talderik. 16 urte arte Aloñan aritu nintzen eta geroztik Arrasateko taldean nago. Hala ere, azken zazpi urte-ak min hartuta ibili naiz; ez dut lasterketetan parte hartu.

**Zein da lortu duzun garaipen handiena?**

Atletismoan lortu dudan garaipen handiena Gipuzkoako Txapelketa izan da. Beste behin. Euskadiko Txapelketan, nire adinekoen artean lehenengo geratu nintzen, baina ez kategoriako lehenengo; beraz, ez zidaten garaikurrik eman. Nire espezializazioak 800 metro eta iraupen erdiko lasterketak izan dira.

Beste behin, Spainiako kros txapelketako ordezko izan nintzen, baina azkenean ez nuen parte hartzeko aukerarik izan.

**Atletismoan, izan al duzu erre-ferenterik?**


Bai, asko. Martin Fiz, González, Abascal, Fermín Cacho... Horiek, besteak beste, izen handiak izan dira atletismoan.

**Eta zer da gogorragoa, 800 metro egitea ala goizean goiz lanera joateko jaikitzea?**

Pertsona nekatu egiten da lanean, baina ez da sufrirera iristen. Kirolean, berriz, mugara joanez gero, sufrimendura irits daiteke. Egunero zortzi ordu lan egitea gogorra da, baina ez da sufritzen.

**Zer egiten duzu lanetik ateratakoan?**

Normalean, lanetik ateratzen naizenean entrenatu egiten naiz. Aste bukaerak, berriz, beste gauza batzuk egiteko aprobetxatzen ditut; inguruan lasterketaren bat badago, hara hurbiltzen naiz argazkiak ateratzen. Gustuko dut kamerarekin ibiltzea. Gero, argazkiak *Runner's World* aldizkarian argitaratzen dizkidate.



FELIX SANCHEZ

## PERTSONALIA

**Herrria:** Oñati. **Adina:** 27 urte. **Ikasketak:** Mekanizatua ikasketak. **Zaletasunak:** Atletismoa eta argazkilarietza. **Gorrotatzen duzu zerbaite?** Batzuek hainbeste eta beste batzuek hain gutxi izatea. **Ze filmetako protagonistarekin identifikatzen zara?**

*Carros de fuego*-ko pertsonaiarekin. **Kolore bat?** Gorria. **Baduzu maniarik?** Asko izango ditut, baina orain ez zait bat bera ere gogora etortzen. **Amets bat?** Olinpiar Jokoetan txapeldun izatea. **Nomiresten duzu?** Afrikako atleta guztiak.

Beraz, kirol argazkilarietza espezializatuta zuadela esan daiteke.

Bai, normalean kirol argazkiak egiten ditut. Atletismoa gustuko dudanez, lasterketak ikus-teria joaten naiz eta bide batez argazkiak egiten ditut. Argazkiak *Runner's World* aldizkarian ateratzen dira eta inoiz ere idatziz izan dut kronikaren bat. Azkenaldian, ezkontzaren baten ere izan naiz argazkiak egiten, eta etxeen estudiooko argazkiak ateratzeko gela bat moldatu dut. Baino normalean, kirol argazkiak egiten ditut.

**Nolako argazkia aterako zenioke Oñatiri?**

Edozein argazki, baina zuri-beltzean aterako nuke. Arantza-zu aldean argazki politak ateradaitezke, eta baita plazako kan-pandorretik ere, herri guztien argazki bat. Egia esan, Oñatin argazkiak ateratzeko leku aproposak daude; monumentu asko dago eta naturak ere aukera ugari ematen ditu argazkiak ateratzeko.

**Nori egingo zenioke argazki erreportaje bat?**

Hicham El Guerrouj-i; hora azken urteetako atleta onena da. Atenasko Olinpiar Jokoetan 7.500 eta 5.000 metroko probetan txapeldun izandakoa.

**Zelan hasi zinen argazkilarietza? Betidanik atsegin izan duzu?**


Betidanik atletismoa gustatu izan zait eta batak bestera era-man nau.

**Ze lasterketatan aterako zenituzke argazkiak gustura asko?**

Olinpiar Jokoetan, duda barik. Lehiatzaezin naizenez joan, argazkilari joan beharko dut.

**Zure beste zaletasun bat musika da. DJ Mari izenarekin, Oñatiko jaietan musika jarri izan duzu.**

Bai, baina zaletasun hori alde batera utzita daukat. Gazteagoa nintzenean aritu nintzen, musika oso gustuko dut-eta. Oñatiko jaietan musika jarri izan dut, hiru urtez jarraian, Oñatiko txos-nagunean. Bestalde, gaztelekuaren egin izan dugu inoiz jaialdi-ren bat. Oñatiko jaietan, adibidez, oso giro ona sortzen da. Urte batean, DJ Kirrin eta biok aritu ginen eta izugarrizko jende mor-doa ibili zen dantzan.



WIKIPEDIA ENTZIKLOPEDIA Ezkerrean entziklopediaren logoa handiz, De Juanaren gaineko artikuluarekin.

X.U.

INTERNET &gt; BLOGAK

## Euskarazko Wikipedia entziklopedia librean parte hartzeko aukera

Euskarazko Wikipedia hainbat lankidek blog berria sortu dute, wikipedia bera gizarteratzeko asmoarekin. Entziklopedia askea osatu nahi dute

X.U. > ARETXABAleta  
Blog berriaren helbidea [www.wikipedia.zabaldu.com](http://www.wikipedia.zabaldu.com) da eta bertan aurkituko duzue euskaraz egindako entziklopedia askearen gaineko informazio guztia: "Blog horrek Euskarazko Wikipedian izaten diren berrikuntza eta beharren inguruan informatzea du helburu. Bertan, lankidetzen aritzeko lagungarri

diren ekimen eta ideia ugari sortzen dira, hala nola: proiektuak, artikulu eskaerak, atariak, eta abar. Horiek guztiak zabaldu eta jende gehiagoren garaian iristeko asmoz, Wikipediako hainbat lankideren artean blog hori sortzea erabaki dugu, parte hartzeko aukera hori guztioi gertuagotik jakinarazteko". Hala, geroago eta lagun gehiagok hartzen du Wikipedia proiektuan esku, eta era-biltzaile kopurua gora dator.

### GUZTION ARTEAN EGINDAKOA

Hori da Wikipediaren berezitasaun nabarmenena, guzton artean egiten dugun entziklopedia dela, alegia: "Web 2.0an oinarritutako metodologia sozial horretaz baliatuz euskarazko entziklopedia baliotsua eta garatuena sor dezakogula uste dugunez, hura indartu eta edukiak hobetuz dihardugu. Euskaraz baditugu

beste zenbait entziklopedia, hemen aipatuko ez ditugunak, baina Wikipediak badu berezitasun bat: guzton artean eginez jakintza hori zabalagoa izateko aukera izateaz gain, beti eguneratua edukitzeko aukera ere eskaintzen duela, hain zuzen".

Hori erakusteko adibide grafikoa egin dute blogean. Iñaki De Juanaren gainean berri emanet, erretratuz, eta beste hainbat loturarekin osatua. Hori da Wikipediaren balio handienetako bat, informazioa eguneratua izan daitzeela, orain arteko entziklopediak argitaratu eta gutxira zaharrituta geratu izan dira-eta.

Bloga berria denez –urtarril amaierakoa–, oraingo artxiboaari ezin zaio gauza askorik eskatu, ezta atalen zutabeari ere. Euskarazko Wikipedia osatzen doan neurrian, baina, bloga bera ere joango da handitzen.

## teknologia berriak

### > TELEFONIA

#### Oporretara goazenean, Samsung i7a argazki kamera berria gidari lana egiteko gauza ere bada

Bai, erretratuau daukazuena argazki kamera bat da, ez besterik. Baina egungo multimedia gailuek geroago eta aukera gehiago ematen dituzte. Kameraren ezaugarriei dagokienez, biratu egiten duen hiru hazbeteko (pulgada) LCDa du bitxikeria handiena. Hala, bideo grabagailu, multimedia erreproduzitzale eta bestelako aukerekin batera, badu *Tour Guide* izeneko berritasuna. 30 lurraldetako leku interesgarrirenak erakusteko gai da, oporretara joaten garenerako.



7 megapixeleteko gaitasunarekin, 28-100 milimetroko fokal baliokidea du, eta ISO 1600en lan egin dezake.

### > BIDEOKAMERA

#### Txutxu-mutxuekin amaitu guran, Canon etxeak HV20 modeloa aurkeztu du bideozaleendako

Filtrazio bat dela medio, Interneten txutxu-mutxu mordoa egon da Canon etxearen bideokamera berriaren gainean. Azkenean, etxe japoniarak HV20 modeloa lehenbailean aurkezteera erabaki du; hor duzue emaitza.

HV10 aurreko modeloa baino landuagoa da hori, erabilera profesionalagora zuzenduta. 24F moldean egina –kamera profesionalen modura–, zinema formatuarekin antzekotasun handia du kamera berri horrek.



1/2,7 hazbeteko CMOS sentsoreak 3 megapixeletan grabatzen du (1920x1080 pixel).

### > PDA

#### Vodafonek merkaturatuko du jaioberri den Palm Treo 750v eskuko ordenagailua

Beste smartphone baten berri ematera dator Vodafone, etxe horrek merkaturatuko du-eta Treo 750v modeloa: telefonoa, Internet, posta elektronikoa eta Windows Mobile 5.2 batzen dituen gailua, hain zuzen ere.

Esandako moduan, momentuz Vodafoneko 3G konexioarekin egingo du lan. Berritasunen artean daude 128 megako memoria gaitasuna, 300 MHzko prozesadorea, MiniSD arteka eta 1,3 megapixeleteko argazki kamera. 157 gramo baino ez du pisatzen.



Antena barik askoz ere itxura hobea du modelo berriak. Baina pantailako bereizmenean badute oraindik zer hobetu.

## Zure negozioaren erakusleihoa Interneten

[www.goiena.net-eko-blog-komertzialak](http://www.goiena.net-eko-blog-komertzialak)

[www.goiena.net/blogak](http://www.goiena.net/blogak)

/aebpn /dragon-oriental  
/aiastui /dukienna  
/aretxargi /ego  
/argi-plastik /ekilore  
/arregi /egin  
/atai /elejalde  
/azkarate /ezkutuorly  
/bastida /galgorri  
/briz-aseguruak /gallastegi  
/BZ-sistemas /ganesha  
/garaia

/gertu /gorkataxi  
/gurea /guizededer  
/hamakataberna /itxaseder  
/irudisport /jracinq  
/joseba /korozabaleta  
/markiegia

/maulanda /mayte  
/merkeopari /multioptic  
/ohiak /ogizun  
/okipark /otzeta  
/pando /quattro4  
/richimaier

Eta baita ere:

[www.aizue.com](http://www.aizue.com)  
[www.lilura.com](http://www.lilura.com)  
[www.baster-aldejatetxea.com](http://www.baster-aldejatetxea.com)  
[www.ehmff.com](http://www.ehmff.com)  
[www.gelatzu.com](http://www.gelatzu.com)  
[www.haurtxoa.com](http://www.haurtxoa.com)  
[www.klorofila.com](http://www.klorofila.com)  
[www.landaluze.com](http://www.landaluze.com)  
[www.uxarte.net](http://www.uxarte.net)



**berriak**

> GOITB  
**Aratusteei buruzko saio berezia martitzenean**

Ttipi-Ttapa telebistak ekoiztutako *Inauteriak* 2007saioa ikus-teko aukera izango duzue martitzenean. Mielotxin, Hartz eta beste pertsonaia batzuk egunotan ateratzen dira Ituren eta Zubietako Inauterietan. Goizean goiz elkartzen dira joaldunak, gosaltzeko eta kalea ateratzeko prestatzeko. Iturennetik Zubietarako bidea egin dute aurten. Han jasotako irudiak emango dituzte GOITBn martitzenean, 21:45ean.

> GOITB  
**Ahotsak-eko kideak 'Berbaire' tertulia saioan eguztenean**

Ahotsak plataformaren gainerako saioa berezia izango da datorren asteko *Berbaire*: Jone Goirizelaia, Gema Gonzalez de Txabarri, Onintza Lasa, Duñike Agirrezabalaga-Ainhoa Aznares eta Aintzane Ezenarro Gorka Etxabe kazetariarekin arituko dira solasean plataformako kideak eguztenean, 21:15ean. Gaurkotasuneko gaiak iza-tenten dira eztabaigai astero *Berbaire* saioan.

>ARRASATE IRRATIA  
**Santaeskea eta Onintza Lasa, besteak beste, asteburuan**

Astelehenean Santa Ageda eguna izan zenez, Mesedeetako Andra Maria ikastetxeko ikasle eta irakasleak Santa eskean, kantuan, etorri zitzaz-kigun. Ondo prestatuta etorri zirela erakutsiko dizuegu *Aste-ko gainbegiratua* saioan.

Horrez gain, Onintza Lasak, Ahotsak plataformako kidea eta EA alderdiko komunikazio idazkariak, kontatu-takoak ere berriz entzuteko aukera izango duzue.

> ARRASATE IRRATIA  
**Zorion agurren geltokia egunero 107.7ko autobusean**

Egunero dugu zorion agurren geltokia *Igo autobusera!* saio-an. Goizetan 11:30ean da hitzordua eta arratsaldeetan berriz ere entzuteko aukera duzue, besteak beste, 17:00eta-ko albistegiarekin ostean.

Gure entzuleen lagun, senitarteko eta lankideak zoriondu nahi ditugu. Horre-gatik, bada, egin ezazu bat gurekin. Bi modu dituzu : 943 71 17 31 telefonora deituta edo *irratia@goiena.com* helbide-rra mezuza bidalita.


'MUSIKANTOI' > EGUNA, 21:45

## Musikazaleei zuzendutako saioa berria: 'Musikantoi'

Ixone Serrano arrasatearra izango da aurkezlea eta euskal taldeen bideoekipak izango dira ikusgai

**GOIENKARIA > ARRASATE**  
Musika saio berria estreinatuko du Goiena Telebistak datoren egunean. Euskal taldeen bideoekipak eskainiko dituzte, 1980 eta 1990eko hamarkadetakoak nagusiki; besteak beste, GOITBko artxibotik berreskura-tuta bitxikeriak aurkituko dituzue eta, horrez gain, agenda eta elkarrizketak izango dira tarte-an. Ixone Serrano arrasatearra izango da aurkezlea eta euskal musika taldeak dira protagonis-ta nagusiak.

Musikazaleek egunean dau-kate *Musikantoi* saioarekin hitzordua, 21:45ean.



'MUSIKANTOI' Ixone Serranok aurkeztuko du musika saio berria. GOIENKARIA

'ERREPORTAJEA' > ASTELEHENA, 21:45

## 'Etorki(zu)na eskolan' erreportaje astelehen gauean GOITBn

**GOIENKARIA > ARRASATE**

Aldaketa nabarmena izan dute bailarako eskolek azken urteo-tan: etorkinen uholde izugarri-ra moldatu behar izan dute. Gero eta globalagoa eta pluralagoa den gizarte honek badu eragi-nik ikastetxeetan, zalantzariak

ez. Immigrazioaren fenomenoak, askotan, erreakzio gaiztoak ere sorrarazten ditu: arrazakeria, xenofobia... Jarreroi, begirune, tolerantzia aktibo, elkartasun eta halako balioetan oinarritu-tako hezkuntzaren bitartez aurre-irritziak jaso dituzte.

behintzat, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak argitaratutako ikasle etorkinentzako arreta-programak. 2004an idatzi zuten programa hori erreferentea bihurtu da. Amagoia Lasaga-baster kazetaria eta Josu Txintxurreta teknikaria Bergarako Mariaren Lagundia ikastetxe-an izan dira. Ana Rosa Elortza eta Esti Larrinaga irakasleen eta Ignasi Vila hezkuntza aditu-aren iritziak jaso dituzte.

Astelehen gauean ikusi ahal izango duzue erreportajea, 21:45ean.

**telebegi**

Leire Kortabarria

### Gehiagorendako lekurik ez

**B**a bai, guk ere itzalaldi analogikoari aurre hartu eta deskodetzailea ekarri dugu. Besteak beste, hori zelako gurean La Sexta (eta bertako futbol parti-duak; hori eta *Prison Break* direlako, itxuran, kate hori ikusteko arrazoi bakarrak) ikusteko modu bakarra. *Seigarrena*-rekin batera sartu zaizkigu etxearen beste hamaikatxo kate: dena albisteak, dena iragarkiak, dena kirola, dena musika latindarra... Oraindik ez ditut guziak ezagutzen eta,uste dut, epe laburrean, behintzat, hori ez dela aldatuko.

Berritasun honek, ordea, eman dit zer pentsatua. Hain zuen, kate horietatik, La Sexta da kate orokor bezala -denetarik pixka bat eta larregirik ezer ez- jaio zen bakarra, orain urtebete inguru. Eta, audientzia datuak ikusita, izena primeran datorkio ikusleen gustuan zein postu duen azaltzen. Horrek, eta sortzen ari diren kate berrieik, esaten didate ez dagoela lekurik kate orokor berri gehiagorendako; arrakasta izan nahi duenak, sor beza kate espezializatu bat. GOITB horixe da, hain zuen: Debagoienean espezializatutako katea.

**arrasate irratia**

FM 107.7

**Zapatua**

10:00 Asteko gainbegiratua.  
Onintza Lasa, Ahotsak plataformako kidea eta EKO komunikazio idazkaria ; Mesedeetako Andra Maria ikastetxeko ikasleak irratian santaeskean; Elkarteen geltokian, Miren Onaindia, Unesco Etxea elkarreko kidea...

**Domeka**

10:00 Asteko gainbegiratua.

**Astelehenetik egubakoitzera**  
10:00-12:00 Igo autobusera!  
Albisteak  
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)  
Elkarriketak  
Lorategiaren geltokia: Bergarako Gorosti loradendako Irene Zenitagoiaren  
Opariak: kultura ekitaldiararako sarrerak eskuratzeko aukera  
Zorion agurrik  
(parte hartzeko: 943 71 17 31)  
12:05 Izarreran ordua: abesti ezagunak  
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.  
14:00 Igo autobusera! (errep.)  
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra.  
17:15 Zorion agurren tarte (errep.)

## GOITBko programazioa

**Egubakoitzza, 9**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Danbaka. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Eltze beroa 15:45 Gaurkoak. 15:47 Didjeridu-Aratz Mendizabal. 16:15 Hitz bitan 16:45 Albisteak. 17:15 Sherlock Holmes. 17:45 Gaurkoak. 17:45 Debarri-Bergara. 18:45 Albisteak. 19:15 Danbaka. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 20:45 Berriak. 21:15 Teknopolis. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Iragana gogoratu 22:15 lunpean. 22:45 Berriak. 23:15 Berbaire. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Jazmina. 00:15 Emisio amaiera.

**Zapatua, 10**

08:00 Emisio hasiera 08:05 Marrazki bizidunak: Nonochan, Sherlock Holmes eta Trikitraka trikitrakon. 11:00 Ikuimira. 11:30 Jazmina. 12:00 Aste-koak. 12:15 Gatza ta berakatza. 12:30 Erreportaia 13:00 Eltze beroa 13:30 Debarri-Bergara. 14:30 Danbaka. 15:00 Teknopolis. 15:30 Didjeridu. 16:00 Ur eta Iru. 16:30 Irunpean. 17:00 Marrazki bizidunak. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Klip@ 20:00 Iragana gogoratu 20:30 Erreportajea. 21:00 Berbaire. 22:00 Aste-koak. 22:15 Klip@. 22:30 Irunpean. 23:00 Didjeridu. 23:30 Danbakako kontzertua. 00:30 Emisio amaiera.

**Domeka, 11**

08:00 Emisio hasiera. 08:05 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes, Nonochan eta Trikitraka trikitrakon. 11:00 Iragana gogoratu. 11:30 Danbakako kontzertua. 13:00 Gatza ta berakatza. 13:15 Mkt. 13:30 Berbaire. 14:00 Didjeridu-Aratz Mendizabal. 14:30 Irunpean. 15:00 Ikuimira. 15:30 Marrazki bizidunak. 18:00 Jazzmina. 18:30 Iragana gogoratu. 19:00 Hasiberriak. 19:30 Eltze beroa. 20:00 Ur eta Iru. 20:30 Hitz bitan. 21:00 Erreportaia. 21:30 Klip@ 22:00 Debarri-Bergara. 22:30 Irunpean. 23:00 Berbaire. 23:30 Irunpean. 00:00 Danbakako kontzertua 01:00 Emisio amaiera.

**Astelehena, 12**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Teknopolis. 14:15 Iragana gogoratu. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Irunpean 15:45 Gaurkoak. 15:47 Klip@. 16:15 Bizitegia 16:45 Albisteak. 17:15 Sherlock Holmes. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Ur eta Iru. 18:15 Eltze beroa. 18:45 Albisteak. 19:15 Erreportaia. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 20:45 Berriak. 21:15 Harmaillatik. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Erreportajea 22:15 Telesaila. 22:45 Berriak. 23:15 Didjeridu. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Ikuimira. 00:15 Emisio amaiera.

**Martitzena, 13**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Harmaillatik. 14:15 Erreportajea. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Didjeridu 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Ikuimira 16:45 Albisteak. 17:15 Nonochan. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Irunpean. 18:15 Klip@. 18:30 Bizitegia. 18:45 Albisteak. 19:15 Harmaillatik. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Iturengoa iñauteriak. 22:15 Harmaillatik. 22:45 Berriak. 23:15 Iragana gogoratu. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Harmaillatik. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguztenea, 14**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Berbaire. 14:15 Iturengoa iñauteriak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Ur eta Iru. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Hasiberriak. 16:15 Eltze beroa. 16:45 Albisteak. 17:15 Sherlock Holmes. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Harmaillatik. 18:15 Iragana gogoratu. 18:45 Albisteak. 19:15 Iragana gogoratu. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Sherlock Holmes. 20:45 Berriak. 21:15 Mahai ingurua-Ahotsak. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Mahai ingurua-Ahotsak. 22:15 Harmaillatik. 22:45 Berriak. 23:15 Iragana gogoratu. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Harmaillatik. 00:15 Emisio amaiera.

**Eguna, 15**

13:15 Emisio hasiera. 13:20 Marrazki bizidunak: Nonochan. 13:45 Gaurkoak. 13:47 Mahai ingurua-Ahotsak. 14:45 Albiste aurrerapena. 15:15 Teknopolis. 15:45 Gaurkoak. 15:47 Danbaka. 16:15 Ikuimira 16:45 Albisteak. 17:15 Nonochan. 17:45 Gaurkoak. 17:47 Eltze beroa. 18:15 Hasiberriak. 18:45 Albisteak. 19:15 Bizitegia-Klip@. 19:45 Berriak. 20:15 Marrazki bizidunak: Nonochan. 20:45 Berriak. 21:15 Berbaire. 21:45 Gaurkoak. 21:47 Musikantoi. 22:15 Didjeridu. 22:45 Berriak. 23:15 Iragana gogoratu. 22:45 Gaurkoak. 23:30 Harmaillatik. 00:15 Emisio amaiera.



Astelehenean, Asteleheneko Goienkariako  
harpidedunen artean zozketatu ditugun  
**Realeko 10 txaleko eta 10 motxilen**  
irabazleen izenak jakitera emango ditugu!

*Adi! Harpideduna bazara,  
zu izan zaitezke irabazleetariko bat!*

Eta urtean zehar ere,  
Asteleheneko Goienkariako harpideduna  
izateagatik, astero hainbat **opari**  
jaso ahal izango dituzu.

**Asteleheneko Goienkaria, urte osoko harpidetza,  
35 euroren truke (902 36 38 51)**

**Goienkaria**  
astelehenean, aste bukaera osoa

# Otsailak 9-16

## Antzerkia




ESKORIATZA

**> Carlos Mô komikoak emanaldia egingo du unibertsitatean**

Carlo Mô aktore eta komikoak *Mal parto me raya* izeneko emanaldia egingo du. Umerez jantxitako ikuskizun horrekin barrea ziurtatuta dago. Gaur, egubakoitza, egingo du saioa unibertsitateko aretoan, 22:30ean.

## Antzerkia



OÑATI

**> 'Usted tiene ojos de mujer fatal' antzez-lana gaur, 20:15ean, Santa Ana aretoan**

Enrique Jardiel Poncelaren lan ezagun hori taulatuko du gaur, egubakoitza, Santa Ana antzokian Gasteizko Divertimentos taldeak. Aktore guztiak 60 urtetik gorakoak dira. Emanaldia Pake Leku elkarreka antolatu du.

## Bertso afaria



BERGARA

**> Xabi Paya eta Andoni Egaña bertsoaren arituko dira bihar Artatse elkartean**

Urteroko ohiturari jarraituz, aurten ere bertso afaria antolatu du Artatse elkartea. Xabi Paya eta Andoni Egañak gai librea jardungo dute. Biher, zapatua, izango da hori, 21:00etan, Artatse elkartean.

## Antzerkia

ELGETA

**> Anthony Blake magoaren emanaldia**

Mago ezagunak Espaloia kafe antzokian egingo du emanaldia. Sarrerak 17 euro balio du; 12, baziendeendako. Biher, zapatua, 22:30ean.

ELGETA

**> Inma Serranoren emanaldia bertan behera geratu da**

Alacanteko kantautoreak gaur Espaloian egiteko zen emanaldia bertan behera geratu da. Gaiso dagoelako laga duten bertan behera.

OÑATI

**> Eskujoko (malabar) ikuskizuna eta tailerra**

Ardatz zirku eskolak egingo du. Santa Marina plazan izango da; Elkar Hezi ikastetxeen, euria egiten badu. Biher, zapatua, 17:00etan 18:30era.

OÑATI

**> Eriz magoak emanaldia egingo du**

Errekalde Herri Eskolako hamabostaldi kulturalaren barruan egingo du emanaldia.

Biher, zapatua, 17:00etan, Zuazola institutuko aretoan.

## Musika

ARRASATE

**> Governors eta UEK musika taldeen emanaldia 3.60 aretoan**

Governors arrasatearren eta UEK hirukotearen emanaldia, ondoren DJ saioa egongo da Mansilla rock-and-rollekin.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

BERGARA

**> The Balza's Party, Ziripot tabernan**

DJ Ene! eta DJ Balza arituko dira musika jartzen.

Gaur, egubakoitza, 23:00etan.

ARRASATE

**> Elektro DJ sesioa egongo da 3.60 aretoan**

ENE! (Kogollo Party Crew) disko jartzaleak hartuko du parte.

Biher, zapatua, 03:00etan, 3.60 aretoan.

BERGARA

**> House Music gaua Ziripot tabernan**

DJ Bubbyk jardungo du musika jartzen.

Biher, zapatua, 23:00etan.

## Hitzaldiak

ARRASATE

**> Elkartegintzaren aje eta desafioen gaineko hitzaldia**

ARRASATE

**> Umeendako antzerkia Pok taldearekin**

Pok antzerki taldeak *Niez naiz txotxolo* haurrenako antzezlaneko ekarriko du Arrasatera. Bi aktore dira umeendako antzezlan horretako protagonistak; hainbat baino gehiago, hainbat sortuko dituzten pertsonaia dibertigarri guztiak dira protagonista: Xagutxo Perez, Martinen ama, Nora... Askotariko istorioak kontatuko dituzte pertsonaia maitagarri eta, aldi berean, xelebre horien bitartez.

Biher, zapatua, 17:00etan, Amaia antzokian.

Lankiko Joseba Azkarragak *Elkartegintzaren ajeak eta desafioak: gizartea nora doa?* delako berbaldia egingo du kultura etxeen

Gaur, egubakoitza, 18:00etan, kultura etxeen.

ESKORIATZA

**> Ahotsak plataformako ordez-karien hitzaldia**

Ahotsak plataformako ordezkariek *Emakumeak batzen gaituenetik* izeneko hitzaldia egingo dute.

Hilaren 14an, eguztena, 19:00etan Ibarraundi museoan.

OÑATI

**> Oñatiko erreken egoera eta fauna berbagai**

*Uraren erabilera. Oñatiko erreken egoera eta fauna* delako hitzaldia egingo dute Natura Eskolako kideek.

Hilaren 14an, 18:00etan, kultura etxeen.

OÑATI

**> Bolivia gaineko berbaldia kultura etxeen**

*Evo Morales: de la coca al palacio (Las transformaciones en la Bolivia actual)* delako berbaldia egingo du Albert Noguerak.

Hilaren 14an, eguztena, 19:00etan, kultura etxeko zinema aretoan.

OÑATI

**> Javi Subversion X-k hitzaldia egingo du**

*Las drogas, la calle, el grupo y la marginacion* delako berbaldia egingo du.

Biher, zapatua, 18:00etan, Portu tabernan gazte asanbladak antolatuta.

## Erakusketa

OÑATI

**> Jose Luis Gonzalezen eskultura erakusketa**



MONIKA BELASTEGI  
Zuon ekitaldien berri iragarteko, bidali informazioa  
eguzteneko egurdia baino lehen.  
Posta elektronikoa: [kultura@goiena.com](mailto:kultura@goiena.com)  
Tel.: 943 25 05 01/02 • Faxa: 943 25 05 13

Gaur, egubakoitza, hasi eta hilaren 25era arte Jose Luis Gonzalezen eskultura erakusketa dago ikusgai kultura etxeen.

Ordutegia: asteburuetan domekara, 18:30etik 20:30era.

OÑATI

**> Jose Angel Aretaren argazki erakusketa, Aroztegi aretoan**

Jose Angel Areta Goñi *Juxe-k Amazoniako oihanetik Pazifikora* izeneko argazki erakusketa jarri du ikusgai Aroztegi erakusketa aretoan.

Otsailaren 25era arte egongo da ikusgai.

BERGARA

**> Iraia Artzamendi margolaria-ren erakusketa**

Arrasateko margolaria Nahiakari tabernan jarri du margo erakusketa. Paperean egindako hamaika marraskik osatzen dute erakusketa.

Nahiakari tabernan hil bukaera arte.

## Ospakizunak

ESKORIATZA

**> Herriko kintoek dantza saioa egingo dute**

Santa Agada mutilek ohiko dantza saioa egingo dute.

Etzi, domeka, 19:00etan, herriko plazan.

ESKORIATZA

**> Urdelardero Eguna ospatuko dute herriko umeek**

Urdelardero Eguna ospatuko Inauterietan hasiera emango diete. 11:30ean txistorra banatuko dute plazan eta 17:00etan, Patxin eta Potxin pailazoek emanaldia egingo dute herriko plazan. Gero, txokolate jana egongo da.

Hilaren 15ean, eguna.

OÑATI

**> Eguren-gizen ospatuko dute Pake Lekun elkartekoek**

Txorizo ogitartekoekin eta dantzaldiarekin ospatuko dute Eguren-gizena Pake Lekukoek. Nahi duena mozarrotuta joan daiteke.

Hilaren 15ean, Pake Lekuren egoitzan.

## Lehiaketak

GIPUZKOA

**> Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako izenematea**

Irailean izango den arren, dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea. Txapelketan izena eman nahi duenak hiru modutan egin dezake: [www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com) helbidean, Gipuzkoako Bertsozale elkarteara deituta (943 67 05 75) edo elkartek Tolosan duen egoitzara jota.

Izenematea otsailaren 28ra arte luzatuko da.

## nire aukera



**Karmele Agirregabiria**  
Leintz Udal Euskaltekiko  
zuzendaria

## Prestatu gabeko aste bukaera

**P**restatu gabeko aste bukaera bat gustura har-tuko lukeela esan digu Agirregabiriak. Azken bolas-dan ekintza ugari dute haren bi alabek aste bukaeretan. Hortaz, horretara mugatuta egon behar izan du familiak azken aste bukaeretan.

Osterantzean, barikuan *Beria* hartu eta agendari begiratua egitea du gustuko: "Umeekin egiteko moduko zerbaitek badagoen ikusteko, azoka edo halakoren bat". Domeka goizean, berriz, men-di buelta egitea gustatzen zaio, eta Degurixa gomenda-tu digu. Arratsaldean, etxe-an lasai geratu nahiko luke.

**Nora joango zinateke  
familiarekin aste bukaera  
pasatzera? Eta lagunekin?**  
Familiarekin Pirinio aldera  
eta lagunekin, Errioxara.

### Bidaiatzeko zein garraio mota?

Autoa. Askatasuna ematen duelako; gainera, gehienetan senarrak gidatzen duenez... Kopilotu txarra naizela esaten dit.

### Auzoan bizi izanda, Ube- ran, noiz edo noiz gustura hartuko duzu hiriburueta- ko zurrubiloa.

Bai. Kosta egin zitzaidan auzora ohitza. Umeekin gora eta behera ibiltzea nekagarria da, baina dauzkan alde onek konpentsatu egiten dute.

**Film bat?**  
Ikusi dudan azkena: *E/  
Ilusionista*.

**Liburu bat?**  
*Behi euskaldun baten  
memoriak, euskaraz, eta La  
nieta del Señor Linh*, gaztel-a-niaz.

# Zinema

### ARAMAIO KULTURA ETXEA

Annaluise eta Anton  
Domeka: 17:00.

### ARRASATE AMAIA ANTZOKIA

Maria Antonieta  
Domeka: 19:30.  
Astelehana: 20:30.

**Harri magikoaren bila**  
Domeka: 17:00.

**Copying Beethoven**  
Eguena: 20:30.

### ELGETA ESPALOIA ANTZOKIA

**Bambi II**  
Domeka: 17:30.  
**8 mujeres**  
Eguaztena: 21:30.

### ONATI KULTURA ETXEA

**Rocky Balboa**  
Egubakoita: 22:30.  
Zapatura: 22:30.  
Domeka: 19:30, 22:30.  
Astelehana: 19:30.

**Harri magikoaren bila**  
Zapatura: 17:00.

**La panda del patio**  
Domeka: 17:00

**El taxista azul**  
Eguena: 20:00.

### PORTU TABERNAN

**Kamchatka**  
21:00.

### BERGARA AGORROSIN EKINTZA GUNEA

**Julieta fokatxo xelebre**  
Zapatura: 16:00, 18:00.  
Eguaztena: 16:00, 18:00

### EIBAR UNZAGA

**La caja Kovac**  
Egubakoita: 19:30, 22:15.  
Zapatura eta domeka: 19:30,  
22:30.  
Astelehana, martxetena eta  
eguztenea: 19:30, 22:15.

**El Ratoncito Perez**  
Zapatura eta domeka: 17:00.

### GASTEIZ GURIDI

**Noche en el museo**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Pequeña Miss Sunshine**  
17:00.

**Diamante de sangre**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Días de cine**  
17:30, 20:00, 22:30.

**Bobby**  
20:45.

**El cubo mágico**  
17:00.

**Mas extraño que la  
ficción**  
17:00, 22:30.

**Las mantenidas sin  
sueños**  
Egubakoita: 17:30, 20:00,  
22:30.

**El laberinto del fauno**  
16:00, 18:15, 20:30, 23:00

**Fuerte Apache**  
20:30, 23:00.

**Infiltrados**  
16:00, 19:00, 23:00.

**El truco final: El  
prestigio**  
12:15, 16:45, 18:25, 20:25,  
22:25, 00:25.

**Más extraño que la  
ficción**  
20:30, 23:00.

**La caja Kovac**  
20:30, 23:00.

**Arthur y los Minimoys**  
16:00, 18:15, 20:00.

**Happy feet**  
16:00, 18:15.

**Ratonpolis**  
16:00, 18:15, 20:00.

**Gauerdiko saioak, egubakoitz  
eta zapatuan.**

**Eguena, ikuslearen eguna.**

### FLORIDA-GURIDI

**Babel**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Miguel Y William**  
20:00.

**Darshan**  
17:30, 22:30.

**El libro negro**  
17:00, 19:45, 22:30.

**Luces al atardecer**  
20:15.

### YELMO CINEPLEX-GORBEIA

**En busca de la felicidad**  
12:15, 15:45, 18:00, 20:20,  
22:35, 00:50.

**Ases calientes**  
20:30, 22:20, 00:20.

**El libro negro**  
12:15, 21:00, 23:45.

### Miss Potter

17:30, 20:00, 22:30

### La masai blanca

17:30, 22:30.

### La ciencia del sueño

17:30, 20:00, 22:30.

### Shortbus

17:30, 20:00, 22:30

### ÁBACO-LAKUA ZINEMAK

**Diamante de sangre**  
16:00, 19:00, 23:00.

**En busca de la felicidad**  
16:00, 18:15, 20:00.

### Pulse

16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

### Noche en el museo

16:00, 18:15, 20:30, 23:00.

### Fuerte Apache

20:30, 23:00.

### Infiltrados

16:00, 19:00, 23:00.

### El truco final: El prestigio

12:15, 16:45, 18:25, 20:25,  
22:25, 00:25.

### Más extraño que la ficción

20:30, 23:00.

### La caja Kovac

20:30, 23:00.

### Arthur y los Minimoys

16:00, 18:15, 20:00.

### Happy feet

16:00, 18:15.

### Ratonpolis

16:00, 18:15, 20:00.

### Gauerdiko saioak, egubakoitz eta zapatuan.

Eguena, ikuslearen eguna.

### Yelmo

CINEPLEX-GORBEIA

**En busca de la felicidad**  
12:15, 15:45, 18:00, 20:20,  
22:35, 00:50.

**Ases calientes**  
20:30, 22:20, 00:20.

**El libro negro**  
12:15, 21:00, 23:45.

### Pulse

12:15, 15:50, 17:30, 19:15.

### Sin Chan

12:15, 16:00, 18:10.

### Días de cine

12:15, 16:00, 18:15, 20:30,

22:45, 01:00.

### Noche en el museo

17:30, 19:45, 22:00, 00:15.

### Juegos secretos

12:00, 16:10, 19:10, 22:00,

00:45.

### Miss Potter

12:00, 16:00, 18:00, 20:00,

22:00, 00:15.

### En busca de la felicidad

12:00, 17:00, 19:40, 22:15,

00:45.

### Ases calientes

12:15, 16:00, 18:20, 20:30,

22:45, 01:00.

### Miguel y Willyam

12:05, 16:00, 18:10.

### Noche en el museo

12:10, 15:45, 17:00, 18:05

19:45, 20:20, 22:40, 01:00.

### Dreamgirls

22:10, 01:00.

### Cry wolf

20:15, 22:25, 00:05.

### Apocalypso

19:15, 22:10, 01:00.

### El truco final

12:10, 16:30, 19:20.

### Banderas de nuestros pad

# Sexuaren zirrara saltzen

**KONDOI MAKINAK** Ander Beristain bergararra ibiltzen da kondoi makinak hornitzen Euskal Herrian eta Errioxan

**EDU MENDIBIL > BERGARA**  
Debagoienean ez ezik, Euskal Herri osoan eta Errioxan ibiltzen da kondoi makinak hornitzen Ander Beristain bergararra. Dagoeneko hamar urtetik gora egin ditu lan horretan. Furgonea hartu eta bidean hasi aurretik, martitzenean izan ginen harenkin hizketan: "Kondoi makinekin tabernetan eta diskoteketan ibiltzen naiz nagusiki, baita hiriburueta autobus geltokietan, 24 orduz zabalik dauden lokaletan... Guztira, 1.100 makina inguru dauzkagu Euskal Herrian eta Errioxan; zona hori eramatea egokitzen zait niri". Urtean zehar, hara eta hona, 35.000 kilometro inguru egiten dituela diosku Beristainek. Hala ere, errepiedian ibili behar izatea ez da gehien kezkatzen duena; bezero berriak topatzea gogorragoa egiten zaio.

**SALMENTAK BEHERA**  
Gauzak dezente aldatu dira Beristain lan honetan hasi zenetik gaur arte: "Hasieran jende batek erreparoa zuen horrelako makinak jar-

tzeko, baina gaur guztiz normala da". Dena dela, salmentak dezenetan behera egin duela dio: "Ikerketa baten arabera, 17 urtetik 22 urterako arteko gazteen artean, %70ek kondoirik gabe egiten dute larrutan. Beste metodo batzuk topatzentzituzte, eta, aldi berean, hiesa gertutik bizi izan ez duen belaunaldikoak direnez, ez diote horrenbesteko beldurrik babes gabeko sexuari. Azken bost urteotan erdira jaitsiko zen kondoien salmenta". Orain dela hamar urte 100 pezeta balio zuten kondoien prezioa euro bat da gaur. Zalantzak gabe, kondoi gehien uda parteantzen dituztela dio: "Orduan igartzen da salmenten gorakada, nabarmen gainera. Herri askotan jaiak izaten dira eta horrek ere asko laguntzen du...". Debagoieneko rankingean Arrasate jartzetan du sailkapeneko lehen postuan: "Bai, ziurrenik, Arrasaten salduko ditugu kondoi gehien".

Kondoiekin eta tangekin batera vibragailuak saltzen hasiko da hurrengo egunetan. Sexuaren zirrara piztea da kontua.

**SALMENTAK** Beristainen esanetan, azken bost urteotan kondoien salmentak behera egin du nabarmen

**UDAN GEHIAGO** "Udan saltzen dira kondoi gehien. Jaiak ere izaten dira han eta hemen...", dio Beristainek



HERRIZ HERRI Ander Beristainek hamabi urte darama kondoi makinak hornitzen.

E.M.

## ahobero

**"Mundu guztiak uste zuen Iraken suntsipen handiko armak zirela eta orain badakit ez zela horrela"**

**Jose Maria Aznar >** Spainiako presidente ohia

Antza, Spainiako presidente izan zen garaian ez zituen aholkulari hoberenak Aznar jaunak... PP alderdiak gogor eutsi zion Iraken aurkako erasoari eta txarrena da guzti horrek ekarri dituen ondorioak, oraindik sufrizten ditugunak.

## iturri onetik

**Des-Kontrol musika taldeak bira egingo du Ameriketako Estatu Batuetan, udaberrian**

Arrasateko Des-Kontrol punko! taldeak AEBetan barrena bira egingo du bigarren aldiz. Martxoaren 30ean joango dira hara eta apirilaren 15era arte ibiliko dira kontzertuak ematen. New Yorkeko estatuan Albanyn izango dira eta ondoren Bostonen joko dute; Kalifornian, berriz, Santa Cruzan, Monterreyn, San Frantziskon, Sacramenton, Watsonvillen... Aurreko biran harrera bikaina izan zuen taldeak.

## piperraутса

**Mikel Irizar > www.goina.net/blogak/piperraутса**

### Arrasate gainbehera

Ia 300 biztanle galdu ditu Arrasatek iaz, Gipuzkoako herrien artean galerarik handiena. Bi mila biztanletik gora ditu galduak, azken hamar urtetan. Une bateko kontua ez den seinale.

Izango dira etxebizitza garestiak, eta inguruko herriko joera. Aipatu da herriko bizi-maila, eta Donostiarako bigarren etxebizitza; zergak arintze aldera bizioki aitortzen dena, asteburuko atsedenelek besterik ez bada ere. Autopistak lanera etortzeko erraztasuna dakarren bezala, nonahi bizitzeko aukera ere ematen duela ezin uka?

Faktore asko, denak itxuraz balekoak. Eta, hala ere, ez dakin Arrasate hustearen arrazoi nagusia ez ote den bertan bizitzeko ilusio falta, tokiarekiko maitasun eza. Triste ikusten dut herria, noraezean.

## ai, ene!



**Plastikozko soldaduak ikurrinari eusten**

Banderas de nuestros padres filma ikusgai dago zinema aretoetan. Norbaitek plastikozko soldaduak jarri ditu Iwo Jiman...

<http://tinyurl.com/38foz4>

*Eraman dotoretasuna zure etxera*



**gelatzu** s.l.

Zubillaga auzoa 1  
ONATI  
Tel: 943 71 63 22  
Faxa: 943 78 15 51

